

Gernika-Lumo (1876-1937)

Sarrera historikoa

Ander **D**elgado
Cendagortagarza



46

colección
Lankidetzan
bilduma





colección

Lankidetzan

bilduma

Gernika-Lumo (1876-1937)

Sarrera historikoa



Ander **Delgado Cendagortagarza**

Azalaren argazkia: "San Juan elizaren inaugurazioa 1910. urtean. Eliza hau gaurko San Juan Ibarren zegoen eta bonbardak etan suntsitua izan zen" (*Novedades*, 1910-XII-4).

Delgado Cendagor tagalarza, Ander

Gernika-Lumo (1876-1937). Sarrera historikoa / Ander Delgado Cendagor tagalarza.
- Donostia : Euskoko Ikaskuntza, 2008

163 or. : ir. ; 24 cm. - (Lankidetzan ; 46)

ISBN: 978-84-8419-169-8

I. Delgado Cencagor tagalarza, Ander II. Serie III. Tit.

Eusko Ikaskuntzak eta Gernika-Lumoko Udalak bere eskerrona adierazi nahi die aile honetak o autoreari, eta ohi duten gisa honen erizpideak errespetatzen dituzte, honek ez duelarik esan nahi bereziki horiekin bat daudenik.

Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos y el Ayuntamiento de Gernika-Lumo muestran su agradecimiento al autor que ha colaborado en este volumen y de acuerdo con su tradición, respeta todos sus criterios y opiniones, sin que ello signifique que asuma en particular cualquiera de ellos.

ISBN: 978-84-8419-169-8

D.L.: SS-1777-2008

Michelena artes gráficas
Astigarraga (Gipuzkoa)

Gernika-Lumo (1876-1937)

Sarrera historikoa

Laburpena. Resumen. Résumé	9
Aurkezpena	11
Sarrera	13
1. Gizartea eta ekonomia	15
1.1. Nekazal mundua	21
1.2. Artisautza, merkataritza eta zerbitzuak	24
1.3. Industria	29
2. Langile mugimendua	37
3. Eguneroko bizitza	51
4. Politika herri txiki batean	68
4.1. Biztanleen politika egiteko modua	70
4.1.1. Politika “zaharra”	70
4.1.2. Politika “berria”	81
4.2. Politika Gernika-Lumon	93
4.2.1. Berrezarkuntza-garaia (1876-1923)	93
4.2.2. Primo de Rivera-ren diktadura (1923-1930)	116
4.2.3. Bigarren Errepublika (1931-1936)	124
4.2.4. Espainiako Guda Zibila eta bonbardaketa (1936-1937) ..	142
5. Zenbait ideia amaitzeko	151
6. Bibliografia komentatua	157
Bibliographic Section	163

Liburu honetan azken Guda Karlista eta 1937ko Bonbardaketa bitarteko Gernika-Lumoko historia aztertzen da. Liburuaren helburua epe horretako gizarte, ekonomia eta politikari buruzko sarrera bat egitea da. Bertan esparru desberdin horietan eman ziren bilakaera nagusienak aztertzen dira. Azterketa horren bidez, nekazal inguruan kokatuta egon arren, Gernika-Lumon ematen zen egoera uste zen baino modernoagoa zela frogatzen da, bereziki politikaren esparruan.

Giltza-Hitzak: Gernika-Lumo. Gizartea. Ekonomia. Politika. Eguneroko bizitza. XIX. mendea. XX. mendea.

Este libro analiza la historia de Guernica-Lumo desde la última Guerra Carlista hasta el bombardeo de 1937. El objetivo del libro es el de describir la sociedad, la economía y la política de la época. Se analizan los cambios que se produjeron en estos ámbitos. Mediante este análisis, y a pesar de que Guernica-Lumo estaba situado en una zona agraria, se observa que la situación de dicho municipio era más moderna de lo que se pensaba, principalmente en el aspecto político.

Palabras Clave: Gernika-Lumo. Sociedad. Economía. Política. Vida cotidiana. Siglo XIX. Siglo XX.

Avec cet ouvrage, qui n'est autre qu'une étude de la dernière Guerre Carliste et de l'histoire de Gernika-Lumo au moment du Bombardement de 1937, l'objectif est de fournir au lecteur une approche de la conjoncture sociale, économique et politique de cette période. Les principales évolutions que connurent, à cette époque, ces différents secteurs y sont examinées. Cette étude démontre que, bien que située dans un environnement rural, la situation de Gernika-Lumo était alors beaucoup plus moderne qu'on ne le croit, en particulier sur un plan politique.

Mots Clé : Gernika-Lumo. Société. Economie. Politique. Vie quotidienne. XIX^e siècle. XX^e siècle. ^e

AURKEZPENA

Ander Delgado ikerlari eta idazle gernikarrak hainbat urte daramatza gure ondare soziologikoa aztertzen. Aurrean dugun hau, bere lanaren adierazgarri da. Izan dituen baliabide eskasekin, eta egindako ahalegin eta azterketen ondorioz, aurrean dugun lana aurkezten digu.

Aurrez, gazteleraz egindako lan baten berrazterketaketa da. Gernika-Lumo bezalako herri batentzat hain esanguratsua izan diren bi daten artean, bizi izandako aldaketak dakarzkigu gogora.

Karlisten gerrak bukatu ostetik, Gernika-Lumon, apirilaren 26an izandako Bonbaketa egunerarte izandako bizipenak izan dira aztergai. Garai horretan aurrerapen izugarriak bizi izan genituen: bai industri arloan, populazio hazkundea, jardun politikoaren areagotzea... horrek guztiak, gaur egun, ditugun zenbait egoera ulertzeko parada ematen digu eta era berean geroara izango zirenak aurreikusten lagundu.

Horregatik, eskerrak eman Ander Delgadori egindako lanagatik eta Eusko Ikaskuntzari honelako proiektu batean sinistegatik eta aurrera eramateko egindako ahaleginagatik. Bertan ageri diren gertakariak guztiok ezagutu ditzagun eta garai hartako historia gogoratu dezagun egin da liburu hau. Bizi izandako Guda Zibilak ezarritako zapalkuntza izan ez dadin ezezagutzaren mugarri.

Ekain Ormaetxea Uribarri
Kultura, Euskara eta Hezkuntza arloko zinegotzia

SARRERA

Gernika-Lumoko historian izandako gertaerarik ezagunena, duda izpirik gabe, 1937ko apirilean alemaniar eta italiar hegazkinek eginiko bonbardaketa izan da. Herrian egin zuten txikizioak mundu mailan oihartzun handia izan zuten –eta oraindik ere badu, Picasso-k margotutako koadroa baita horren adierazle–, eta Bigarren Mundu Guduan gizarte zibilaren aurkako aire eraso masiboen ait zindaria izan zen. Ordutik aurrera gerren suntziketen eta zentzugabetasunaren sinbolo bilakatu da. Euskal Herri mailan, hala ere, Gernikako Arbola herrian egoteak egin zuten ezaguna herria. 1876 urteko foruen ezabaketa onartu ondoren, bere garrantzia asko handitu zen. Balio sinboliko horri esker, foru edo euskaldunen askatasunekin zerikusia zuten akto, aldarrikapen edo propaganda ekitaldi ugari Gernika-Lumon egin ziren. Horregatik beragatik, herria eta bertan emandako zenbait gertaera ezagunak dira.

Gertaera horietaz aparte, herriko historia nahiko ezezaguna zen. Gernikazarra Historia Taldeak lan handia egin du egoera horrekin bukatuzeko, argitaratu dituen liburu eta artikuluekin. Hala ere, Gernika-Lumoko Udalak, 1876 eta 1937 urte bitarteko aldia zentzu askotan ezezaguna zela ikusirik, herriko historia ezagutzera emateko ekimena hasi zuen. Horren lehenengo emaitza 2005. urtean liburu honen idazleak argitaratutako ***Gernika-Lumoko entre dos guerras civiles. De la Capital Foral al Bombardeo (1876-1937)*** (Donostia: Txertoa, 2005) izan zen. Liburu hori herriko aro garaikideari buruz egindako lehenengo lan historiko sistematikoa izan zen, eta gaurko Gernika-Lumoko sorrera eman zen aldia eman nahi izan zuen ezagutzera.

Baina herriko udalaren ekimenak ez ziren horretara mugatu; beste pausu bat ematea erabaki zuen. Gernika-Lumoko Udalak, Eusko Ikaskuntzarekin zuten akordioa horretarako bide egokia zela pentsatuz, beste bi helburu lortu nahi zituen. Alde batetik, aipatutako liburua gazteleraz egina zegoen eta udalak euskaratzea nahi zuen. Baina bestetik, ez zuen nahi lan osoaren itzulpena egin soilik. Lan hori egin behar zela ikusirik, beste ezaugarri bat gehitu nahi zitzaion: Gernika-Lumoko herriko historiaz interesatutako gazteentzat –eta ez horren gazteentzat– eskaintzeko lan sintetikoagoa eta landutako gaien aurkezpen erraza egitea nahi zuen, baina bere maila zientifikoa galdu gabe. Bat xilergoan dauden ikasleei eskaini nahi zitzaizkien testu berri bat, irakurketa eta historiari buruzko zaletasuna indartzeko. Helburu horiek guztiak bete nahi duen testua duzu eskuetan, beraz.

Edozein liburu idazteak pertsona askoren laguntza eta bultzada behar du beti. Honetan ere bai. Nire eskerronik beroenak, beraz, Gernika-Lumoko Udalari, eta bereziki urte hauetan izan den eta egun dagoen Kultura zinegotzi

biei, nigan izan duten konfiantzagatik, nire a tzerapenak jasan dituztelako ezer esan gabe eta lana egiteko beharrezkoa den bultzada eman didatelako. Eusko Ikaskuntzari ere bai, liburu hau argitaratu dadin egin duen lanagatik. Neure aldetik, aipamen berezia merezi dute Bittor Zarrabeitiak, lan honen beharraz jabeturik, azkenean egin zedin eginiko kudeaketengatik, eta Karlos Gorrindok, testua zuzentzen hartu zuen lanarengatik. Eta, azkenik, nire emazte eta seme-alabei eskaini behar diet lan hau. Berriro ere haien pazientziaz baliatu naizelako lana bukatu zeko.


Oma, 2008ko iraila

1. Gizartea eta ekonomia



Herri bateko, kasu honetan Gernika-Lumo, gizarte eta ekonomiari hurbiltzeko eman beharreko lehenengo pausua bere biztanle kopuruaren bilakarari begirada bat ematea da. Horrekin herriko zenbait ezaugarri buruzko bat-bateko inpresioa lor daiteke. Datu horiekin hurrengo koadroa eratu da. Bertan argi ikusten da ikerketa honetako epe zabalean Gernika-Lumo herri txikia izan zela. Bigarren Errepublikan lortu zuen, azkenean, bost mila biztanle baino gehiago izatea. Hala ere, esan beharra dago, garai hartan, tamaina txiki-kiko herriena zela egoerarik arruntena. Bilbo eta bere ingurune industrialetik kanpo –non biztanle hazkunde izugarria eman zen oso denbora laburrean–, Bizkaiko nekazaritza arloko udalerriek ez zuten biztanle gehiegirik. Herriguneri ez zuten ere ez ziren oso handiak, mila bizilagun gutxi gorabehera. Horixe zen, bada, Gernika-Lumoko kasua.

Gernika-Lumoko biztanleriaren eboluzioa (1860-1940)



Begirada zehatzago batek argi adierazten du urte horietan guztietan Gernika-Lumo ez zela mantendu egoera berean. Aztertzen ari garen urteetan aldaketak eman ziren. Gernika-Lumo herri txikiaren artean kokatzen jarraitu behar bada ere, ezaugarri aldaketa aipagarriak bizi izan zituen 1937 urtean alemaniarrek herria bonbardatu zutenerako. Grafikoa begiratu, 1887tik aurrera eta Gerra Zibila bukatu arte, hazkunde prozesua bizi izan zuen herriak. Urte horien guztien artean eman zen joera orokorrak hori adierazten

badu, epe horren bilakaera aztertuz, zenbait diferentzia ematen direla ere ikusten da. 1910 bitartera arte hazkundera geldoagoa izan zen, eta urte horretatik aurrera indartu egin zen. Demografiaren bitartekariak kopuruaren bilakaera aztertzean, normalean faktore desberdinetan jartzen dute begirada, azalpen integratu bat emateko asmoz. Gernika-Lumoko hazkunderaren arrazoiak kasuan ere gauza bera gertatzen da: ez da faktore batek sortua soil-soilik. Aipa daitezkeen artean, lan honetan garrantzitsutzat jotzen direnak aurkeztuko dira segidan.

XIX. mendearen azkenalditik eta, bereziki, hurrengo mendearen lehen hamarkadetan Bizkaiko nekazaritza arloko demografiaren prozesu aipagarria nekazarien emigrazioa izan zen. Bere jaioterrian bizi ahal izateko aukera ekonomikoa ez egotean nekazari guztientzat –denentzako lur eta bizileku nahikoa ez zegoelako–, askok alde egitea erabaki zuten, edota hori egitea behartuta egon ziren. Horretan eragin handia izan zuen, beste faktore batzuen artean, oinordeko bakarraren herentzia sistemak. Horren ondorioz, familiako zenbait kidek “lekurik” gabe geratu ziren baserrian, dena oinordeko batek eskuratzen zuelako. Batzuk Bilbo inguruko industria eta meategietara joaten ziren lan bila; beste batzuk, osterara, Ameriketara. Egoera honen ondorioak oso nabariak izan ziren Gernika-Lumo moduko nekazal eskualde baten. XX. mendearen lehen herenean biztanleak galduz joan zen: 1901tik 1910era bitartean 4.534 biztanlek alde egin zuten; hurrengo hamarkadan 5.320k, eta 1920tik 1930era bitartean 6.268k.

Eskualdeko datuek, hala ere, egoera heterogeneoa ezkutatu zuten dute. Aipatutako tendentziaren barnean, Gernika-Lumon ikusi ditugun hazkundera datuek nolabaiteko kontraesana adierazten dute, jendeak alde egin beharrean, herrira etorri egin zelako. Hau da, eskualdetik kanpora joateaz aparte, eskualdean bertan jendea mugitu ere egiten zen, baserrietik herriera, alegia. Emakumeek neska eta mutilek ofizio bat ikasteko eta lan egiteko aukera zuten; ezkontza aukerak ere handiagoak izango ziren biztanle kopurua eta ezkongai gehiago egongo zelako; eta baita baserriko bizitzatik kale girora “ihes” egin nahi zutenak ere egongo ziren.

Aipatutakoaz aparte, Gernika-Lumoko populazioaren hazkundera bigarren faktore batek ere eragin zuzena izan zuen. Denboraren poderioz, herriko higie eta udal zerbitzuek, zaborren gestioan, estolderian eta uren hornikuntzan bereziki, hobetu ziren. Higie-faltak edo era desegokian egiteak, kaleetan zehar barnean, eta urte txarra edateak gaixotasun ugari sortu zituen (tifusa, gastroenteritis, tuberkulosia, etab.) eta hilkortasun tasa handien sortzaile ziren. Udal agintariek hori jakinik eta udaleko errekurtsio ekonomikoek ahalbidetu zuten zuten neurrian, arazoak konpontzen saiatu ziren. Estoldak, ur-biltegi eta hornidura aproposak eraikitzea, edota kaleen erabilera eta etxeko barne ezaugarriei buruzko erregulazio zorrotzak jartzearekin lotu ziren aipatutako gaixotasunak murriztea eta, ondorioz, hilkortasun tasa gutxitzea. Gernika-Lumon hartu ziren neurrien adibide bat 1914 urteko prentsa artikulua batek ematen digu. Bertan, Isidoro León alkate monarkikoaren laudorioez gain, herrian martxan jarritako neurriak aurkeztu ziren:



Gernika-Lumo XX. mendeko 30. hamarkadan El Ferial. (Vizcaya, 26. zbk., 1966)



Pasealekua XX. mendeko 30. hamarkadan (Vizcaya, 26. zbk., 1966)

Esta reforma importantísima ha dotado al pueblo de una mejora á la altura de las ciudades más adelantadas en materia de higiene y salubridad.

Este saneamiento, que ha costado á las arcas municipales muy cerca de 250.000 pesetas, y que cuenta con más de treinta registros de descargas automáticas de aguas, ha influido poderosamente en la salud pública, siendo hoy Guernica uno de los pueblos que pueden señalarse como modelo en las estadísticas demográficas.

El número de defunciones, dentro del término municipal, era antes del saneamiento de «ochenta» como promedio al año, y en los últimos años transcurridos no ha pasado de «sesenta».

Es de notar también la exigua proporción de defunciones en niños, a pesar del notable aumento de población (*El Pueblo Vasco*, 1914-XII-23).

Artikulu honetan bertan hitz egiten dugu Gernika-Lumoko biztanleriaren bilakaerarekin bukatu zeko, aipatuko dugun azkeneko arrazoia herriko ekonomiaren bilakaerarena da. 1910 urtetik aurrera ematen den bizkortzea industriaren zabalkuntzarekin bat dator. Momentu horretara arte, Gernika-Lumo nekazal eskualde bateko buru zen. Baserri giroko herri txikia izanik, bere aukera ekonomiak ez ziren oso handiak, geroago aztertuko dugun moduan. Nekazal produktuentzako merkatua zen eta herriko beste eginkizun garrantzitsuena baserritarrei beste modu batera lortu ezin zituzten hornidurak eta zerbitzuak eskaintzea ere bazen. Horregatik, artisautza, merkataritza eta bestelako zerbitzuak (hezkuntza, erlijio alorrekoak eta juridikoak) ziren herriko aktibitate aipagarrienak. Baina, XX. mendeko bigarren hamarkadan –1913 urtetik aurrera, zehazki– herriaren egitura sozio-ekonomikoa aldatu zen hasi zen. Industria-sektore berri bat ezarri joan zen apurka-apurka, eta Gernika-Lumoko itxura aldatu joan zen. Aipatutako eginkizunak betetzeari utzi gabe, herriko ekonomiaren ardatz eta ezaugarri aipagarriena bihurtu zen industria-sektorea. Horrek giza eta ekonomi alorrean herri dinamikoago bihurtu zuen. Biztanleak mantentzeko bestelako aukerak zabaldu zituen, eta emigrazio gune erakargarriago bilakatu zen herria.

Biztanleriaren bilakaerarekin bukatu zeko, aipatuko dugun azkeneko arrazoia herriko ekonomiaren bilakaerarena da. 1910 urtetik aurrera ematen den bizkortzea industriaren zabalkuntzarekin bat dator. Momentu horretara arte, Gernika-Lumo nekazal eskualde bateko buru zen. Baserri giroko herri txikia izanik, bere aukera ekonomiak ez ziren oso handiak, geroago aztertuko dugun moduan. Nekazal produktuentzako merkatua zen eta herriko beste eginkizun garrantzitsuena baserritarrei beste modu batera lortu ezin zituzten hornidurak eta zerbitzuak eskaintzea ere bazen. Horregatik, artisautza, merkataritza eta bestelako zerbitzuak (hezkuntza, erlijio alorrekoak eta juridikoak) ziren herriko aktibitate aipagarrienak. Baina, XX. mendeko bigarren hamarkadan –1913 urtetik aurrera, zehazki– herriaren egitura sozio-ekonomikoa aldatu zen hasi zen. Industria-sektore berri bat ezarri joan zen apurka-apurka, eta Gernika-Lumoko itxura aldatu joan zen. Aipatutako eginkizunak betetzeari utzi gabe, herriko ekonomiaren ardatz eta ezaugarri aipagarriena bihurtu zen industria-sektorea. Horrek giza eta ekonomi alorrean herri dinamikoago bihurtu zuen. Biztanleak mantentzeko bestelako aukerak zabaldu zituen, eta emigrazio gune erakargarriago bilakatu zen herria.

Ekonomiak herri baten biztanleriaren bilakaeran duen garrantzia aipatu ondoren, Gernika-Lumon aurkitu zen ditugun hiru sektore ekonomikoaren azterketa jorratuko dugu segidan. Lehenik, nekazaritza zaren ezaugarri nagusiak eta orokorrak aurkeztuko ditugu. Normalean, baserrietan aktibitate ekonomikoarekin lotutako dokumentaziorik gordetzen ez denez, eta garaiko instituzioek estatistikarik eta daturik biltzen ez zuten, ez dago informazio gehiegirik sektore ekonomiko horri buruz. Beraz, azalpen deskriptibo orokor bat egitera mugatuko dugu hurrengo atala. Bigarrenik, artisautza eta merkatal sektoreak bere atal propioa izango dute, berriro ere dokumentazio urriak mugatuta. Azkenik, industria-sektoreak leku berezia du azterketa honetan, gizartearen egituran izan zuen eraginagatik eta aro modernoaren ezaugarri baten etorrera ekarri zuelako: langile mugimendua.

1.1. NEKAZAL MUNDUA

Gernika-Lumoko aktibitate ekonomiko garrantzitsuenen artean beti egon zen nekazaritza. Egoera hori nabariago egin zen 1882 urtetik aurrera, Gernikako herria eta Lumoko elizatea batu zirenean, gaur egun ezagutzen den udalerrira osat zeko. Aipatu dugunez, zorituraren nekazaritza eta abeltzaintzari buruz ez dugu datu gehiegirik eta, ondorioz, ez da posible herriko egoera zehatz aztertzea. Hori dela eta, atal honetan egingo dena euskal Kantauri isurialdeko baserri munduko zenbait ezaugarri orokor aurkeztea izango da, Gernika-Lumon bizi izango zen egoerari buruzko zenbait argibide emateko asmoz.

Ezaguna den arren, nekazal munduko unitate ekonomikoa baserria zela aipatu behar da lehenik eta behin. Gaur egun hitzak horrekin, askotan, baserriarra bizi den etxe izendatuz erabiltzen da, baina aztertzen ari garen garaian, ordea, eraikin horren inguruan zeuden lursail guztiak gehitu behar zaizkio izendapen horri. Lur horiek guztiak hiru talde nagusitan banatzen ziren. Lehenik "soroa" zegoen, non garia, artoa, indabak eta abereentzako landare lekadunak landatzen ziren, lur errotazio modu desberdinetan. Bigarrenik, "ortua" zegoen, familia elikatuzeko eta inguruko herrietan merkaturatuzeko barazkiak eta ortuariak landatzen ziren. Azkenik, hirugarren atala, "mendia" zen. Landu gabeko lursaila zen hau eta egurra, abereen etzalekuetarako otak eta iratzeak batzen ziren bertan, eta baita abelburuak jaten botatuzeko ere erabiltzen zen gehienbat. Deborarekin, eta bereziki XX. mendearen hasieratik, laugarren atal ere gehitu zituzaien baserriko lursailak, "landak", alegia. Abelburu gehiago mantentzeko, beharrezkoa zen "mendi" asko izatea edo zenbait lursail belarra ekoizteari dedikatzea. Belar kopuru handiagoa lortzean, kortan gordetzen ziren abelburuak hobeto elikatuzeko eta lursail hauekin buru gehiago mantendu ere. Euskal baserrian lanik handienak XIX. azken herenetik aurrera egin ziren, bera zelako esplotazioaren egoera ekonomikoa hobetzeko aukera bakarra; bere ezaugarri nagusienak aldatu nahi ez baziren, behintzat.

Atal horiek guztiak izan arren, baserriak esplotazio txikiak ziren. Gehienetan 4 eta 20 hektarea bitartean zituen, Bizkaiko erdialdean 10 hektarea izanik batez besteko zabalera. Normalean soroak eta ortuak 2 eta 5 hektarea hartzen zuten, eta mendiak gainontzekoa. Argi dago, baserriaren zabalera bere errentagarritasuna mugatzen zuela, bereziki mantendu zitezkeen abelburu kopurua horrekin zuzenki erlazionaturik zegoelako. Vicente Laffitte-k zioen baserri handietan 4 eta 6 behi bitartean eta idi pare bat gobernatu zitezkeela. Hala ere, ez zen hori egoera arruntena, askotan behi gutxiago izaten zirelako eta, askotan, horietatik batzuk garraio-lanak eta beste lan batzuk egiteko erabiltzea behartuta zegoen baserriarra. Horrek pisuan eta esne-produkzioan eragin desegokia zuen eta, logikoki, lortu zitezkeen diru sarrerak gutxitu egiten zituen.

Esplotazioen tamainak, beraz, eragin handia zuen baserriko ekonomian. Horregatik, irabaziak gehituzeko bide bakarra ustiapena areagotzea zen, oso zaila eta garestia zelako lur gehiago erostea. Baina lanen areagotze horrek

inbertsioak egitera behar zen zituen baserritarrak. Landu gabeko lurra landa bihurtu behar zituen eta horretarako haziak, ongarriak, tresna berriak, etab. erosi behar zituen eta, nola ez, lan handia egin ere lehenengo emaitzak jaso aurretik. Baina baserriak norenak ziren kontuan hartzen badugu, ezinezkoa zen inbertsio horiek egitea. Egoerarik arruntena zen nekazari gehienak bizi ziren baserrien jabeak ez izatea. Bizkaian, 1860 eta XX. mendeko hirugarren hamarkada bitartean maizterren batez besteko portzentaia % 64tik % 62ra pasatu zen, beti ere maila oso altuan mantenduz. Gernika eskualdeko zenbait herritan datu horiek artean altuagoak ziren, hurrengo koadroan ikusten den moduan.

Jabe eta maizterren arteko portzentajea Gernika-Lumo inguruan (1892/4 y 1928)

	Arratzu		Kortezubi		Gernika-Lumo		Nabarniz	
	jabe	maiz.	jabe	maiz.	jabe	maiz.	jabe	maiz.
1892/4	28'3	71'7	32'2	67'8	29'3	70'7	41'8	58'2
1928	31'5	68'5	27'7	72'2	29'8	70'2	47'4	52'5

OHARRA: maiz. = maizterrak

Datu hauek argi erakusten dute, gutxi gora behera, baserritarren bilerenak maizterrak zirela. Beraz, baserria ez zen askotan aipatutako jabe txikien mundua, ezta gutxiago ere, harmonikoa eta arazo gabekoa. Baserria errentan hartuta izateak zenbait ondorio zituen. Alokairu hitzarmen ezaugarriak nekazariak aipatutako inbertsioak eta lanak ez egitea zekarren. Errenta diruz ordaindu behar zen eta orokorrean baserriaren balioaren % 2 edo 3 suposatzen zuten, batzuetan % 5era heltzen bazen ere. Kontuan izanik baserrien batez besteko prezioa normalean zortzi edo hamar mila pezeta bitartean zegoela, urteko errenta 250 edo 400 pezeta inguruan egoten zen. Baserri batentzat, diru kopuru esanguratsua. Gainera, alokairu hitzarmenak ez ziren denbora luzeak. Oro har, eta historian atzerago eginda, bederatzi urtekoak ziren, baina XIX. mendetik aurrera iraupena txikitzen hasi zen, eta bost edo sei urte bitartekoak ziren. Epe horretan jabeak maizterrak bota zezaketen errenta ordaindu ezean, edo, nahi izanez gero, azken urtea heltzen zean. Gainera, maizterrek ez zuten baserria hobetzeko eginiko inbertsioak eta lanak errekeratuzko modurik, baserriatik alde egitean. Beraz, nekazariak ez zuten inolako bermerik baserrian jarraituko zuenentzat hitzarmena bukatzea eta horrek ez zuen laguntzen esplotazioaren ustiapena areagotzeko behar ziren inbertsioak egiteko. Honek guztiak, azkenean, baserriak ez eraldatzeko ekarri zuen eta testuinguru berriak –non hiri handietako biztanleriak elikagai eskari handia sortzen zuen– sortzen zituen aukerak ez aprobetxatzea izan zuen ondorio.

Jabetzaren estruktura honek beharrezko inbertsioak egiten laguntzen ez bazuen, nekazariak baserriak ez eraldatzeko beste arrazoi bat egon zitekeen

Gernika-Lumo moduko herri industrial batean. Bertan baserriko errentak osatuzeko, kanpotik beste errentak ere batuzko aukera zegoen. Hori ikusirik, askok ez zuten izango interes handiegirik gauzak gehiegi aldatzeko, ez baitzuten bereak ez ziren esplotazioetan egindako lana berreskuratzeko aukerarik. Datu gehiegi egon ez arren, herri inguruko baserrietan ematen zen egoera oso anitzak ziren. Baserriko gizona fabrika lan egin zezakeen eta esplotazioa ematearen eskutik utzi. Baina baserriaren jabea nekazaria izanik ere, bertan bizitzeko ziren semeek edo suhiek fabrika lan egin zezaketen, eta alabak nekazari bezala. Osagarritasun hori lortzeko, oso baliogarriak suertatzen ziren noizbehinkako edo urtaroen arabera lanak ere. Aldundiak bideak konpontzen zituztenean, jende asko behar izaten zuen bidezain lan egiteko. Basoetan egurren ebakitzeko edo hirigunean egiten ziren etxe berrietan ere eskulan ugari erabiltzen zen. Gernika-Lumotik Murueta bitarteko kanalak ere langile asko behar zituen. Euriak lan egitea eragozten zuenez, udan baino ez zuten lan egiten. Beraz, bazeuden aukerak dirua lortzeko eta baserriko errentak osatzeko. Horrek, bestalde, zera adierazten digu, baserriarrek ez zegoela bere munduan murgildurik beti. Bizi zuten testuinguruaz zertan zuten eta bera eta bere familia mantentzeko errazagoa eta egokiagoa zen aukera hartzen zuten. Baserria aldatzeko zuten eragozpenak kontuan izanik, errentak osatzeko aukera ona zen.

Egin dugun deskribapenaren arabera, baserriaren egoera nahiko latza zela ikusi dugu. Baina, arazoak arazo, baserriarrek ez zuten egin zioten bizi-modu horri eta bizitzeko beste lortzen zuten, behintzat. Aipatu dugun bezala, baserria orokorrean ekonomikoki oso erakargarria izan ez arren, bazeuden beste batzuk aukera hobekak zituztenak. Esplotazioaren jabetza eta hirietako merkatuetako hurbiltasuna batzuen zirenean, baserriek aipatu dugun baino errentagarritasun handiagoa izaten zuten. Kasu horietan, baserriarrek balio handiko produktuen ustiaketa (ortuariak, arrautzak, frutak, esnea...) espezializatu zitezkeen, jakin bazekielako kaleko biztanleek elikagai eskaera handia zutela. Baserrietan bakoitzaren burua hornitzeaz gain, merkaturatzeko helburuarekin produzitzen ziren zenaren adibide argiena Gernika-Lumoko astelehenetako azoka eta Urriko Azken Astelehena dira, gaur egungo iraupenaren adibide. Astero baserriarrek bere produktuak saltzeko aukera zuten eta, nola ez, behar zutena erosteko ere. Era honetako azoken iraupenak argi adierazten du nekazariak kalean saltzeko asmoz ere produzitzen zutela, eta ez soilik familia mantentzeko.

Merkaturatzeko aukera horiek, denboraren poderioz, baserriko barne eraketan eragina izan zuten. Aipatutako ezaugarriek eragozpen handiak izan arren, apurka-apurka lursail gehiago landa bihurtu ziren eta, horrek, abere gehiago zaintzeko aukera eman zuen. XX. mendearen lehenengo bi hamarkadetan Bizkaiko abeltzaintza behi-buruen kopurua maila berean mantendu zen, baina 1920 urtetik aurrera, hazkunde-garaian sartu zen, motela bazen ere. Joera aldaketa horrek apurka-apurka baserrietan landen hazkundera eman zela adierazten digu. Okela zein esnea balio eta eskaera handiko produktuak ziren hiri eta herrietako bizilagunek elikatuzeko, eta, azkenean, baserriarrek aukera horiek aprobetxatzen saiatu ziren, neurri apalean izan bazen ere. Baina baserriaren betiko ezaugarriak aldatu gabe.

Esualdeko baserrietan ekoizpenaren hazkundera aprobetxatzeko Gernika-Lumon 1913an esnea industrialki ustiatzeko *Sociedad Anónima Los Pirineos (fábrica de leche condensada y leche seca)* sortu zen. Espainiako mota horretako enpresetan lehenen artean egon zen. Bere izenak argi adierazten duen bezala, helburua esnekiak ekoiztea zen, esne kondentsatua, esne hautsa, gazta, gurina, gozokiak eta kakao hautsa gosarirako, alegia. Oso industria modernoa zen, garaiko aurrerapen tekniko eta zientifiko guztiak erabilgarri zituen. Sorreran hiru mila litro esne erabiltzen zituen egunero, eta geroago lau mila baino gehiagora heldu ziren. Horretarako, egunero baserrietara joaten zen kamioi-zisterna zuen. Baina enpresaren ibilbidea ziurtatzeko eta produkzioaren hazkundera lortzeko baserrietan esne ekoizpena handitu behar izan zen. Helburu horrekin *Los Pirineos*-ek baserritarrei landa berriak egiten laguntzen zien, eta zein zen belar-klase egokiena bere lurretan probatu ere. Baserritarrek maila batera arteko aldaketak emateko prest zeuden, baina inolaz ez enpresa horrek nahi zuen bestekoak. Aipatu ditugun eragozpenak oso handiak ziren baserria nekazal "industria" bihurtzeko. Industrialariek nahi zuten produkzioaren areagotzea, beraz, ez zen eman.

Los Pirineos fabrikaren ibilbidea da adibiderik onena garaiko Bizkaiko nekazaritzaren bilakaeraren mugak ikusteko: hirietan elikagai eskaera handiko merkatua egon arren, ez zituen aprobetxatu aukera horiek baserria esplotazio ekonomiko errentagarriagoan bihurtzeko. Horrela, nekazaritza Bizkaiko sektore ekonomikoen artean bigarren mailan geratu zen. Horren froga garbia Gernika-Lumoko biztanleriaren osaketan nekazarien garrantzia da. Hurrengo koadroan hautesle eroldan -herriko biztanle eroldak bonbardaketan galdu ziren- agertzen dira 25 urte baino gehiagoko nekazari kopurua, eta suposatzen zuten portzentajea jarri dira. Argi ikusten da nekazarien kopurua zertxobait igo arren, herriak izan zuten biztanle-hazkundera kontuan izanik, bere garrantzia gutxitzen joan zela, segidan aztertuko ditugun bi sektoreen alde.

Gernika-Lumoko nekazari kopurua eta portzentajea (1890-1935)

Urtea	1890	1898	1905	1915	1925	1935
Zbk.	199	199	211	210	189	235
%	33'39	30'43	30'14	25'80	17'98	17'93

1.2. ARTISAUTZA, MERKATARITZA ETA ZERBITZUAK

Nekazal sektorea ezin da aztertu begiak baserrietan soilik jarrita. Aipatu dugunez, nekazariak eta kaleko biztanleek lotura handia zuten. Baserritarrek bere produktuak herrietan saltzen zituzten eta kalekoek, aldiz, beste modu batean lortu ezin zezaketen artikuluak eta zerbitzuak eskaintzen zizkieten. Baserria eta kalea, beraz, erabat uztarturik zeuden. Gernika-Lumoko ekonomia horren adibide argia da. Historikoki, eta XIX. mendean bereziki, artisautza

eta merkataritza herriko aktibitate ekonomiko garrantzitsuenak ziren. Oihalsaltzaile, «quincalla» (metalezko tresna txiki, artazi- eta titare-saltzaileak, esaterako), galdaragintza, burdingintza, arotzak, ebanistak, jostunak, ardo-saltzaile, larrukigintza (animalientzako osagarriak edo ardoentzako zahagiak saltzeko, adibidez) eta era honetako artisauak ziren Gernika-Lumo moduko herri txikian presente zeuden aktibitateak. Beraz, baserritarrek bere kabuz lortu ezin zituzten beharrezko produktuak ekoiztera eta saltzera dedikatzen ziren.



Gernika-Lumo 1890 (Gernikazarra bilduma)

Nekazaritzarekin zuen lotura zuzenak artisau horien aukera ekonomikoan eragina zuen. Baserritarrek, orokorrean, gastatzen zuten diru askorik ez zuten zerekin errenta ordaintzeko erabili behar zuten eta, erosketa handiegirik ere ez zuten erabiltzen. Horren ondorioz, artisau eta merkataritza garrantzitsuenak ekonomikoan mugatuta zegoen. Maila batetik gorako irabaziak lortzeko zaila baino zailago zuten. Horrek, Gernika-Lumo bezalako herri txiki batean artisau kopurua handitzea galarazten zuen. Baina XIX. mendeko ezaugarriak mantentzen zuten hirugarren sektoreak hurrengo mendearen hasieran aldaketa prozesu sakona izan zuen. Gernika-Lumon industria zabalduta eta herria sozio-ekonomikoki dinamikoagoa izan zenean, merkatal eta zerbitzu sektoreak eraldatzen joan ziren. Artisau ekoizle izatetik, beste leku batean ekoiztutako produktuak saltzeko bihurtu zen Gernika-Lumoko merkatal sektorea.

Industria iraultza zaren ondorioz, artisauek egiten zituzten produktu ugari lantegietan ekoizten hasi ziren. Modu horretan produktuak kopurua handitu eta masifikatu, alegia eregin zen eta, garrantzitsuago dena, kate produktioak prezioen jaitiera ekarri zuen. Horretaz gain, komunikazio sare egoki eta merkeak, artikuluen horiek prezio oso txikian geografikoki mugitzea ahalbidetu

zuen. Horren ondorioz, eskuz eginiko zenbait produktu industrialki eginikoe-kin lehiat zeko aukerarik ez zuten, eta horrek artisau askoren desagertzea ekarri zuen. Horren ordez, gaur egun arruntak diren denden aitzindariak jarri ziren. Eraldaketa horren noranzkoa adibide batekin hobeto ulertuko dugu, zapatagintzarena, kasu. Lehenago zapatak eta abarketak eskuz egiten ziren, baina denborarekin fabriketan ekoizten hasi ziren eta merkataritza berriek saldu eta konpondu baino ez zituzten egiten. Abarketen kasuan, adibidez, Gernika-Lumo izan zen aldaketa hori eman zen gunetako bat. XX. mendeko bigarren hamarkadan abarketa fabrika erabat mekanizatua –zorua eta oihala josi, normalean, emakumeak eskuz egiten zutena– sortu zen herrian. Beraz, momentu horretatik aurrera, aldeztu aurretik ekoiztutako abarketak saltzen ziren Gernika-Lumoko dendetan. Gauza bera esan behar da jantzi, metalezko lanabes eta sukaldeko tresna, kristalezko produktu eta abarrei buruz.

Eraldakuntza horren ondorioak hirugarren sektorearen eraketan sumatzen dira. Hurrengo koadroan hauteskunde erroldan agertzen diren datuen arabera, artisautza zati eta merkataritza zati lan egiten zutenen kopurua agertzen da. Artisautza zati dagozkion datu orokorretan ikusten da denboraren joanean kopurua gutxiago egin zela. Gainera, langile multzo horren kopurua mantendu zuten aktibitateak eraikitzen ziren eta arotzaintza izan ziren –hiribilduaren hazkunderarekin loturiko lanak– eta ez historikoki artisautzarekin loturik egon zitezkeen aktibitate klasikoak. Aipatutako eraldaketak Gernika-Lumoko langile-egitura nabaritu ziren, eta haien garrantzia gutxiago egin zen. XIX. mendean azkenean langileen % 30 artisauak baziren, 1935 urterako % 12,5era jaitsi ziren. Datu horiek, gainera, are eta gehiago gutxiago beharko genituzke. Askotan erroldetan pertsonen lana definitzeko erabiltzen den terminologia ez da aldatzen, baina jardueraren izaera bai. Adibidez, XX. mendean janariaren sektorean zihardutenek (okinak, gozogileak...) ez zituzten industriari ekoiztutako produktuak beren lokaletan saltzen?

Gernika-Lumoko gizonezko artisau eta merkataritza kopurua (1890-1935)

		1890	1898	1905	1915	1925	1935
Artisautza	Janarigintza	24	28	31	25	22	29
	Metalgintza	8	7	11	10	12	6
	Oihalgintza	23	21	19	17	16	10
	Zapatagintza	40	41	36	33	26	12
	Larrugintza	1	2	1	1	5	3
	Eraikuntza eta margolariak	40	43	44	48	49	40
	Egurra	34	42	36	56	49	59
	Beste batzuk	10	9	9	8	8	5
	GUZTIRA	180	193	187	198	187	164
Merkataritza		32	36	40	66	70	90

Artisaut zaren garrantzia galtzen eta ezaugarriak eraldatzen joan zen heinean, merkataritzak artisaut zaren kontrako bilakaera bizi izan zuen. Orokorrean, kopuru oso txikia izan zuen arren, urteik urtera handitzen joan zen. Sektore hori indartzeaz aparte, beste prozesu bat ere bizi izan zuen merkataritzak. Ekoizpen industrialak ez zuten soilik artisaut zaren amaiera eta “dendarien” indartzea ekarri. Saltzen ziren produktu mota areagotu egin zen eta zenbait kasutan kalitate desberdinekoak saltzeko aukera ere bazegoen. Aipatutako ekoizpen industrialak eta garraioen hobekuntzak lehenago lekutara heltzen ez ziren produktuen garraio merkea ahalbidetzen zuten. Honek guztiak azken prezioan ondorio positiboa izan zuen eta eman zen jaitsierak salmentak handitu zituen, askok erositzak zelako lehen ezinezkoa zitzaizkien produktuak.

Horren adibide argia «ultramarino» izeneko janari-dendak dira. Tradizionalki espainiar kolonietako produktuak saltzen ziren bertan, baina denborarekin kalitate handiagoko eta era askotako produktuak ere saltzen hasi ziren (likoreak, xanpainak, kontserbak, txarkuteria-produktu berriak, etab.). Betiko oihaletan ere prozesu bera eman zen: oihaletan metroka saltzeaz aparte, industrialki eginiko mota desberdineko jantziak ere eskaintzen zizkieten bezeroei. Gainera, produktu berriak saltzeko denda motak ere gehitu egin ziren: argazki-dendak, bitxi-dendak, emakumeentzako kapela-saltzaile dendak, ehiza-produktuen eta tresna elektrikoaren dendak, jostailu dendak, etab. jarri ziren lehenengoz Gernika-Lumon. Azkenik, dendak barne-eraketan ere aldatuak eman ziren egoera berriari egokituz eta salmentak ahal ziren beste handitzeko. Gaur egun, jendearentzako arruntak diren produktuen aurkezpen egokia, erakusleihoak eta eskaintzen aurrekaria ikusten da XX. mendean hasieran.

Saltzeko forma berrien eta merkatal sektorearen modernizazioaren adibide garbiena, 1929 urtean aurkituko dugu. Urte horretan, Gernika-Lumoko zenbait merkatarik –hamabost inguruk parte hartzen zuten marketing mota honetan: haragitegiak, farmaziak...– «billetes rayo y relámpago» iragarkia jarri zuten prentsan. Promozio horrekin zenbait dendatara bezero gehiago erakarri nahi zuten eta, horretarako, segidan aipatuko dugun neurria ezarri zuten. Saltze teknika hauek, gaur egun, horren arruntak diren estrategien aurrekariak dira eta argi adierazten dute Gernika-Lumoko merkatal sektoreak oso goiz barneratu zituela ezaugarri modernoak.

[...] todas las familias deben dar preferencia en sus compras a los establecimientos que se citan a continuación, ya que además de obtener la máxima garantía en calidad y precio recibirán el regalo de un billete “relámpago” por cada cincuenta céntimos y uno de “rayo” por cada cinco pesetas, consiguiendo con ello un descuento fijo e indiscutible del 2 por ciento del importe total de sus compras a más de numerosos premios en combinación con la Lotería Nacional de cada día primero de mes (*El Noticiero Bilbaíno*, 1-IX-1929).

Gaur egun, kontsumo-gizartea bezala ezagutzen denaren oinarriak garai horretan jartzea izan zen eraldaketa horien guztien ondorioa. Argi dago merkatal sektorean eman ziren eraldaketak eta hazkundeak salmentak gehitu izanaren adierazle direla. Zailago da, ordea, salmenten handitze horren arrazoia zein den azaltzea. Hala ere, atal honetan aipatutako datuen arabera, argi

dago prozesu desberdin biko eman zirela. Alde batetik, biztanleek diru gehiago zuten eskura erostekak egiteko eta, bestetik, bakoitzaren ekonomiarik egozkitzen zitzaizkion produktuen eskaintza zabalagoa zen.

Gernika-Lumoko hirugarren sektore ekonomikoari buruzko deskribapena ezin da bukatu herriko biztanlearen horrenbesteko garrantziaz zuten lantalde bati buruz zenbait azalpen eman gabe, horien, lanbide liberalak aipatu gabe. Adierazi dugun bezala, eskualdeak herrian bilatzen zuten beste modu batean eskuratu ezin zutena. Beharrian horien barnean langile profesionalen lana ere egoten zen askotan. Hezkuntza eta osasun esparruko lanbideak edo bizibide teknikoak (arkitektoa, ingeniaria...) presente zeuden herrian eskaera hori asetzeko. Hurrengo koadroan agertzen den bezala, jarduerak horiek gero eta garrantzitsuagoak ziren. Hala ere, herriko lanbide liberal talde garrantzitsuena justizia munduarekin erlazionaturik zegoena zen. Eskualdeko buru izateaz gain, Gernika bere izena zeraman auzitegi barrutiko burua zen. Horregatik, esparru judizialeko jarduerak garrantzitsuak handia zuten. Abokatuek, prokuradoreek, eskribauak edo notarioek talde handia eta eraginorra osatzen zuten.

Gernika-Lumoko lanbide liberalak (gizonak eta emakumeak, 1890-1935)

	1890	1898	1905	1915	1925		1935	
	giz.	giz.	giz.	giz.	giz.	ema.	giz.	ema.
Abade, elizgizon, mojak	17	22	22	29	38	25	21	35
Eskribauak, notarioak...	8	6	7	8	4		6	
Mediku, botikaria, dentista	5	9	9	12	16		21	
Albaitaria	3	1	1	2	3		2	
Abokatua, prokuradorea...	19	19	17	20	25		26	
Maisu-maistra, irakasle...	4	4	3	2	5	4	23	21
Arkitektoa, ingeniaria, teknikoak	1	2	1	8	6		6	
Itsasgizon, kapitain...	16	30	45	65	92		108	
Militarrak	1	1	1	1	4		4	
Beste batzuk (musikariak...)			8	3	4		5	
GUZTIRA	74	94	114	150	197	29	222	56


OHARRA: giz. = gizonak; ema. = emakumeak.

Koadro horretan lan-talde berezi biek ere jarri dira, bizibide liberalekin lotura zuzena ez izan arren. Hala ere, komenigarria izan da Gernika-Lumon abade, elizgizon eta mojen presentzia handia aurkeztea. “Espirituko zerbitzuak” lantzen zituztenez, atal honetan aipamena egitea komenigarria zela pentsatu dugu. Kontuan izanik, gainera, euskaldunen artean erlijio katolikoak eta Elizak zuten garrantzia, aztertzen ari garen herrian bere presentzia nabarmentzea beharrezkoa da. Biztanleriaren presentziamoldean eta jarrera politikoetan Elizak izan duen eragina kontuan hartzen badugu, batez ere. Datuek erakusten duten moduan, gizatalde zabala zen Gernika-Lumo bezalako herri txiki baterako.

Itsasgizonen taldeak ere aipamen berezia merezi du. Kostatik hurbil baina Bizkaiko “barrualdean” zegoen herria izanik, itsasoa lan egiten zuten pertsonen kopurua nabarmenki igo zen aztertzen ari garen garaian. Euskal merkataritza zaren ontzi sektore zabalak langile asko behar zituen itsasontzi zentzako eta, sektore honek, Bizkaiko nekazal munduari begira jarri zituen begiak. Enpresa horietako jabeentzat euskaldunak langile egokiak ziren. Bere katolikotasuna eta kontserbadorismo tradizionala zela eta, lantalde egokiagoa eta “formalagoa” bihurtzen zuen. Modu horretan, gainera, ezkerreko indarrek langile horien artean izan zezaketen indarra murrizteko modua zen. Euskalduna, teoriaz, ez baitzen indar horien aldekoa. Gernika-Lumo ez soilik, inguruko herrietatik ere, itsasgizonen kopuru zabala zebilen mundu guztiko itsasoetatik. Hazkunde horretan asko lagunduko zuten 1896 urtean “agustindarrek” zabaldutako eskolek; eskola hauetan nautika ere irakasten zen. Aipatu dugun bezala, nekazal munduko biztanle askok jaioterritik kanpo bilatu behar izan zuten lanbide berria. Horretan, ontzizidisektorea aukera egokia zen askorentzat. Lana ziurtatua zegoen, soldadak ere nekazal mundukoak baino askoz handiagoak ziren eta, askotan, norberaren herrian bizitzeko aukera ere ematen zion. Beraz, normala zen marinel eta kapitana asko egotea Bizkaiko nekazal arloan.

1.3. INDUSTRIA

Bizkaian industrializazioaz hitz egiten denean, orokorrean, Bilbo inguruko enpresa handiak etortzen zaizkigu burura. Izan ere, beraieburuz egindira azterketa historiko zabalena eta ugariena. XIX. mendearen azken herenean, Enkarterri eta Bilbo inguruko meategiekin bat-bateko garapena izan zuten Britainia Handitik zetorren burdina eskaera asetzen hasi zirenean. Geroago, Bizkaian aberastutako zenbait meatzaririk Ibaizabaleko ezker aldean siderurgia handi eta modernoak –geroago, Bizkaiko Labe Garaiak osotuko zutenak– zabaldu zituzten. Baina hiriburu ingurutik kanpo, probintziako zenbait herrian bazegoen fabrikatxiki eta ertainez osaturiko industria-sektore aipagarria ere, Gernika-Lumon besteak beste. Kasu horietan –gehienetan behintzat– industrializazio prozesua beranduago eman zen eta beste ezaugarri batzuk izan zituen. Herri horietan eman ziren aldaketak Bilbo ingurukoak bezain sakonak eta bat-batekoak izan ez arren, aipagarriak izan ziren eta Gernika-Lumo moduko herrien ezaugarri sozioekonomikoak betiko eraldatu zituen. Eraldaketa hauek baina, ez zuten aurreko ezaugarrien desagertapena ekarri, gizarte berri eta tradizionalaren arteko bat-egite berezia eman baitzen.



Geltokiko plaza XX. mendeko 30. hamarkadan (Vizcaya, 26. zbk., 1966)

XIX. mendeko laurogeiko hamarkadaren azkenean, 1888 urtean, *Sociedad Anónima Compañía de Ferrocarril de Amorebieta a Guernica-Luno* trenbidea martxan jarri zen. Zornotzan, Donostia eta Bilbo arteko linearekin batzen zen, Urdaibaiko eskualdea era egokian komunikatuz. Lehenengo momentutik argi geratu zen trenbidea Mundakaraino eta Bermeoraino heldu behar zela garapen ekonomikoa ziurtatzeko. Baina kostaldera heldu zeko behar ziren obrak oso garestiak zirenez, Sukarrietan bukatu zen luzapena 1893 urtean. Tranbia bidez lotu ziren puntu horretatik kostaldeko herri biak. 1955 urtean bete zen, azkenean, konpainiaren sortzaileek zuten helburua.

Askotan aipatu izan da trena eta industrializazioaren artean egon zen erlazioa, eta bataren eta bestearen presentzia sarritan loturik ikusi dugu. XIX. mendearen azkenaldian, Gernikaren kasuan ez zen horrela gertatu. Trena egon arren, momentu hartan ez zen garapen industrialik eman eskualdean. Gehienbat pertsonak eta zenbait produktu (ortuariak, egurra...) garraiatzen zituzten trenak. Horren arrazoia sozietatearen sortzaileen ezaugarriekin lotu behar da. Kasu gehienetan aurrezkientzako errentagarritasuna nahi zuten pertsonak osatzen zuten sozietatearen akziodunek. Mendeko amaierako trenbideak sortzen zituzten irabaziek testuinguru egokia sortzen zuten era horretako inbertsioetarako. Trena abian jarri zenez %6 baino gehiagoko dibidenduak espero zirela kontuan izanik, aukera onak sortzen zituzten aurreztutako diruarentzako. Horren ondorioz, herrian bizi ziren lehenengo akziodunak merkataria edo bizibide liberalekoak izan ziren. Pertsona horien helburua, beraz, ez zen eskualdean industria-inbertsioak egitea edo enpresa berrien garapena bultzatzea, dirua irabaztea baizik, bere ogibidea aldatu gabe.

Egoera hori, hala ere, XX. mendearen bigarren hamarkadaren hasieran bukatu zen. Bat-bat tamaina txiki eta ertaineko sozietateak hasi ziren kokatzen herrian. Gernika-Lumon eman zen industrializazioa, probintziako beste herri txikietan, eta baita Gipuzkoan ere, "bigarren industrializazioa" izenez



Talleres de Guernica-ko lehenengo lantegia eta atzerantz zuzan Esperanza y Unceta-ren arma lantegia (Argazki bilduma partikularra)

ezagutzen den prozesuarekin lotu behar da. Bilbo inguruko industria handien ostean, herrietan tamaina txiki eta ertaineko lantegiak sortu ziren. Langile kopuru gutxiago behar izatean, sortu zuen aldaketa soziala ez zen izan bat-batekoa eta oso sakona. Bestalde, industria horiek lehengaien bigarren eraldaketara dedikatzen ziren, gehienak sektore metalurgikoan, baina beste askok kontsumorako produktuak ekoizten ziharduten. Industria horien ekoizpena txikiagoa izanik, garraio aldetik ez zuten beharrian berezirik edo azpiegitura handirik produktuak kaleratzeko. Euskal Herrian zeuden tren lineekin eta XX. mendetik aurrera zabalkunde handia izan zuten kamioekin nahikoa zuten. Horrek askatasun handiago ematen zien enpresariei lantegiaren kokapena erabakit zeko orduan. Horrela, Gernika-Lumo bezalako herri txikia aukera zezaketen inbertsioak egiteko. Bertan, lur asko eta merkea lortzen zuten fabrikak eraikit zeko eta, gainera, Bizkaiko hiriburuan zegoen “arazo sozialetik” kanpo kokatzen ziren. Gernika-Lumon, behintzat, ez zegoen industrializazioak erakarri zituen sindikatu, sozialismoa eta horrelako “eragozpenik” –enpresarien ustetan, noski.

Egoera aldatzekotan zegoen baina, eta horren lehen adibidea 1909 urtekoa da. Gabriel eta Dámaso Toñá Mutio-k, Isidoro León trenaren zuzendariaren laguntzarekin, egurra ebakit zeko enpresa bat sortu zuten tren-geltokiaren parean. Frantziar makina modernoa erosi zuten horretarako. Enpresa hori geroko *Toñá Hermanos* eta gaurko *Ebaki*-ren aitaz zindaria izan zen. Hala ere, 1913 urteak betiko aldatu zituen Gernika-Lumoko ezaugarri ekonomikoak.

Nekazar sektorea aztertzean aipatu dugu urte horretan *Los Pirineos* esneki-lantegia zabaldu zela herrian. Baina enpresa aitaz zindari horretaz aparte, Gernika-Lumoko industria sektorearen ezaugarri nagusia metalurgiara bideratu zen, eta sektore zabal horren barnean armak ekoiztera, pistolak bereziki. Izan ere –1909an sortutako tailer txikia kontuan izan gabe– 1913 urtean Eibarko *Sociedad Comercial Colectiva Pedro Unceta y Juan Esperanza*

pistola ekoizlea herrira ekartzean, Gernika-Lumon industrializazio prozesua hasi zela kontsideratuz dabilena. Elkarrekin Eibarren sortuz en 1908 urtean. Gipuzkoako herri hartan, eragozpen handiak zituzten jabeek ezarri nahi zituzten eragozpen sistemak martxan jartzeko. Alde batetik, indar handia zuen langile mugimenduak ez zituen aldaketa horiek onartzen. Ekoizpen mekanizatua ezartzean, artisau kutxu handiko langileek ekoizpenean zuten kontrola gutxitu egiten zen. Hori dela eta, eragozpen handiak jarri zituzten Unceta eta Esperanza-ren berrikuntzak onartzeko. Horren ondorioz, enpresariak Gernika-Lumo aukera ona zela uste zuten langile mugimenduak sortzen zizkion arazoekin bukatzeko. Bestetik, enpresariak arazo handiak zituzten eginiko aurrerapen teknikoak eta asmakizunak sekretuan mantentzeko. Ez zen batere erraza Eibar moduko herri batean beste enpresariak ez ezagutzea eta aplikatzea lantegietan beraien berrikuntzak. Bestalde, Gernika-Lumon lantegi berria eraikitzeko lur ugari eta merkea zuten eta, gainera, udal agintarien diru-laguntza jaso zuten herrira etortzearen. Beraz, arrazoi ugari zeuden 1913 urtean Astra izenez ezagunagoa izan den lantegia, izen bereko pistola famatuaren ekoizlea, Gernika-Lumon bere ateak zabaltzeko. Arma laburrez aparte, metrailadore eta kanoientzako jaurtigaiak ere ekoizten zituzten, pistolak izanik, hala ere, produktu ezagunena eta erabiliena.

Urte bat zuetara, enpresari bi horien arteko erlazioak txarra egin omen zuen: 1925 urtean sozietatea disolbatu egin zuten. Rufino Unceta Astra izenez ezagutzen zen lantegiarekin geratu zen, eta Juan Esperanzak, bere aldetik, beste ekimen garrantzitsu batzuk bideratu zituen herrian. Urte horretan *Sociedad Anónima de Construcciones Mecánicas* sortu zuen, 1926an *Sociedad Anónima Esperanza y Cía.* bilakatu zena. Bertan, Vicente Valero militar espai-



Asilo Calzada kalea 30. hamarkadan (Vizcaya, 26. zbk., 1966)

niarren arma asmakizunak –aski ezaguna egin zen Valero morteroa bereziki-ekoizten hasi ziren. Morteroaz aparte, kanoiak eta granadak ere ekoizten zituzten. Azkenean, 30eko hamarkadan Markinara eraman zuen lantegia Esperanzak. Gaur egun ere mart xan dago lantegi hau.

Astra lantegiaren inguruan eman ziren bilakaerak aztertu ondoren, Gernika-Lumoko industrializazioaren hastapenetara bueltatuko gara berriro. *Sociedad Comercial Colectiva Pedro Unceta y Juan Esperanzaren* bilakaerarekin lotura handia zuten herrian sortu ziren hurrengo arma lantegiek. Geroago aztertuko dugun greban kaleratuak izan ziren langile eibartarrek, Gernika-Lumoko zenbait merkatariren diru-lagunt zarekin, *Sociedad Anónima Alkartasuna* sortu zuten 1914 urtean. Sozietate anonimoaren forma juridikoa hartu arren, izatez kooperatiba zen, sortu zuten zort zi langilek jabeak zirelako. Enpresa honek 25 pistola automatiko ekoizten zituen egunean, denak enpresa alemaniar batek erosten zituenak. Urte berean hasi zen Lehen Mundu Gerrak enpresan honen –beste arma-lantegi guztiek bezala– ekoiz-



Arbola zaharra beirate batekin babestua (J.A. Arana Martija bilduma)

pena eta irabaziak gehitu zela ahalbideratu zuen. Horrela, garai hartan oso famatua egin zen diseinu propioko *Alkar* pistola ekoizten hasi ziren, halaber. Baina guda amaitu zenean, enpresa hau –besteak bezala– krisiak jota zuten, batean armen eskaera gutxi xitu egin zelako. Hala ere, krisia gainditzen hasi zenean, 1922 urtean, jabeek lantegia zarratu behar izan zuten, sute batek instalazio guztiak suntsitu zituelako.

Aipatu ditugun enpresei krisiak eraso zizkenez, armak ekoiztu ez ezik, beste produktu batzuk ere egiten hasi ziren, egoera ekonomikoa zuzentzeko asmoz. Makinek bestelako pieza ere egin zituzketen, eta, horrela, doitasun-makinak –pisu-balantzak, erremintak, etab.– eta pieza bereziak egiten hasi ziren. Segidan aipatuko dugun enpresaren kasua kontrako izan zen: makinak eta pieza egiteak, armen eskaera handitu zenean, ekoizpen horretara ere ekin zion. Hori izan zen gaur egunera arte heldu den *Sociedad Anónima Talleres de Guernica* enpresaren kasua. 1916 urtean sortua, bere lehenengo helburua Espainian ekoizten ez ziren eta, ondorioz, inportatu behar ziren makina eta pieza egitea zen. Sortu zuten kalitatezko produktuekin –tornu eta zulagailuentzako “plater unibertsalak”, kontserbak egiteko makinak, brokak, fresak, etab.– estatuko merkatua bereganatu nahi zuten, eta atzerriko inportazioek betetuz gero zuten lekuaz jabetu. Hala ere, akziodunen artean Juan Esperanza eta Rufino Unceta zirenez, armen sektorean sartzea ez da batere arraroa. 1924 urtetik aurrera, Espainiako militar-sektorearen hornitzaile garrantzitsuenetakoa bihurtu zen. Granadentzako ojbak, metrailadoreentzako tripodak, hegazkinentzako bonben eta gas-bonbentzako karkasak, granadak, etab. hasi ziren ekoizten. Dena den, ez zuten inoiz alde batera utzi bestelako produktuak.

Metalurgiarekin lotura zuten enpresen gainbegiratuarekin bukatu aurretik, Gernika-Lumoko industriaren beste ekoizpen esanguratsua aipatu behar da, gaur egunera arte heldu dena. Mahai-tresneria eta urregintza sektoreaz arigara. 1917 urtean *Sociedad Anónima Joyería y Platería de Guernica* sortu zen, gaurko *Dalia*. 1931 urtean, aipatutako enpresaren gerenteak *Orfebrería Ona*, *Sociedad Limitada*, eta 1934 urtean, eta Enrique Amurrio marrazkigile eta diseinatzailearekin batera, *Cubiertos y Orfebrería Amurrio*, *Sociedad Anónima* sortu zuten, gaur eguneko *Maltaren* aitaz zirenak. Gernika-Lumoko mahai-tresnek estatuko merkatuaren zatirik handiena kontrolatu izan zuten urte askotan, eta atzerriera ere esportazio ugari egin zituzten. Baina mahai-tresneriaz aparte, lantegi horietan ere urre, zilar eta beste metaletan eginiko bitxiak eta zilargintza produktua k –bandeja, plater, hautsontzi, kafeontzi, teontzi, etab.– ekoizten ziren, garai hartan eskaera handikoak zirenak, mundu guztiak erosteko aukera izan ez arren.

Aipatu diren enpresez gain, Gernika-Lumon beste era bateko negozioak jarri ziren martxan. Primo de Rivera eta Bigarren errepublikan beste tailer ugari sortu ziren eta askok metalurgia ez zen sektoreetan aritzen ziren (janari industrian, abarretagintza, aterki industrian, etabarretan). Hala ere, 1913 urtean finkatu ziren ezaugarriak ez ziren aldatu. Denek jarraitu zuten tamaina txiki eta ertaineko enpresak izaten eta, orokorrean, kontsumorako produktuak ekoizten zituzten.

Gernika-Lumon sortu ziren enpresei gainbegirada eman ostean, herriko industrializazio prozesuan parte hartu zuten langile taldearen ezaugarri nagusienak aztertuko dira. Aipatu dugunez, enpresak ez ziren Bilbo inguruan zeuden moduko lantegi handiak. Gernika-Lumon ez zen horrela korik eman. Enpresa bakoit zeko langile kopuruari buruzko datu askorik izan ez arren, eskuratu ditugunek argi erakusten dute ezaugarri hori. *Esperanza, Unceta y Cía.*-k atekak zabaldu bezain laster 110 langile zituen; hurrengo urtean, 150 gizonetako eta 20 emakume izatera heldu ziren. *Los Pirineos* lantegian 1913 urtean, gutxienez, 40 emakumek lan egiten zuten. 1920ko hamarkadaren hasieran *Joyería y Platería*-k ehun langile inguru zituen. *Talleres de Guernica*-n ere beste hainbeste, garai berean. Aipatutako adibideez gain, herrian beste tailer txikiagoak ere bazenuden, baina hauetan langile kopuru urriagoa zegoen. Orokorrean, esan behar dugu, beraz, Gernika-Lumoko giza-egituran ez zirela eman Bilbo inguruan eman ziren aldaketa sakonak. Gizarte tradizionalaren erabateko deuseztapena ez zen eman industriaren sortzearekin; irupenak eta berrikuntzak uztartu egin ziren aztertzen ari garen garaian.

Hala ere, aipatu ditugun datuei gehitzen badiegu garaiko hautesle-errol-dan argitaratutakoak eta hurrengo koadroan jarri direnak (jakinik 25 urte baino gehiagoko gizonetakoak bakarrik zeudela eroldan sartuak), argi dago langileriak gero eta garrantzitsu handiagoa hartu zuela herriko biztanleengan. Gizatalde honek hazkunde handia izan zuen XX. mendearen bigarren hamarkadatik aurrera, koadroan argi ikusten den bezala. Hogei urteren bueltan, zenbakia bost aldiz handitu zen, eta bostehun baino gehiago izatera heldu ziren. Aipagarria da metalurgiarekin lotura zuzena zuten langile adituek izan zuten hazkundea, ekoizpen-sektore horren hazkundearen adierazle. Baita langile ez-adituak edo jorنالariak eta peoiek izan zuten bilakaera bera ere.

Langile kopurua Gernika-Lumon (1890-1935)


Lan sektorea	1890	1898	1905	1915	1925	1935
Metalurgia		1	5	16	90	85
Arte grafikoa		1		2	2	3
Egurra					1	1
Argindarra				1	3	3
Trenbidea	4	13	15	14	8	13
Zerbitzuak	2	6	3	13	13	19
Enplegatu	10	21	24	44	94	103
Jornalari eta peoi	18	12	16	24	120	277
GUZTIRA	34	54	63	114	331	504

XIX. mendearen azkenalditik Guda Zibila bitarteko aldirian Gernika-Lumoko biztanleria 3.000 eta 5.000 bizilagunen artean egon zela kontuan izanik, industriako langileen kopurua aipagarria zen. Datu horiei gehitzen badiegu hautesle-eroldan agertzen ez direnak, hau da, emakume eta langile gazteen kasua, argi dago langile talde berriak herrian gero eta garrantzitsu handiagoa izan zuela.

Atal honetan aztertu dugun Gernika-Lumoko sektore ekonomikoen ezaugarri eta bilakaerari gainbegirada eman ondoren, herriko giza-egitura eman ziren aldaketak aurkeztuko ditugu, azkenik. Aurreko orrialdeetan aipatutakoa kontutan izanik, argi dago Gernika-Lumo aldaketa prozesuan sartuta zegoela. Azken gerra karlista eta Gerra Zibila hasi aurreko gizarte erabat desberdinak ziren. Eraldaketa prozesu hori ikusi ahal izateko, hurrengo grafikoa egin da. Bertan, hautesle-eroldan agertutako datuekin, gizonezko langile guztien artean lan-sektore desberdinetan aritzen ziren giza talde bakoitzaren garrantzia aurkeztu da.

Grafikoa aurreko aletan aztertu diren zenbait ideia argi ikusten dira. Aztertzen ari garen aldirian, nekazari eta artisauen garrantzia gutxitu egin zela oso nabaria da. Lehenengoak, 1890 urtean gizonezko langileen herena baino gehiago izatetik, Guda Zibila hasi aurretik % 18 izatera pasatu ziren. Bigarrenak, aldiz, % 30etik % 12ra pasatu ziren. Datu hauek argi adierazten dute nekazal munduak izan zuten testuinguru berriei egokitzeko ahalmen txikia eta artisautaren desagertzea ekoizpen industrialaren zabalkundearen aurrean. Beste lantalde batzuek bere garrantzia mantendu zuten. Zerbitzuan eta merkataritzan zihardutenak eta profesio liberalak % 10 eta 15 bitartean mantendu ziren; bigarren taldean, aldiz, hazkunde nabariagoa izan zen. Hala ere, Gernika-Lumoko biztanleen hazkunde kontuan izanik, portuzentaien mantentze hori lantalde horien kideen zenbakien gehitzearekin lotu behar da. Dena den, aldaketa garrantzitsuena industriako langileen gehitze nabarmena da. XIX. mendean sektore horrekin lotzen diren langileak oso urriak izatetik, 1935 urterako gizonezko langileen % 38 izatera igaro ziren.

Gizonezkoen lan-egitura Gernika-Lumon (1890-1935)



Beraz, XX. mendearen bigarren hamarkadatik aurrera, Gernika-Lumo aldaketa prozesuan murgildu zen, baina berrikuntzek ez zuten gizarte tradizionalaren ezaugarri guztien desagertzea ekarri. Aldaketa apur-apurka egin zen, baina etengabe.

2. Langile mugimendua





Gernika-Lumoko industrialdea 1934. urtean (Gernikazarra bilduma)

XIX. eta XX. mendeen arteko nekazal inguruko herriez hitz egiten denean, aldaketa gutxi inguruak direla aipatzen da askotan. Bilbo eta beste hiri handiekin konparatzen badira, argi dago eredu horiek bezalako eraldaketarik ez zela eman. Baina aurreko kapitulua bukatzean jarri den grafikoa kontuan hartzen bada, argi dago Guda Zibila aurretik Gernika-Lumoko gizarte-aldaketa bizi izan zela. Eta aldaketa horren ezaugarri esanguratsuenak hau izan ziren: industria-langileriaren sorrera XX. mendearen bigarren hamarkadatik aurrera. Fenomeno horri, normalean, beste prozesu bat ere gehitu behar zaio. Langileria edo proletarioa ugaltzen zen herrietan, gizarte modernoaren beste ezaugarri bat ere ematen zen: langile mugimenduaren hedapena. Sindikatuak, sozialismoa, katolizismo-soziala, grebak eta era horretako hitzak arruntago bihurtu ziren eraldaketa hori eman zen lekuetan. Baina zer gertatu zen Gernika-Lumon?

Langile mugimenduak herrian izan zituen ezaugarriak eta hedapenaren balorazio orokorra eginez gero, Gernika-Lumon ez zen eman sindikatuen garapen handia Bigarren Errepublikan hasi aurretik. Oso astiro sortu ziren erakunde horiek herrian eta ez zuten izan afiliazio eta jarraipen sozial handiegirik. Bestalde, lan-gatazkak eta grebak ez ziren izan oso arruntak, eta ez zuten beste leku batzuetako –Bilbo inguruko industrialdea, adibidez– indarra eta eragina izan. Beraz, Gernika-Lumoko langileriaren garrantziak ez zuen langile mugimenduaren indartzea ekarri, sarritan uste izaten den moduan, behintzat.

Ez da batere erraza langileriaren sorrerak eta langile mugimenduaren ahu-leziak teorikoki suposatzen duten kontraesana azaltzea. Hala ere, aipatutako egoera azaltzeko arrazoi desberdinak aurkitu daitezke, baina hemen bi baino ez dira aurkeztuko. Egoera hori, alde batetik, Gernika-Lumon –Euskal Herri gehienguan bezala– erlijio katolikoak zuen eraginarekin lotu behar da. Elizaren indar handiak eta biztanleengan oso erroturik zegoen erlijiotasunak ez zuten sortzen testuinguru egokia planteamendu sozialistek jarraitzen zuten sindikatuak eratuzeko herrian. Ezaguna da beraien etsitasuna marxismoarekin lotura izan zezakeen edozein erakunde edo ekintzarekin. Sektore horientzat horren kaltegarria zen “arrazionalismo modernista” jarraitzen zuten edozein planteamenduk, bereziki sozialismoak, gizarte katolikoaren sustraiak eta ezaugarriak arriskuan jartzen zituen, beraien aurka borrokatu behar zen. Diskurtso horren zabalkundeak eta katolikotasunak gizartean zuten indarrak ez zuten langile mugimenduaren hedapena erazten, planteamenduen sozialistak jarraituz gero, behintzat. Hala ere, denboraren poderioz eta arazoak arazo, langile mugimenduak bere lekua aurkitu zuen herrian, baina Bigarren Errepublikaren etorrerak sortu zuen testuinguruan. Garai horretarako gizartea modernoagoa zen eta joera berriak zabalduta zeuden. Eta tradizionalki erlijioak jendearen bizitzan zuten eragina gutxituz joan zen.

Beste alde batetik, askotan erabiltzen ez den arrazoi bati jaramon egingo diogu orain aipatutako egoera azaltzeko. Gernika-Lumo industrializatu arren ez zuten nekazaritza munduarekin zituena lotura guztiak eten. Hiri handietan gizarte mota bi horien arteko banaketa eman zen, baina aztertzen ari garen moduko herri txiki batean ez zen horrelakorik gertatu. Izan ere, errealitate biak uztarturik zeuden. Egoera horrek langileengan ezaugarri berezi batzuk sortzen zituen. Gernika-Lumoko industrializazioak ez zuten ekarri, Bilbo inguruan gertatu zen bezala, immigrazio handirik. Gai honetaz datu gehiegirik egon ez arren, langileak beste herri batzuetatik etorri zirela uste izatekoa da, baina ez oso zenbaki handian, eta, gehienetan, Euskal Herriko beste herri batzuetatik. Beraz, langile kopuru handiena Gernika-Lumoko eta ingurukoa zen. Hau da, nekazaritza mundutik industriara igarotakoa.

Pertsona horiek ez zuten baserriarekin lotura guztiak apurtu. Gernika-Lumokoak edo ingurukoak zirenak, baserrian bizitzen jarraitzen zuten. Gurasoek, aitagarriak edo emazteek baserriko lanak egin zituzketen, etxeko gizona lantegira joaten zen bitartean. Beste batzuek, inguruko herrietan zegoen baserria utzi eta herrira joan behar izan arren, bazuten familiarekin loturak izateko modurik, eta horretarako komunikazio sare zabala erabiltzen zuten. Herrian bizi zirenek ere ortu txikiak izateko aukera zuten; beste batzuek abereak ere. Ezaugarri honen baieztapena herriko 1912ko udal arautegian aurkitzen da, adibidez 497. artikuluan, non argi eta garbi aurkezten zen egoera hori, segidan transkribatuko den testuan aipatzen den bezala:


En las plantas bajas de las casas de vecindad, de labranza y de campo del casco y las afueras de la población, se permitirá los establecimientos de cuadras y establos, siempre que el número de cabezas de ganado y las condiciones del local se ajusten a lo determinado en este capítulo.



Alkartasuna pistola lantegia. 1922. urtea baino lehenagoko argazkia (Gernikazarra bilduma)



Esperanza y Unceta lantegiaren lehenengo harriaren jartzea 1913. urtean (J.A. Arana Martija bilduma)



Esperanza y Unceta pistola lantegiaren sail baten argazkia (Gernikazarra bilduma)

Zein da egoera horren ondorioa? Industriatik lortutako soldatak base-
rrian lort zen ziren errentekin eta, bereziki, elikagaien salmentekin osatzen
zirela. Ezaugarri horiek betetzen zituzten langileak “bitarikoak” edo “mistoa”
kontzeptuarekin definitzen dira, mundu biko horien artean zeudelako kokatuta.
Zer ondorio ekar dezakeen ezaugarri horren zabalerak? Uste izateko da
baserriko errentekin soldata osatzen zuten langileak egoera hobean egongo
zirela osagai hori ez zutenak baino. Horregatik, lan-baldintza txarragoak edo
soldata gutxiago izan arren, jarduera biak mantendu ahal izatea oso onura-
garria izango zen beraiantzat. Beraz, zergatik lan hori arriskuan jarri sindikatu
batera afiliatuta edo greba baten parte hartuta? Uste izatekoa da bitariko
langileak lanpostua luzaroagoan mantendu nahi izatea bere familiarentzat
onuragarriagoa zelako eta, ondorioz, “arazo” gutxiago ematea berarentzat
herri berean lan egitea hobea izateagatik. Industria langileak arazo gutxiago
zuen –teorikoki– lana aldatzeko edo herri batetik beste batera joateko lan-
baldintza eta soldata hobea lortzeko, aukera izanez gero. Hau da, bazuen
lanean “gorantz” egiteko aukerarik.

Orain arteko arrazoiek langile mugimenduaren bilakaera eragozten zuten,
baina ezin izan zuten galarazi bere etorrera: XX. mendearen bigarren hamar-
kadan, industriarekin batera, sindikatuak ere heldu ziren herrira. Arrakasta
handiegia izan ez arren, bere lehenengo pausuak ematen hasi ziren garai
hartan. Komentatu den langile mota bien arteko aldeak eragina izan zuen
Gernika-Lumoko langile mugimenduaren bilakaeran. Industria aspaldi gara-
tuta zegoen herrietatik etorritako langileek beste lan-kultura bat zuten. Beste
herri horietan sindikatuek, asoziazioak eta onurak lortzeko eta beraien intere-

sen alde egiteko, denen lan bateratuaren beharra barneratuta zuten. Gernika-Lumora helt zean, printzipio berak aplikatu nahi izan zituzten. Lehen sindikatu sozialistaren bultzatzaileak jakitun ziren kanpoko langileen garrantziaz eta publikoki adierazten zuten, hurrengo testuan argi geratzen den moduan:

En esta villa las necesidades de la vida moderna han creado ciertas industrias cuya explotación exige la venida y vecindad de obreros aptos para las mismas, procedentes en su mayoría de Bilbao, Eibar y Logroño.

Estos obreros, [son] en su casi totalidad demócratas [...]

Numerosos, muy numerosos son los demócratas que en esta villa residen y, sin embargo, se hace muy poca labor democrática, aunque el terreno es fecundo para ello. Diseminados como estamos, reuniéndonos en diferentes Sociedades recreativas, es poco el contacto que entre nosotros existe, y esto es preciso corregir. Agrupémonos, formemos un Centro Democrático, para intensificar nuestra propaganda y preparar a los obreros para los graves problemas que se avecinan (*El Liberal*, 16-XI-1918).

Errestaurazio-garaian argi ikusten da Gernika-Lumotik kanpo etorritako langileak izan zirela langile mugimenduaren sortzaile. *Esperanza* y *Unceta* pistola lantegiko lehenengo langileak Eibartik etorri ziren herrira, han zeudelako fabrika martxan jar zeko behar ziren langile kualifikatuak. Baina eibartar horiek denbora luzea zeramaten sindikatu sozialistetan bildurik eta presio handia egiten jabeek bere lan-baldintzak hobetu edo, behintzat, mantentzeko. Gernika-Lumora etort zean, gaizki bera egitea pentsatu zuten, baina herri hau ez zen Eibar. Lanbaldintza hobetuz, eta koizpena mekanizatzea eta langileen soldata denboraren arabera ordaintzea zela jakin zutenean, eta ez



Langile taldea herriko industrialdean (Gernikazarra bilduma)

amaitutako proiektuak, bereziki zinegotia eratu eta. Zer esanik ez, gizonezko langileak emakumezkoek ordezkatu zituztelako zurrumurrua zabaltzen zuten. Testuinguru horretan, Eibarriko langileen laugarren guntzarekin, *Sociedad de Obreros Pistoleros de Guernica-Luno* sortzea erabaki zuten 1913ko irailean. Sozietate honek bere lokal propioa eta guzti zuten Eibarko lagunen laguntza ekonomikoari esker. Lehen urrats hori eman ondoren, greba deitzea erabaki zuten langile bat kaleratu izan zenean.

Beraz, Gernika-Lumoko industrializazioa hasi zen lehenengo urtean lehen "arazo" egon zen. Sindikatu sozialisten garapena zailtzatzen zuten testuinguru desegoki horrek eragina izan zuen greba horren amaieran. Jabe eta udal agintarien langileen aurkako erantzun gogorra, batetik –lantegia zarratzea erabaki zuten greba egunetan–, eta, bestetik, sozialismoaren etorrerak herriko jendearengan eragin zuten beldurrak grebaren amaiera ekarri zuten. Horrek guztiak langileen porrota eragin zuten. Eibarko langileek herrira itzuli behar izan zuten lanik aurkitzeko aukerarik ez zutelako eta bere egoera ekonomikoa greba gehiago luzatzea ahalbidetzen ez zuelako. Modu horretan, porrot egiten zuten 1913 urtean sozialismoa herriari garatuzeko egiten zuten lehenengo ahaleginak.

Alkartasuna pistola lantegiaren sorrera aztertu dugunean, esan dugu sortzaileen artean greba galdu zuten langile horien arteko batzuk zeudela. Eibarren ere sindikatuaren partaide izan zirenez, Gernika-Lumon, 1916



Esperanza y Unceta-ko langileak Juan Esperanza omentzen dute Mérito Militar-aren domina eman zitzaionean 1916. urtean (Gernikazarra bilduma)

urtean, *Pistolero*-en sozietatea berriro berpizteko ahalegina egin zuten. Baina sindikatu honen bilakaera ez zen oso arrakastatsua izan, lehen hiru urteetan lan eta ekintza berriak ez dagoelako. *Unión General de Trabajadores* (UGT) sindikatu sozialistek indarrak hobeto koordinatzeko asmoz, 1914 urtean *Sindicato Obrero Metalúrgico de Vizcaya* sortu zuten. Ofizio batera mugatutako sindikatuen ordez, industria osoa batzen zuena sortu zuten. 1919 urtean, Gernika-Lumon ere sekzio bat zabaldu zuten. Erakunde berri horrek ere arazoak izan zituen sortu eta berehala, Gernika-Lumon lan egiteko.

Lehen Mundu Guda amaitzean, Espainiar ekonomia eta, bereziki, armen

industria krisiak jo zuen. Gerra garaian lortu ziren irabazi handiak eta lan ugaria bukatu egin ziren hau amaitzen zean. Langabezia, soldatak gutxitzeak, lanegunak edo lanorduak murrizteak edo beharrezko elikagaiak garestitzeak langileen egoera asko gaitzotu zuten. Testuinguru horretan, espainiar gobernuak 1919 urtean eguneroko lanorduak zortzi ordura mugatzen zuten legea onartu zuen. Lege honen aplikazio eza eta soldatak mantentzea lortzeko asmoz sozialistek greba kanpaina zabala bultzatu zuten 1919 eta 1920 urteen bitartean, baita Gernika-Lumon ere. Lantegi (*Alkartasuna* edo *Los Pirineos*) eta tailer txikietan deitu zituzten lehenengo grebak, eta gehienetan ez zuten emaitza onik lortu. Baina *Talleres de Guernica*-n eginikoa izan zen aipagarriena, sindikalismoaren gabeziak agerian utziz zituelako. Hemen, 1913 urtean gertatu zen bezala, jabeen jarrera gogorrenekin topo egin zuten: lantegia zarratu – *lock out* izenez ezagutzen den erabakia – eta langileak kaleratu zituzten. Lan askorik ez zegoenez, jabeek berriro kontratatu nahi zituzten langileak –suposatzen da sindikatuarekin lotura handiegia ez zutenak – lanpostura bueltatu ziren, greba alde batera utziz.

Urte horretako grebek ez zuten lortu emaitza onik eta, normala denez, *Sindicato Obrero Metalúrgico*-ren sekzioaren porrota ekarri zuen. Afiliazio eskasak eta kuotak ez ordaintzeak egoera ekonomiko latzen jarri zuen eta, azkenean, 1921 Bilboko zuzendaritzak sindikatuaren sekzioa disolbatzea erabaki zuen, galerak handitu ez zitezen. Horretan, udal agintariek lokala zabaltzeko jarri zizkien eragozpenak ere eragin handia izan zuen.



El domingo último hubo que lamentar un siniestro ferroviario en Guernica (Vizcaya), del que resultaron dos hombres muertos y varios heridos. Nuestra fotografía representa la posición en que quedaron las máquinas del tren después del accidente. (Fots. Basañes)

Los Pirineos esne-lantegian 1915ean egondako tren-istripuaren argazkia (Novevades, 1915-VIII-29)

Sozialismoaren inguruan eginiko organizazio lanak ez ziren izan bakarrik Gernika-Lumon. Abertzaletan ere bere sindikatuaren, *Euzko Langileen Alkartasuna* (ELA), elkarteak eratu zuten herrian. Orokorrean herriko gizartearen gehiena sozialismoaren aurka egon arren, *Euzko Alderdi Jeltzalea*-ren (EAJ) inguruan biltzen ziren gizarte sektoreek ez zuten langile mugimenduaren aurkako iritziak. *Pistolero*-en sindikatu sozialistaren aginduak jarraitzea ez zuten ikusten ondo, baina zenbait aldarrikapen egokiak eta justukiak zirela uste zuten. Beraz, langileek lana egin behar zuten bere interesak defendatzeko, baina ez jabeen aurkako borroka eginez; eta are gutxiago gizartearen oinarriak aldatuz. ELAren inguruan zeudenak proposatzen zuten estrategia jabe eta langileen arteko akordioa eta kolaborazioa jorratzea zela. Alde bakoitzak besteari justuki zegokiona eman behar zion. Akordioaren bidetik ezer lortu ezin bazen, orduan hasiko ziren bestelako presio bideak egiten.

Doktrina hau, katolizismo-soziala izenarekin ezagutzen dena, Elizak lan-arazoari irtenbidea emateko bultzatu zuen bidea izan zen. XIX. mendearen azkenalditik Elizak argi zuen gizartearen oinarriak eta ordenu katolikoa ezinezkoa zela mantentzea jabeek gero eta aberatsagoak baziren eta langileak gero eta txiroago. Modu horretan jarraituz gero, argi zegoen sozialismoak jarraitzaile gehiago izango zituela eta ordenu soziala erabat aldatzeko arriskua zegoela. Hori kontuan izanik, León XIII. aita santuak doktrina katoliko hori plazaratu zuen. Jabego pribatua defendatuz eta katolizismoaren giza-duintasuna eta justizia oinarri bezala hartuz, langileari gutxienezko bizi-baldintzak bermatu behar zitzaizkion eta hori defendatzeko sindikatuak sortu zitezkeen, baina beti klaseen arteko lan bateratua bilatuz.

Planteamendu horiek euskal abertzaletasunak barneratu zituen eta 1911 urtean bere sindikatuak sortu zuten, ELA alegia. Klase-borrokari irtenbide bat emateaz aparte, Euskal Herriaren sozialismoak izan zezakeen zabalkundea eragozteko zuten helburu. Abertzaletan euskaldunak "atzerriko" doktrinaren arriskutik aldentu nahi zituzten. Planteamendu horiek guztiak jarraituz, 1916 urtean Gernika-Lumon sindikatuaren herriko taldea sortu zuten. Afiliazioa aipagarria izan zen, 1919 urtean 76 afiliatu izatetik, 140 izatera pasatu ziren hurrengo urtean, eta 128ra jaitsi ziren 1922 urtean. Baina afiliazioak beste egoera bat adierazi arren, sindikatu honen lana oso urria izan zen. Seguruenik abertzale gehienak bertara afiliatu ziren, baina ez lan aktiboa egiteko, abertzaletasuna esparru gehienetara zabaltzeko asmoz baizik. Izan ere, ez propaganda aldetik, ezta bere langileen alde ere ez zuten lan azpimarragarririk egin. Beraz, izena baino ez zuen erakunde honek.

Errestaurazio-garaian, beraz, herriko sindikatuak bien bilakaera ez zen oso aipagarria izan; sozialistek, ordea, abertzaletan aurretik ibili ziren betiere. 1923. urtean proklamatu zen Primo de Rivera Jeneralaren diktaduran egoera ez zen aldatu. Okerrerako bidea jarraitu zuten sindikatuak. Diktadurak abertzaletasunaren aurka hartu zituen neurriak ELAren desagerpena ekarri zuen. Sozialistek testuinguru hobea izan arren, diktadurak nolabaiteko kolaborazioa eskaini zion, erregimen aldaketa aurreko krisiaren ondorioak jasaten jarraitu zuten. Baina langile mugimenduaren moteltasuna Bigarren Errepublikaren etorrerarekin aldatu zen. Errestaurazio-garaian greba ugariago

GUERNICA - - Colocación de la primera piedra - - de una fábrica de armas - -



El Ayuntamiento y el pueblo dirigiéndose al lugar de la colocación de la primera piedra.



Momento solemne de la bendición de la primera piedra de la nueva fábrica.



Aspecto que ofrecían los alrededores donde tuvo lugar la ceremonia. En el óvalo véase á don Isidro León, alcalde de Guernica, pronunciando un discurso al pueblo en el momento de empezar la inauguración de la fábrica.

Fots. Ojanguren.

Esperanza y Unceta lantegiaren lehenengo harriaren jartzearen argazki erreportaiak (Novedades, 1913-II-16)



Juan Tomás Gandarias, Gernika-Lumoko industrializazioaren bultzatzaile nagusia eta politikari monarkiko garrantzitsua Gernikako barrutian (Vizcaya, 26. zbk., 1966)

eta organizazio lan gutxi egon bazen, Errepublikan alderantz gertatu zen. Lan-gatazka herri-tik desagertu zela esan daiteke, greba bat baino ez zen deitu 1936 urtean, eta lantegi batera mugatua egon zen. Errepublika aldarrikatu eta berehala mundu mailako krisi ekonomikoaren eragina jasaten hasi zen Espainia eta horrek ez zuen sortu zen testuinguru egokia greba eta bestelako ekintzak egiteko. Hala ere, sozialistek zein abertzaleek lan handia egin zuten sindikatuak antolatzen.

Sozialistak izan ziren lehenak antola eta lan hau ekiten. 1930 urtean trenbideko langileek *Sindicato Nacional Ferroviario* sortu zuten. Elkarte horrek Bilbo, Mungia eta Gernika bitarteko trenbideen langileak bat zituen, *Sexta zona* izeneko sekzioan. Ezin da jakin baina, Gernika-Lumo inguru-

ruko zenbat langile zegoen afiliatuta elkarte horretara, baina asko izango zirela pentsatzekoa da. Trenaren tailerrak herriaren zeudenez gero, eta sindikatu horrek 1932 urtean izan zuen afiliazio nabarmena ikusita, horixe baino ezin dugu pentsatu. Organizazio lanak beste sektore ekonomiko batean murgildu ziren geroago. 1931ko urtarrilean, apirilean Errepublikan aldarrikatu aurretik, herriko 30 okin inguruk UGTra atxikituta zegoen erresistentzia elkar-tea sortu zuten. Lehenengo pausu horiek asko indartu ziren apiriletik aurrera, prentsan adierazten zen bezala:

Entre los pueblos más castigados por la lacra caciquil que van despertando de su marasmo, se encuentra Guernica, donde los obreros, hasta ahora sometidos a la exigente voluntad de algunos patronos, impulsados por la amenaza, en brava reacción y con clara visión de la potencialidad de su unión, se apresuran, desechados infundados temores, a engrosar las filas de la Unión General de Trabajadores, plenamente convencidos de que la fuerza de esta potente organización se virará de medio para alcanzar el logro de sus justas reivindicaciones. (*El Liberal*, 10-V-1931).

Okinei, maiatzean *Sindicato Obrero Metalúrgico*-aren bertsioak eta udaleko enplegatu eta langileen elkarteak jarraitu zieten. Ekainean aipatutako ofizioetan lan egiten ez zutenentzat *Sociedad de Oficios Varios* sortu zen eta abenduan eraikuntza langileek beraien elkarteak eratu zuten. Ez daude datu gehiegirik sindikatu horien afiliazioari buruz, baina orokorrean oso altua izan zen. Argi dago ofizioko elkarteetan lan-talde horren zabalera afiliazio kopurua mugatu zen zuela, baina elkarte indartsuenak, *Metalúrgico*-ena alegia,

jarraitzaile asko lortu zituen. 1931n 200 afiliatu zituen, eta hurrengo urterako beste hogeiki gehiago. Orokorrean, 1931 urtean 365 langile zeuden UGTra afiliatuak. Afiliazio zabal horrek argi adierazten du Gernika-Lumoko gizartea asko aldatu zela momentu horretarako. Biztanle gehienek sozialismoaren aurkako zuten iritzia zein zen jakinda, Errepublika garairako ezaugarri hori aldatu egin zen. Beraz, orokorrean, esan behar da biztanleriak erlijioarekin zuen lotura estua nasaitzen joan zela eta, bereziki, langileriaren kultura berezia zabaltzen. XX. mendearren laugarren hamarkadarako Gernika-Lumoko biztanle askok argi zuten langile izatea ezaugarri garrantzitsua zela eta horrek interes handia sortu eta aldarrikapen bereziak egitera bultzatzen zituela.

Prozesu hori ez zen sozialisten ingurura mugatu. Abertalde zaleen artean ere beste hainbeste gertatu zen. ELA sindikatua birsortzeko lanetan zebiltzanean, abertzaleek oso argi adierazi zuten gizartearen berrikuntza hori, urteetan bere jarduerara eza eta bere estrategia berezia aipatzeaz aparte:

Después de un lapso de tiempo, en que la Agrupación de este pueblo ha permanecido sumida en el olvido, vuelve de nuevo a su actividad con más bríos que nunca. Necesitamos este despertar de los trabajadores guernikarras.

Hora es que nos pongamos a tono con los demás obreros vascos de nuestro País. Si en algún pueblo está el obrero desamparado no le queda a la zaga Guernica.

Aquí los obreros somos más explotados que en el resto del País Vasco. Por tanto, y percatándonos de ello, necesario es que nos unamos todos para de una vez recabar lo que en justicia nos corresponde, y ver de mejorar nuestra situación por medio de la mutua cooperación. No nos debemos quejar de nuestra situación cuando nada hacemos por mejorarla y si nosotros no tratamos de mejorar nuestra situación, ¿quién ha de preocuparse de ello? [...]

¡Todo por la justicia social vasca! (*El Obrero Vasco*, 10-III-1931).

1931 urtea izan zen ELAren berrindartzearen unea. Urte horretako matxoan egin ziren lehenengo bilerak eta Errepublika garaian ofizio desberdineko sekzioak sortu ere –industria-metalurgikoa, eraikuntzakoak, elikadura sektorekoak, enplegatutakoak eta banketxe eta bulegoko langileak–. Sindikatu honen afiliazioaren datu gutxi daude eta gai hori ez dago gehiegi zehazteko moduan. Eskuratu ditugunek erakusten dute sozialistak baino gutxiago zirela, baina, hala ere, jarraitzaile kopuru aipagarria lortu zuten. 1932 urtean 180 afiliatu zeuden, baina bi urte beranduago, 300era pasatu ziren. Hala ere, langileen interesen inguruko ELAren lana ez zen oso aipagarria izan. Oso urriak dira bere jarduerari buruzko berriak, eta propaganda eta soziabilitate lanen inguruan mugitu zen gehienbat; hau da, zenbait mitin organizatu eta afiliatuekin abesbatza eratu, antzerki lanak egin, etab.

3. Eguneroko bizitza



Aurreko kapituluetan, Gernika-Lumo aztertzen ari garen garaia aldaketa prozesuan murgildurik zegoela aurkeztu da. Ez zenez izan XIX. mendearen azkenalditik aurrera beste leku bat zuetan izan zen bezain sakona, baina eraldatze garaia izan zen Gernika-Lumon ere. Lan-mundua eta, ondorioz, gizartearen egitura aldatu egin ziren herrian. Baina jendearen bizitzaren esparru horiek ez ziren aldatzen bakarrak izan. Eguneroko bizitzan ere eraldakuntzak eman ziren. Biztanleek lanetik aparte zuten bizitzan ere antezeman daitezke berrikuntzak. Jendearen heziketan, mugituzeko moduan edo aisialdiarako jardueretan berritasunak sumatzen dira. Berrikuntza horiek XX. mendearen hasieratik nabariagoak dira, baina ez zituzten aintzinarako eguneroko bizitzako ezaugarriak guztiz ezabatu. Hala ere, 1890ko Gernika-Lumoko gizartearen bizitza eta 1936koa erabat desberdinak ziren, segidan ikusiko dugunez.

Sarritan, gizarte bat aldatzen den edozein erabakitzeko ekonomia, lan-mundua edo hurrengo kapituluan aztertuko den politika hartzen dira kontuan. Esparru horietan berrikuntzak ematen badira, gizarte dinamiko baten aurrean gaudela esaten da; eta, noski, aldaketarik ematen ez bada, alderantzizkoa ulertu behar da. Bestalde, eguneroko bizitzan ematen diren prozesuei ez zaie jaramonik egiten. Izatez, eguneroko bizitza aztertu duten ikerkuntzek ez dute urte asko eta Euskal Herrian pasa den mendeko laurogeita hamarrekohamar-kadan hasi ziren. Baina ikerketen “gaztetasuna” kontuan hartzen badugu, ez dugu pentasatu behar bigarren mailako gaien aurrean gaudenik. Argi dago ekonomia, lana edo politika aztertzeak gizarte osoa kalifikatuzeko balio digula, baina pertsonak bizi zituzten aldaketak ere garrantzitsu handiko prozesuak dira. Aipagarri diren ezaugarri hauek ere kontuan hartuzeko modukoak dira: heziketa –eta horren ondorioz, maila kulturala–, bidaiatuzeko erraztasunak edo aisialdia bideratzeko aukerak. Norberaren bizitzaren oinarrian dauden esparru horiek aldatzeak berebiziko garrantzitsuak dira, azken finean, pertsona ere aldatzen dutelako. Berrikuntza horiek guztiak ezarri eta zabaldu zirenean, herritar berri baten aurrean gaudela esaterik dago; ezaugarri horiek aldatzean, pertsonaren funtsezko oinarriak ere aldatu egin ziren.

Kapitulu honetan aztertuko dugun lehenengo gaia heziketarena da. Azken guda karlistaren amaieratik aurrera, baina bereziki XIX. mendearen azken hamarkadatik aurrera, Gernika-Lumoko hezkuntza-sistema zabaldu egin zen eta konplexutasun handiagoa lortu zuen. Lehenago ere bazeuden eskolak herrian, baina Errestaurazio-garaian hezkuntza-sarea hobetu egin zen eta zentro berriak zabaldu ziren. Carmelo Echegaray-k, 1911 urtetik aurrera publikatu zuen *Geografía general del País Vasco-Navarro*-n, bere Bizkaiko alean, honela aurkeztu zuen Gernika-Lumoko hezkuntza-sistemaren egoera, pasa den mendearen hasieran:

Cuenta Guernica con excelentes escuelas públicas para niños de ambos sexos, y tiene además, a la salida de la villa en dirección a Forua, y a la izquierda de la carretera, dos magníficos y acreditados ejemplos: uno de niñas, dirigido por la Hermanas Carmelitas de la Caridad, y otro más adelante, para niños, en que además de la primera y de la segunda enseñanza, se explican las asignaturas propias de las carreras de comercio y náutica. Corre este centro docente a cargo de los PP. Agustinos de la provincia matritense del Sagrado Corazón de Jesús.


Testu horretan adierazten den bezala, herriak heziketa aukerez nahiko ondo hornitua zegoen. Herriko biztanleek bazituzten bere seme-alabak derrigorrezko hezkuntza egiten eramateko eskola publikoak. Hala ere, egoera ez zen guztiz ona. Bazeuden zenbait arazo. Adibidez, urrun zeuden baserrietako umeek askotan klaseetara hurbiltzeko bide luzea egin behar zuten oinez eta askotan ez ziren joaten. Urruntasun horrek edo baserriko lanak egin behar izateak, analfabetismo maila handiagoa sortzen zuten baserriarren artean, eskolara gutxiago joaten bait ziren. Hori konpontzeko asmoz, Bizkaiko Aldundiak auzo-eskolak sortzeko ekimena bultzatu zuen. Umeak eskolara joaten ez baziren, eskolatu meei hurbiltzea izan zen bilatu zen irtenbidea. Horrelako eskola bat Lumon sortu zen 1924 urtean, auzune hartan bizi ziren umeentzako heziketa aukera handiagoak emateko asmoz.

Badago beste era bateko ñabardura egiterik ere. Hezkuntza eskaintza zabala izatea oso ona zen, baina, halaber, kontuan izan behar da familia askoren egoera ekonomikoa. Adinean aurrera egin ahala, seme-alaba askok ez zuten eskolak hartzen jarraitzeko aukerarik. Ohikoa zen gazte askok ikasketak utzi beharra lanean hasteko bere soldatarekin familiaren ekonomiari laguntzeko. Egoera hori nolabait zuzentzeko, 1905 urtean *Escuela de Artes y Oficios* izenez ezagutzen zena sortu zen. Jadanik lanean zeuden langileak zenbait bizibidetan trebatzea zuen helburu nagusia –garaiko industriak asko eskatzen zituenak, adibidez, ajustadore, forjatzaile, arotz, etab.–. Modu horretan, industriaren langile kualifikatuaren beharra asetzen zen heinean, gizarte-sektore herrikoei bizimodua hobetzeko aukerak ematen zitzaizkien, eta lan hobea lortzeko aukerak. Emakumeentzat ere helburu bera bilatzen zen, baina garai hartan “arrunta” eta “onargarria” zitzaien lan esparruan: jostunena, alegia. *Corte y Confeción* ikasketak ziren bere esku jartzen zirenak. Hala ere, bere negozio propioa zabaltzeko aukerak ere ematen zitzaizkien eta kontabilitatea eta bestelako ikasgai praktikoak ere hartzeko aukerak zituzten. Gaur eguneko begiekin begiratuta, gutxietsiak ziren emakumek ez zituzten bizi propioa garatzeko aukerak, baina, behintzat, aintzat hartzen ziren ofizioak ikasteko zituzten nahiak.

Sare publikoaz aparte, aipagarria da, halaber, eskola katoliko pribatuen sorrera herrian. Segidan aipatuko diren eskola biek herriko heziketa izugarri hobetu zuten eta inguruko gazteei ere ikasteko aukerak eman zitzaizkien, biek barnetegiko ikasleak onartzen zituztelako. Kongregazio erlijiosoak gidatutako mota horretako eskolen sorrera asko indartu zen XIX. mendearen azken hamarkadatik aurrera. Frantziako Errepublikan zituzten arazoetatik ihes eginez, Espainiara pasatzea erabaki zuten. Askok Euskal Herria hau-

tatu zuten lanean jarraituzeko, mugaren hurbiltasuna lagundurik. Kongregazio horien arazoak zenbait udal agintarientzako aukera egokia izan zen bere herriko hezkuntza-sistema hobetzeko eta berritzeko. Ezaguna zen herriaren garapena, neurri handi batean, hezkuntza oinarritzen zela; beraz, agintari horiek lan egiten zuten era horretako ekimenak aurrera ateratzeko. Hori izan zen Gernika-Lumoko kasua. Bere ateak zabaltzen lehena, Aita Agustindarren eskola izan zen 1896 urtean, gaur egun herriko institutua dagoen leku berean. Udal agintariak emandako diru-laguntzak, alderdi politiko guztien lanak eta herrian batutako diruak Agustindarren etorrera bultzatu eta bizkortu zuten. Lehen eta bigarren mailako hezkuntzak aparte, merkataritza eta nautika ikasketak ere ematen zituzten bertan. Agustindarren eskola mutilentzat zen, baina herrian laster hasi ziren neskentzat beste eskola bat sortzeko kudeaketak, gazteen erdiak, gutxienez, heziketa egoki gabe gera ez zitezkeen. Horrela, 1907 urtean, gaur egungo Karmeldarren eskola sortu zen herrian.

Eskola bi horien ezaugarri garrantzitsuena, logikoki, printzipio katolikotik oinarritutako heziketa ematea zen –«educar á la juventud en el santo temor de Dios»–. Horrek, gutxienez, ondorio bi zekartzan. Alde batetik, esparru ideologiko katoliko eta kontserbatzailean kokatu nahi izatea ikasleak. Bestetik, emakumeen kasuan heziketa helburu finko batera zuzentzea: ama eta emazte egokiak sortzea. Bazegoen, hala ere, eskola horietan beste ezaugarri bat: klasistak ziren. Udal agintarien laguntza jasotzeko, ordainez herriko gazte txiki kopuru bat onartu behar zuten eskolan. Baina “txiki” horietatik aparte, ordaintzen zutenak ere bazeuden. Eta talde bakoitzak jasotzen zuten heziketa desberdina zen, kalitate zein eduki aldetik. Beraz, klase eta aberastasunean oinarritutako banaketa ematen zen bertan. Baina aipa daitezkeen ezaugarri guztiez gain, eskola bi horien etorrerak, eta garaiko irizpide pedagogikoak zeintzuk ziren kontuan izanik, herriko heziketaren kalitatea ikaragarri hobetu zuten.



Zornotza eta Sukarrieta bitarteko trenbidearen argazkia Oka-ko zubian (Argazki bilduma partikularra)



Gernika-Lumoko frontoi estali berria, 1925. urtean inauguratua (*Vizcaya*, 26. zbk., 1966)




Agustindarren eskola, gaur eguneko institutua (*Vizcaya*, 26. zbk., 1966)

Gernika-Lumoko hezkuntza sistemak eragin zuzena izan zuen gizartearen kultura mailan. Biztanleek aukera desberdinak zituzten eskolarat zeko, derri-gorrezko ikasketak egiteko eta bestelako hezkuntza mailetan jarrait zeko. Askok bazuten oinarrizko heziketa lort zeko aukerarik, beste bat zuek, aldiz, ibilbide luzeagoa egin zezaketen, eta, honek guztiak, herritarren kultura maila igotzea ekarri zuen. Irakurtzen eta idazten zekitenen kopurua guztiz handitu zen Bigarren Errepublika garairako; estatuan zeuden batezbestekoez gainetik jarritz. Gainera, hazkundera sexu bietan eman zen: emakumeek historikoki zuten analfabetismo maila handiagoa jait si egin zen eta sexuen arteko portzentajeak parekatu egin ziren. Hurrengo koadro eta grafikoan aurkezten dira hazkunde hori erakusten dituen datuak.


Gernika-Lumoko alfabetizazio maila bakoitzeko biztanle kopurua (1877-1935)

	GIZONAK					
	1877	1887	1900	1910	1920	1935
Irakurri-idatzi	494	789	944	1.063	1.499	1.949
Irakurri 24		33	44	5	12	13
Analfabetoak	304	492	448	475	549	350
Guztira	822	1.314	1.436	1.543	2.060	2.312
	EMAKUMEAK					
	1877	1887	1900	1910	1920	1935
Irakurri-idatzi	299	678	938	1.309	1.806	2.365
Irakurri 54		105	130	11	32	38
Analfabetoak	405	740	746	698	789	451
Guztira	758	1.523	1.814	2.018	2.627	2.854

Gernika-Lumoko biztanleen alfabetizazio portzentajea (1877-1935)



Solemnidad escolar en el Colegio de Guernica



Fachada principal del colegio de los PP. Agustinos, en Guernica.



Grupo de alumnos del colegio que han obtenido primeros premios.

El lunes 17 del corriente, celebróse en el acreditadísimo colegio que los PP. Agustinos tienen establecido en Guernica, el solemne acto de la repartición de premios á los alumnos más aventajados del mismo. Para dar mayor solemnidad al acto, interpusieron profesores y alumnos un selecto programa literario musical, que agradó extraordinariamente á la numerosa y distinguida concurrencia que llenaba el local.



El director del colegio, acompañado de los profesores y del alcalde de Guernica, presidiendo el acto.

Digno remate de la académica fiesta, fueron las elocuentísimas palabras pronunciadas por el director del colegio reverendo P. Carlos Miguel, que hubieron de valerle unánimes aplausos.

A los jóvenes y estudiosos alumnos, que tan grato y confortoso espectáculo ofrecieron, y á sus ilustres profesores enviamos nuestros plácemes más cordiales por el éxito obtenido, justo premio á su laboriosidad y perseverancia.



El Director del Colegio, M. R. P. Carlos Miguel (X) pronunciando un discurso después del reparto de premios.
Foto. Fort.

Agustindarren eskolan 1912. urtean ikasleei sariak banatuzko eguniko ekitaldiaren argazkiak (Novedades, 1912-XII-22)

Hala ere, alfabetizazio maila izugarri indartuz joan bazen ere, agerian geratzen da analfabetoen kopurua ez zela jait si, alderant ziz baino. Bestelako daturik ez izan arren, eta hipotesia baino ez da hau, hazkunde horren arrazoia baserri mundutik herrira etorritakoek sortuko zuten. Aipatu dugunez, nekazal munduan heziketarako baliabideak ez ziren horren onak eta analfabetismo maila handiagoa zen bertan. Eta kontuan izanik aztertzen ari garen garaian inmigranteak ingurune horretatik zetozela herrira, hor egon liteke datu kontra-jarri horien arrazoia.

Kultura mailaren igot ze horrek eragin handia izan zuen gizartean: alfa-betizazio maila handit zean, gero eta jende gehiagok irakur zezakeen inoren laguntzarik gabe. Ezaugarri horrek garrant zi handia izan zuen, prent sa moder-noaren zabalkundearekin batera eman zelako. Lehenagoko prent sa kultura maila han diko jende arentzat zen, artikulua nahiko sakonak eta askotan teorikoak izaten zirelako; gainera, prezioa gut xi bat zuen eskuetan baino ez zegoen. XX. mendearen hasieratik jarri ziren gaur egungo prent sare oinarriak Euskal Herrian. Prezio merkeagoa izateaz aparte, aztert zen zituen gaien tra-tamendua desberdina zen: gai eta leku askotako notiziak era erakargarrian jartzen zituzten, gaur egungo bezalako titularrak erabilt zen zituzten, denbora igarotzean, irudiak eta argazkiak erabilt zen hasi ziren, etab. Eraldakunt za horiek guztiek prent sa interesgarriagoa egin zuten eta askorent zat lehen mailako informazioa bilakatu zen. Prent sare irakurketari buruzko datu gehiegirik izan ez arren, daudenek argi adierazten dute oso zabaldua zegoela. Adibidez, Bigarren Errepublikan, *El Liberal* Bilboko aldizkari ezkertiarra erosteaz aparte, zentzu bereko Madrileko zenbait egunkari eros zitezkeen herrian. Abertzaleen prentsa ere oso saldua zen herrian: 1934 urtean *Euzkadi*-ren 350 ale saltzen ziren egunero, 80 *Euzko* astekariarena eta beste ehun bat *Kendu*-rena. Gernika-Lumoko biztanle kopurua kontuan izanik, argi dago salmenta garrantzitsuak zirela. Hala ere, hurrengo testuak adierazten du prent sare indartzea lehenago eman zela:

Fácilmente se agitan y mue ven hoy los pueblos y las aldeas mediante la hoja volandera; ho y para muchos no existe más Evangelio ni más Biblia que el *periódico diario*; por casualidad veréis en un viaje, en un tren, en un paseo, á una persona que no ostente su periódico; y con el periódico reacciona el rico, el sabio y el aldeano. A nadie se le oculta la impor tancia decisiva del periódico diario (*La Gaceta del Norte*, 23-IX-1917).

Prentsak bizitako zabalkundeak informazio kopuru handiagoa jarri zuen pertsonen esku eta, gainera, herri mailako eta mundu mailako notiziek osat zen zuten informazio hori. Gaur egun, irudiaren munduan bizi gara, baina garai hartan prent sa eta bestelako testu idat ziak ziren jendearen informazio iturri garrant zitsuenak. Irakurriz izaten zuen jendeak gertat zen ziren gau-zen berri. Beraz, informazio kopuru handiagoa eta gai askori buruz izateak, iritziak, ikuspuntuak eta bizipenak interpretat zeko moduak alda zit zakeen. Orokorrean, XIX. mendera arte, historialari askok adierazi dute herri eta eskualde mailako berriak zirela biztanleei gehien interesat zen zit zaizkienak. Baina hurrengo mendearen etorrerarekin ezaugarri hori aldat zen joango da. Jendeak beste maila bateko notiziak izatean eta bere bizit za eskualdetik

kanpo zeuden gertakari eta prozesuek eragina zutela ikusirik, errealitatearen interpretazioak ere aldatzen joango ziren. Bere bizitzan eragina zuten faktoreak maila zabalago batekoak zirela ikusiko zuten modu horretan. Aldaketa horren ondorioek eragin handia izan zuten politikan, gerora ikusiko dugun bezala.



Santa Maria elizatik San Juan elizara berrira bigarrena apaindu behar zuten erlijio irudiak eramaten (Novedades, 1910-XII-4)


Aipatutako aldaketan, jarraian aztertuko dugun beste berrikuntza batek izan zuen eragin zuzena. XIX. mendearen azken erdialdetik XX. mendearen hasiera bitartean, jendeak leku batetik bestera mugitzeko zituen aukerak eta moduak zabaldu eta berritu egin ziren. Trenaren zabalkundea izan zen garraiobideen hobekuntza zaren lehenengo pausua. Geroago, autoak eta kamioiak etorri ziren. Garraiobide horiek Bizkaia barrualdeko herriak hobeto komunikatu zituen, Euskal Herriko herrialdeak ere bai eta, azkenik, Espainia eta Frantziarekin lotura azkarrak ezarri zituzten. XIX. mendearen azken hamarkadan, Gernikan trenbidea martxan jarri zenetik, biztanle askorentzat errazagoa zen alde batetik bestera mugitzea. Aukera horiek, maila kulturalak sortzen zuten bezala, biztanleen ikuspuntuak eta pertsonalitateak aldatzea ekarri zuen. Norberaren bizitzak, esparru geografiko zabalago batean ematen baitzen momentu horretatik aurrera.

Aztertzen ari garen garai honen aurretik, herrian eta eskualdean egiten zuten bizitzak bertoko biztanleek. Gernika-Lumotik Bilbora joatea oso bide luzea zen; luzeago oinez joanez gero, zaldi edo gurdian egiten zenean baino. Urrunago bidaiatzeko abentura bilakatu zen. Gasteizera, Madrilera eta urrunagora joatea egunetako bidaiak ziren bide txarretatik egina eta, garai askotan, lapurren esku geratzeko arriskuarekin gainera. Trena asmatu eta lehenengo

lineak zabaldu zirenean egoera erabat aldatu zen. Lehenago egunetakoa zena, orduetako bidaia bilakatzen zen. Gernika-Lumoko trenaren abian jarritzean, Bilbora edo Donostiara joan-etorria egun berean egin zitekeen. Urrunago joatea ere erraza eta azkarra zen.

Prentsan gertatu zen bezala, garraiobideen erabilera ez zen geratu gizar-tearen goi-mailetara mugatuta. Gizarteko maila guztietara zabaldu zen billeteen prezioa –merkeen kasua, hirugarren mailakoak– askoren poltsikora egokitzen zirelako. Autobusei buruz ez dugunez inolako erabilera daturik, bilakaera horren azterketa trenbideetara mugatuko da; hala ere, joera bera eman zen beraietan ere. Hurrengo grafikoan agertzen den bezala, Gernika-Lumoko lineak izan zuen bidaiari kopuruak goranzko joera izan zuen arian-arian, zenbait momentuko jaitsierak egon arren. Eta horrek argi adierazten du trenaren erabilera gizartean zabaldu zela.

«Cía. de Ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Pedernales»-en bidaiari kopurua (1889-1930)



Eguneroko bizitzarekin bukatzeko, azken gaia aztertuko dugu. Orain arte jendearen bizitza aldatu zuten zenbait faktore aipatu dira. Orain aldaketa hori eman zela adierazten duen prozesu bat aztertuko da. Merkataritza azaltzean aipatu dugu biztanleek hazkunde ekonomikoaren ondorioz, bere esku diru gehiago zutela eta horrek, gaur egungo kontsumo-gizartearen oinarriak jarri zela ahalbidetu zuela. Gizarte tradizioaletan, normalean, familia gehienek bere ekonomia mantentzeko gutxienezko erosketak egiten zituzten, eta egiten zituztenak, normalean, beharrezko gaiak eskuratzeko baino ez ziren –elika-gaiak, jantziak...-. Gizarte garaikidean, ordea, bestelako prozesua eman zen. Orain familiek beharrezko erosketak egin ondoren, bestelako gastuak egiteko

gaitasuna zuten –horrekin ez dugu esan nahi familia guztien egoera ekonomikoa ona zenik, ezta gutxiago ere-. Izan ere, behar-beharrezko produktuez gain, bestelako batzuk ere “beharrezko” bihurtu ziren. Momentu hartatik aurrera, jana eta janzteia nolabait ziurtatuta izanik, askok oso garrantzitsuz jotzen zituzten bestelako produktu eta zerbitzuak ere eta beraiek eskuratuzko prest zeuden dirua gastatuzko. Prozesu horrek, garai hartatik aurrera, aipatugun merkataritza zaren berrikuntza eta hazkundea permititu zuen, askok kontsumitzea bere bizitzaren parte ikusten zutelako. Modan zeuden arropak, janari bereziagoak –«ultramarinos»-, liburuak, bitxiak eta abar izatea bizitzaren arruntaren parte bihurtu zen. “Beharrian” berri horien adierazlea ere aisialdian jendeak gastatzen zuen dirua ere badago. Zinera edo antzerkizuzteak joatea, edo pilota eta futbol partidak ikustea, esaterako, pertsonen bizitzaren gauza arrunt bihurtu ziren.

Aisialdian eman ziren berrikuntza onorioa ez zen mugatu jendearen lanetik kanpoko bizitzara; beste onorio bat ere izan zuen. Biztanle askok aisialdiko jarduera horietaz disfrutatuzko dirua ordaintuzko prest zeuden. Horrek sektore ekonomiko baten sorrera ekarri zuen. Sarrerak saltuzko aukera egotean, zenbait inbertitzailek sektore horretan inbertsioak egitea erabaki zuten eta, modu horretan, Gernika-Lumo eskualde guztiko aisialdi “hornitzaile” bilakatu ziren.

Lehenengo berrikuntza zinemaren munduan eman ziren. Daturik izan ez arren, 19. mendearen azkenalditik zinema-aurreko zenbait espektakulo ibiltari heldu ziren herrira. Lehenik, jai sasoiaren edo zenbait kafetegira «panorama» edo «linterna mágica» izenekoak –gaur egungo diapositiben sistema modukoak erabiltzen zituztenak-; beranduago, lehendabiziko zine proiektzioak emango ziren. 1911 urterako, herriko zabalgunean zegoen «Teatro-Circo»-n pelikulak eta dokumentalak ematen ziren bertan; udan ere zenbait konpainia ibiltariek zinea ere jartzen zuten, besteak beste. Baina bigarren hamarkada horretarako bestelako bilakaera eman zen: zinema ibiltariak horretarako egokitutako lokalek ordezkatuak izan ziren. Modu horretan jendeak zinemarekiko zuen grina ase zitekeen urte guztian zehar. Herriko kafetegi bik –Café del Norte eta Café Zorrilla, geroago Rivera deituko zena- bere lokaletan zinea ematen hasi ziren. Hala ere, 1917 urtean Lizeo Zinea aipatutako prozesu horren adierazle garbia da. Zinerako –eta antzerkirako ere- propio eginiko lokala zen eta urteko asteburu gehienetan emanaldiak egiteko prestaturik zegoen. Lokal horren ezaugarri batek argi adierazten du zinemak herrian lortu zuen garrantzia: 340 ikusle inguru sar zitekeen solairu bietan.

Aisialdiaren berrikuntza kirolerara ere heldu ziren ere; bai norberaren jarduera gisa, bai espektakulo bezala. 19. mendearen azkenalditik aurrera, kirol berriak heldu ziren Euskal Herrira: futbola, txirrindularitza, alpinismoa, atletismoa, krosa, etab. Jende asko hasi zen kirol berri horiek praktikatzeko. Adibidez, futbolaren kasuan, Gernika-Lumon 20. mendearen lehenengo hamarkadaren bukaeran ditugu lehenengo berriak, gazteak horretara jolastu hasi zirenen. 1914 urtean lehenengo bilera egin zen kirol talde bat



San Juan elizaren beste ikuspegi bat (Vizcaya, 26. zbk., 1966)




Adolfo Urioste kalea XX. mendeko 30. hamarkadan (Vizcaya, 26. zbk., 1966)


eratzeko herrian, geroago Izarra taldean gauzatuko zena. 1921 urterako talde bi zuden, Guernica Sport eta Athletic Guerniqués. Azkenik, 1923 urtean, Guernica Club eratu zen, kirolari guztien indarrak batu nahi izan ziren eta instalazio egokiak izateko lanak hasi zituzten. Futbola ez zen talde horien zaletasun bakarra, beste kirol batzuk ere praktikatu zituzten zutelako eta, askotan, herriko jai egitarauan boxeoa, krosa edo moto lasterketak ere antolatzen ziren.

Hala ere, kirolean emandako berrikuntzak ez ziren mugatu esandakora. Dirua gastatzeko aukerak eta nahiak kirolaren munduan ere eragina izan. Denborarekin zenbait kirol espektakulu bihurtu ziren ikusleentzako. Futbolaren kasuan ikusten da eraldaketa hori. Guernica Club sortzean eta taldearen funtzionamenduak behar zuen gastuei aurre egiteko, hogeiko hamarkadatik aurrera partidak ikustearren, sarrerak kobratzen hasi ziren. Hala ere, esku pilotaren mundua izan zen lehena sarrerak kobratzen eta kirol inguruko kudeaketak egiteko enpresak sortzen.

Gernika-Lumoko herriko frontoia Pasealekuan zegoen. Bere kudeaketa enkantean jartzen zuen udaletxeak, denbora jakin bateko kudeaketaren orde, diru jakin bat ordainduz enpresek. Kirol horretara zaletasun handia zegoenez, udalak diru kopuru aipagarriak lortzen zituen. Eta nola ez, kudeaketa lortzen zuen enpresak partidak ikustearren, sarrerak kobratzen zituen. Urte askotan herriko frontoi estali-gabean egiten ziren herriko pilota partidak, baina 1922 urtean lursail hori eskola egiteko erabiliko zela jakin zen. Egoera hori kontuan izanik eta Euskal Herri guztian, baina bereziki Gernikako eskualdean, zegoen zaletasuna ezagutzuz, zenbait inbertitzailek frontoi berria eraikitzea erabaki zuten; kasu honetan frontoi estalia eta oso modernoa. Gainera, instalazio horretan bestelako ekintzak ere egin zitezkeen: zinema emanaldiak, dantak... Gainera, taberna ere bazegoen. Izatez, oso ezagunak ziren han ematen zituzten partidak, zeren pilota bukatu zean, zinea ere ematen baitzuten. Modu horretan «Frontón de Guernica» sozietate anonimoa sortu zen eta 1925 urtetik aurrera hasi zen partidak antolatzen. Horretarako, enpresak zenbait pilotari profesional ere bazituen, besteak beste, Atano III.a. Hauxe izan zen ezagunena eta diru gehien irabazten zuena. Gernika-Lumoko lehenengo kirolari profesionalak ziren horiek.



Gernika-Lumoko musika banda 1922. urtean. Segundo Olaeta bere zuzendaria zen (J.A. Arana Martija bilduma)



Gernikako orfeoia 1905. urtean (J.A. Arana Martija bilduma)

4. Politika herri txiki batean



Aztertzen ari garen garaiko nekazal eskualdeko herri txiki baten politika zehaztean, historialariek garapen txiki esparrua zela aipatzen dute askotan. Normalean, politikan berrikuntzak hiri handietan eman zirela uste izan da eta, herri txiki horietan handietako ezaugarriak ematen ez zirenez, herri txikietarako kontrakoa defendatzen da. Herri txikietako politikari buruzko ikuspegi hori, gehienbat, ezaugarri biez ematean datuza. Alde batetik, langile mugimendua eta sindikalismoaren indartzea “modernitatearen” ezaugarri zatikusi izan dira. Sindikatu indartsuak, grebak, etab. gizarte tradizionalaren eraldatze prozesuaren adierazle ziren. Jada aztertu dugunez, Gernika-Lumon ez zen eman indartze hori, behintzat, Bigarren Errepublika hasi arte, eta, gero ere, herriko sindikalismoaren areagotzeak argilunak bizi izan zituen. Beste alde batetik, demokrazien eskutik suertatutako politikaren eraldakuntza ezkerreko alderdi politikoen sorturiko prozesua izan zela defendatu da. Sozialistak eta errepublikarrak izan ziren berrikuntzen zabalzaile eta antzinako politikaren desagerpenaren bultzatzaile. Hurrengo ataletan ikusiko dugunez, indar politiko biez horiek ez zuten izan garapen aipagarrikerria. Izatez, Bigarren Errepublika hasi artean, eskuineko indarrek zuten Gernika-Lumoko politikaren gehiengo zabala. Beraz, aipatutako ezaugarri biez ez ziren betetzen aztertzen ari garen kasuan.

Bizkaiaren kasuan, gainera, hiri eta herri txikien arteko kontrastea oso nabarmena zen eta aipatutako kontrajarritasunaren ideia asko indartu zen. Bilbo eta bere ingurua aurrerapenaren guneak ziren. Bertan, industriak sortutako gizarte-aldaketek eragina izan zuten politikaren munduan ere. Sozialista eta errepublikarren indarra, eta abertzaleena ere, politikaren eraldatze sakonaren adierazle ziren. Baina hiriburua “moderno” bazen ere, XX. mendearen hasieran Bizkaiko herrialdeko beste herriek, nekazal eta arrantzak ingurukoak, alegia, bizi berri mantentzen zituzten gizarte tradizionalaren ezaugarri asko, bereziki politikaren esparruan. Herri horietan alderdi politiko zaharrek eta kontserbatzaileek zuten gehiengoak. Karlismoaren eta liberalismoaren esparrua ordezkatzeko zituzten monarkiko “alfonsotarrak” – hau da, Alfonso XII.a eta bere seme Alfonso XIII.aren monarkiaren aldekoak – ziren alderdi politiko nagusienak eta bere ezaugarri ideologikoen ez zuten inolako eraldaketa eta eraberritze prozesurik bultzatzen, ezta ematen zuten ere. Euskaraberteltasuna planteamendu horietara moldatzen zen neurri handi batean, alderdi katoliko eta kontserbatzailea zelako. Beraz, Gernika-Lumo bezalako herri txikiak politika “zaharren” esparrua izaten jarraitzen zuten eta denbora luzea behar izan zuten Bilboko ezaugarrietara hurbiltzeko.

Hurrengo orrialdeetan aztertzen dena aurreratuz, aipatutako ikuspuntua, garapen politiko geldoaren ideia alegia, Gernika-Lumon ez zen bete. Ikusiko dugunez, XX. mendearen hasieratik herrian politika modernoagoaren adibideak ikusten dira. Argi dago, politika horrek ez zuela izan Estatu edo Europako hiriburu handietan eman zen bezain sakona eta indartsua, baina ez zen izan politika zaharra eta tradizionalaren esparrua, ezta garapen eza

edo geldoaren eremua. Izatez, Guda Karlista osteko eta Guda Zibila hasierako politikak erabat desberdinak ziren Gernika-Lumo bezalako herri batean. Tamaina horretako herrietan berrikuntza politikoa ere eman ziren, baina ezaugarri, denbora eta bilakaera bereziekin, hiri handietan ez bezala.

Politikaren kapitulu hau bi atal desberdinetan banatzen da. Alde batetik, herritarrek politika "egiteko" zuten modua edo bere portaera politikoa azalduko da. Aztertzen ari garen mende erdian ezagutu zituen aldaketa eta eraldakuntzak aipatuko dira. Beste alde batetik, epe horretako ibilbide historikoari jaramon egingo zaio, bereziki Estatuko politikaren getakizun garrantzitsuenek herrian izan zuten eragina ikusteko, eta, azkenik, alderdi politikoen arteko harremanak eta hauteskundeetan lortzen zituzten emaitzak izango ditugu aipagai.

4.1. BIZTANLEEN POLITIKA EGITEKO MODUA

4.1.1. Politika "zaharra"

Azken Guda Karlista bukatu osteko politikaren ezaugarriak aztertu aurretik, beharrezkoa da Errestaurazio edo Berrezarkuntza-garai guztitan – haurda, Alfonso XII eta XIII aita-semeen monarkia parlamentarioa osatzen zuten garaia, 1876 eta 1923 urteen artekoa, alegia– sistema politikoa buruzko gutxienezko azalpen batzuk ematea. Izatez, "kazikeen politika" izan zen funtzionamendu horren ezaugarri nagusia, baina kazikeen eragina eragotzian aztertze beharrezkoa da lehenago 1876ko Konstituzioak gobernuak eratzeko ezarri zuten prozedura ezagutzea, bertan aurki daitezkeelako ezaugarri hori ulertze zeko zenbait arrazoi.

XIX. mendeko Espainiaren politikan gobernuak aldatze zegoen modu arruntena indarraren erabilera zen, "pronuntziamentuena" alegia. Oso laburki azalduz, liberalak eta moderatu kontserbadoreak gobernura helduz, bere agintaldia ahal zuten beste luzatu nahi izaten zuten. Ez zegoen gobernu aldaketako sistema formalik ezarrita eta, horren ondorioz, gobernutik kanpo zegoen indar politikoa gobernura heldu nahi izanez gero, agintean zeuden politikariak indarrez kendu behar zituzten. Indar erakustaldi horretan militarrek izaten zuten lehen mailako betebeharra, beraiek zutelako behar zen indar erakusketa egiteko modua. Indarraren erabilera hori nabariagoa zen karlisten kasuan, sistema politikotik kanpo zeudelako. Mende horretako historia gatazkatsuen adierazten zuen bezala, sistema hori ez zen modu egokiena Estatuan egonkortasun politikoa lortzeko. Bestelako modu bat sortu behar zen liberalak eta kontserbatzaileak boterean txandatzeko, indarra baliatu gabe. Antonio Cánovas del Castillo politikari kontserbatzailea izan zen Errestaurazio sistema politikoa sortzaile nagusia eta arazo horri irtenbidea aurkitu ziona. Espainiako monarkiaren aldeko jarraitzaile guztiak alderdi politikotik banatuta zeuden –liberalak eta kontserbatzaileak– eta horietako bat gobernuan egon ondoren, bestea izan behar zen derrigorrez boterera heldu behar zena. Sistema hori *turno* edo txandakatze politikoa izenarekin ezagutzen zen. Modu horretan lortu zen alderdi biek jakitea bakoitzaren txanda helduko zela indarra erabili gabe. Baina, hala ere, bazegoen beste arrisku bat: boterean zegoen alderdia bertan jarraitzea nahi izatea eta ez



Angel Allendesalazar. Gernikar jatorriko monarkiko liberal ezaguna, Gorteetan diputatua ere izandakoa (Gernikazarra bilduma)



Teodoro Arana Belaustegui, Arana-ko Kondea. Gernika-Lumoko karlista ezaguna eta ospetsua. Gorteetan diputatua eta senataria izan zen eta bere alderdiko agintaria urte askotan (Gernikazarra bilduma)

uztea beste alderdiari bere txanda hartzea. Nola konpontzen zen arazo hori? Gobernuak boterea noiz utzi behar zuen erabakitzeko eskubidea Erregeari emanda. Uste izatekoa zen Erregea alderdi politikoen alderdikierietatik at zegoela eta Espainiarentzat egokiena zena baino ez zuela bilatzen. Beraz, teorikoki interes politiko pertsonalik ez izatean, bera zen pertsona inpartzialena horierabakitzeko. Gobernu baten agintaldia krisian sartzen zenean –gehienetan alderdi barnean banaketa ematean eta legeak onartu ezinik geratzean– Erregeak gobernu aldatzeko agindua ematen zuen eta beste alderdiko buruzagi nagusienari deitzen zion gobernu eratzeko.

Berrezarkuntzako monarkia, garaiko ideologia liberalari jarraikiz eta erregearen boterea murrizte aldera, parlamentarioa zen. Hau da, Erregeak aukeratutako gobernuak parlamentuaren oniritzia behar zuen erabakiak eta neurriak martxan jartzeko. Beraz, gobernu berriak egin beharreko lehenengolana neurriko gorteak eratzzea zen, eraginkorra izan nahi bazuen, behintzat. Horren ondorioz, gobernuak hauteskundeetan bere esku zituen mekanismo guztiak erabiliz emaitza egokiak lortu behar zituen; hau da, irabazi egin behar zuen. Hauteskundeak “egiteko” modu horrek oso ondo funtzionatu zuen Errestaurazio-garaian –XX. mendeko bigarren hamarkadara arte, behintzat– zeren kontserbatzaileen ostean, liberalek irabazten baitzuten beti, eta alderantziz. Beraz, gobernuak eratzeko ematen zen prozedura goitik beherakoa zen, ez demokrazian ematen den kontrako norabidekoa.

Era horretako hauteskundeetan hautagaiak eta herri edo eskualdeko politikariek lehen mailako garrantzia eta lana izaten zuten. Gobernuak bazituen zenbait modu hautesleengan eragina izateko, baina erabil zituzkeen faldututuek, inposizioak edo indarkeriak ez zuten beti bermatzen emaitza onak izatea, gizartearen aurkakotasuna sor dezakeelako. Horregatik, politikari horien parte hartzea eta laguntza behar-beharrezkoa zen nahi ziren emaitzak lortzeko, beraiek "kontrolatzen" zituztelako bere hauteskunde-barrutiak. Bere esku izaten ziren edozein herritan eman zitezkeen emaitzak; bazekiten nola lortu hautagai batek irabaztea hautesleen laguntzarekin edo laguntzarik gabe ere. Pertsonaia horiek gaur egun ere oso ezaguna den hitz batekin definitzen ziren: kazikeak.

Kontzeptu horrek oso prentsa txarra zuen, gaur egun bezala. Normalean ustelkeria, faldututua eta inposizioarekin lotzen da, baita boterea norberaren interesen alde erabiltzearekin ere. Baina aztertzen ari garen garaian "kazikismoak" edo jauntxokeriak bestelako ezaugarriak ere bazituen. Soilik aipatutako ezaugarriak baliatuz eta gizartea kontra izanik, ez da egokia botere hori denbora luzean mantenduko zutela pentsatzea. Horrek ez du esan nahi boterea indartzeko orduan kazikeek askotan modu horretako portaerak ez zituztenik, baina ez ziren gehien erabilitako prozedurak. Hala ere, XIX. mendean azkenalditik intelektual, idazle eta kazetari askok ezaugarri horiek nabarmendu zituztenez, kazikismoaren nortasunaren muina oinarri horiek zirela pentsatu izan da. Baina ideia horietaz zenbait nabardura egin daitezke, adibidez, Gernika-Lumon izandakoak aztertzen badira. Era horretako praktiken adibideak ez dira ugariak, beraz, ohikoa ez dena ezin da fenomeno guztiaren ezaugarri bakar bezala kontsideratu.

Gernika inguruan 1876tik 1923ra bitartean eginiko hauteskundeak bere osotasunean aztertzen badira, emaitzen faldututueen zenbait adibide aurkituko ditugu, baina ez dira oso arruntak. Adibide argienak aurkeztu aurretik, zenbait azalpen eman behar dira erabilitako faldututuz praktikak eta beraiek egiteko zegoen erraztasuna ulertzeko. Garai hartan botoa ez zen sekretua, gaur bezala. Legeak hauteskundeko zenbait detaile garrantzitsu ez zehazteak egoera hori ahalbidetzen zuen. Ezaugarri garrantzitsu bat boto-txartelena da. Ez zegoen txartel modelo estandarizaturik eta denentzat berdina, eta ez zen gutun-azaletan sartzen, gaur egun gertatzen den bezala. Hautagai bakoitzak bere boto-txartelak inprimatzen zituen eta bere jarraitzaileen artean banatu. Hautesleek orri batean bere aukera idazten zuen eta boto bezala erabili. Beraz, hauteskunde-mahaietan zegoen edozeinek bere aldeko botoen kontrola eraman dezakeen oso erraz boto-txartelentzako kasu eginez soilik. Botoa nork ematen zion jakin dezakeen, berak eta bere aurkariak zenbat zituen, eta aipatu dugunez, aukera izanez gero, botoa aldatu ere emaitza egokia lortzeko. Gainera, hautestontzia edozein kuxa, pitxer edo ontzi izen zitezkeen, eta zarratuta egotea ere ez zen beharrezkoa. Egoera horrek kontrako botoak kendu eta aldekoengatik ordezkatzeari ahalbidetzen zuen erraztasun handiz. Hautesleek identitate agiritik ez zuten ere, bere ordezkariak pertsona batzuk joan zitezkeen hauteskunde-mahaiaren presidenteari oniritziarekin-benetako hauteslea aurkeztu orduko botoa emateko edo abstenitu ziren hautesleen izenean zenbait boto sartuzeko. Hala ere, denborarekin praktika horiek

desagertzen joan ziren. Marjinalak izatera pasatu ziren, behintzat, alderdi desberdinetako ordezkariak mahian egotean, zailagoa zelako era horretako manipulazioak egitea inpunitate osoz.

Bazegoen emaitzak faltasutzeko beste modu bat, hotzes, hauteskunde-aktetan zuzen-zuzenean nahi zen emaitza jartzea. Gernika inguruan era horretako praktiken adibide argia dugu. Izatez, aztertzaren ari garen herrian ez zen eman, alboan zeuden Arratzu, Nabarniz edo, besteak beste, Muxikan bai, ostera. 1881 urteko hauteskunde orokorretan, Angel Allendesalazar hautagai liberala eta abizen bereko Pedro hautagai karlista aurrez aurre aurkeztu ziren. Hautagai bakoitzak bazekien zenbat boto zituen ziurtagarri bere jarraitzaileen artean eta emaitza oso justua izango zela argi zegoen. Horregatik, aipatutako herrietako emaitzak aldatuz, hauteskunde-barruti osoko emaitza alde batera edo bestera eramatea lortu zitekeen boto kopurutzukia manipulatu. Angelek zenbait hauteslekutan bere jarraitzaileak baino ez egotea lortu zuen, bere asmoa irabaztea baino ez baitzen. Horretan gobernuaren laguntza osoa izan zuen karlisten indarra gutxitzeko. Hautesleak botoa ematen bana-banan sartzea derrigortu zuten eta hauteslekuaren barruan gertatzen zena ez zuten ikusten uzten. Azkenik, zenbaketa publikorik gabe eta inoialako kanpo-kontrolik gabe egiten zen, eta mahaiko presidentek eta beste kideek bere interesetarako egokia zen emaitza jarri zuten aktetan. Beraz, modu horretan, Angelek irabazi egin zuen, ehun boto-oren aldearekin baino izan ez bazen ere.

Hala ere, era horretako faltasutzeak ez ziren arruntak izan. Gernika-Lumon, behintzat, ez zen horrelakorik eman hurrengo urteetan. Kasu batzuetan zenbait boto-txartel gehiago sartu zirela salatu zen, baina hori ere ez zen arrunta. Kazikeek beste era batzuetako medioak zitu zituzten botoak lortzeko: Bizkaian oso ezaguna izan zen botoak erostea. Estatuko beste leku batzuetan ere erabili zen prozedura hori, baina Bizkaian beste inon baino indar handiago hartu zuen. Horren arrazoia Bizkaiko politikari askoren aberastasunean datza. XIX. mendearen azken herenean Bilbo inguruan eta Enkarterrietan zeuden meategiak eta fabrika handiek probintziako burges eta merkataria asko aberastu zuten. Industriari horietako askok 1890 urtetik aurrera politikan era zuzenean parte hartzea erabaki zuten, Madril politikako ekonomiko egokiak lortzeko asmoz. Baina Madrileren diputatu bezala heltzeko, lehenik hautesle bakoitzak behar zituzten. Hori lortzeko, ondasun izugarriak erabili zituzten, eta botoak erostea beharrezkoa bazen, erosi eta kitzo!

Gernikako hauteskunde-barrutian Juan Tomas Gandarias izan zen industriari eta politikari horien buru. Portugaletekoa jaiotzez, baina bere aita Pedro Pascual, arratzuarra zen. Meatzaria zen eta diru asko egin zuen burdina saltzen. Gainera, Urdaibai inguruan baserri askoren jabe ere bazen, bereziki Arratzu aldean. Juan Tomas-ek bere aitaren ondasunak izugarri gehitu zituen eta XX. mendearen hasieran Estatu mailako kapitalista garrantzitsuenen artean jarri zen. Bizkaiko eta beste probintzia batzuetako meatzeak aparte, siderurgia, banketxeetan, metalurgian, garraioetan, argindar sorketan, eta abarretan zituen diruak inbertiturik. Horren aberatasu izanik, ulertzekoa da helburu politikoak lortzeko dirua gastatzea ez izatea arazo berarentzat.

Aberastasan handi horien testuinguruan ulertu behar da Bizkaian eman zen botoen erosketa handia. Hala ere, sarritan, botoaren erosketarekin bi egoera desberdin nahasten dira. Alde batetik, gauza arrunta zen hautagaiak bere hautesleei zerbait "oparitzea", botoa ematean izaten zituzten arazoengatik eskerrak emateko. Normalean ardoa, bazkaria edo tabakoa izaten zen opari erabiliena. Gaur egunetik begiratu eta arraroa iruditu arren, aztertzen ari garen garaian komunikabideak ez ziren onak, eta ondorioz, hauteslekura joatea ez zen askotan oso eroso izaten –urrunetik oinez joan beharra, eguraldi txarra, etab.–. Beraz, hautagaiak hauteslea "sartu" egiten zuten hartutako "nekeak zirela eta". Baina egoera horretaz aparte, askotan botoen salerosketa garbia ematen zen. Ez zen oparia edo antzekorik izaten, boto baten truke dirua ematea baiziki; transakzio ekonomiko hutsa.

Praktika horren adibide ugari daude Bizkaian, eta Gernika-Lumo ez zen salbuespena izan. Dirua erabiltzen zuten politikarien aurkariak prentsan salatzen zuten erabilera hori eta irakurlearen arreta erakartzeko, diru kantitate handiak aipatzen zituzten. Botoen salerosketa ematen zela argi dago, baita Gernika-Lumon ere. Zenbait artikulutan azaltzen da nola ematen zen salerosketa. Hautagaiak agenteak zituzten herrietan era horretako "lanak" egiteko. Hauteskundeak parekatuak zeudenean eta beste era batean botoak lortu ezin zirenean, salerosketari ekiten zitzaion. Inoiz herri guztiko botoak erosi zirela aipatzen da. Baina aruntagoa zentzualdean eta bakarka joatea agentearengana diru eske. Orduan, prezioa erabakitzeko enkantea hasten zen. Botoen prezioa enkante bidezko prozedura horrekin finkatzean, prezioa aldatu egiten zen. Hautesle batzuek azkeneko momentura arte itxaroten zuten diru gehiago lortzeko asmoz. Beraien botoa askoz ere beharrezkoago zenez, gehiago irabaziko zutela uste zuten. Estrategia horrek arrisku handia zuen: hautagai bat aukerarik ez zuelako erretiratzen bazen, enkantea bukatu egiten zen eta dirua desagertu. Ordainketa egiten zuenak, orduan, arazo gabe irabaziko zuten. Gernikako hauteskunde-barrutian botoen erosketen lehenengo berriak 1893 urtekoak dira. Urte horretan 100 pezeta ordaintzera heldu zela aipatzen zen, baina segurenik gutxiago izango zen prezio arruntena. 1896 urteko hauteskunde orokorretan, Gandarias aurkezten zen lehenengoetan, 50 pezetan ere ordaindu ziren zenbait boto. Urte horretatik aurrera, hauteskunde borrokatuak zeudenean –bereziki Madrileko parlamenturako zirenean–, dirua erabiltzea gauza arrunt bilakatu zen, behintzat XX. mendearen bigarren hamarkada bitartean. 1907 eta 1910 urteetako Gandarias eta barrutiko katolikoen arteko hauteskunde borrokatu haietan, atzera berriro zabaldu ziren botoen erosketen zurrumurruak.

Politikari horiek diru asko izan arren, argi dago inori ez zaiola gustatzen ordaintzea, beste era batean lortzeko modurik izanez gero. Beraz, ez da pentsatu behar dirua hauteskunde-barrutiko leku eta hautesle guztietara heltzen zenik bestetik. Botoak beste era batera lortu ezin zirenean baina ez zen dirua erabiltzen. Izan ere, bazeuden beste mekanismo batzuk botoak lortzeko, dirua erabili gabe. Mekanismo hauek botoa ematera derrigortzea edota indarkeria erabiltzea ziren. Askotan, hautagaien eta bere alde lan egiten zutenen eta hautesle askoren artean dependentzia edo menpekotasun ekonomikoak izaten ziren. Arruntena, baserriaren jabearen eta bere



Gernika-Lumoko elite politikoak (Gernikazarra bilduma)



Gernika-Lumoko propaganda ekitaldi karlista batetan parte hartutako Comunion Tradicionalista-ko Euzkal Herriko zenbait agintari (Gernikazarra bilduma)



Lumoko udalean Manuel Allendesalazar politikari monarkiko ospetsuari eginiko arrera. 1920 eta 1922 urteen bitartean eginiko argazkia (J.A. Arana Martija bilduma)

errentarien artean ematen zena zen. Maizterrek bazekiten errentan zuten baserrian jarrait zeko jabearekiko harremanak onak izatea garrantzitsua zela. Horregatik, jabea politikan sartzen zenean, haien aldeko botoa ematea "komenigarria" izaten zen, bereziki botoa sekretua ez zenean. Pentzatzeko da kontrako botoa emanda, jabeek neurriak hartuko zituztela. Beraz, jabeak noren alde egingo zuen jakinda, maizterrek botoa nori emango zion jakitea erraza zen. Baina ez dirudi hori automatikoki gertatzen zenik. Hauteskundea oso borrokatua eta irabazlea ziurtatuta ez zegoenean, zenbait jabek zuzenki behartzen zituzten maizterrek botoa hautagai jakinari ematera. Aurkitu izan dira zenbait gutun eta berri horrelako presioak egiten zirela frogatzen dutenak:

Sabemos también que han recibido una carta de cierta persona residente en Madrid, que tiene muchas fincas en aquel distrito, y con ella andan atemorizando á los inquilinos para que el próximo domingo voten a determinada candidatura, con amenazas de despedirlos de los caseríos y cosas por el estilo (*El Basco*, 1890-XII-5).

Egoera bera ematen zen industrian lan egiten zuten langileen artean. Ez zen ideia egokia izango jabeen aurka egitea, lanean jarraituko bazuten. Juan Tomas Gandarias politikari monarkikoa zen eta Gernika-Lumoko industrializazioaren bult zatzaila nagusia. Herriko langileek, beraz, bere aldeko botoa emateko jarrera izango bide zuten. Lehenago aipatu dugun moduan, hemen ere hauteskundeak lehiatuak zirenean eta irabazteko edozein boto beharrezkoa zenean, langileak lana mantentzearen, botoa ematera behartuta izaten ziren. Praktika horien zenbait adibide aurkitu dira. 1919 urteko

herrialdeko hauteskundeetan, monarkikoen “Joyería y Platería” lantegiko mandatugileei gurasoen haien alde botatzeko eskatu zieten, lana izaten jarraitu nahi bazuten, behintzat. Tren geltokiko lantegian ere langile bat kaleratu zuten arrazoi honengatik: « *según su propia declaración, unos días antes de las elecciones le exigieron que su padre y hermanos diesen su voto y trabajarán la candidatura de la Liga*». Hauteskunde horietan, Mungian hauteskunde-kutxa bat apurtu zuten hauteskundeak errepika zitezten. Prentsan aipatzen zen Talleres de Guernica-ko zenbait langile izan zirela ekintza horren erantzule.

Entre ellos figuraba un joven que en Barakaldo trabajó en las elecciones como nacionalista y al preguntarle algunos conocidos cómo se había prestado á eso, contestó que obligado, porque le había hecho saber que allí no había trabajo más que para los antinacionalistas y que si no se prestaba á lo que le mandaban se quedaría en la calle (*Euzkadí*, 1919-VII-9).

Mehatxu eta koakzio horien beste adibide bat 1890 urtekoa da, eta hurrengo testuan argi geratuko da zein zen langile askok izaten zuten egoera hauteskunde borrokatuen garaian.

A los empleados del ferrocarril de Amorevieta á Guernica y Lumo se les exigió sus votos y los de sus respectivos padres, hijos y hermanos; lo propio se hizo con los subalternos de las Administraciones Centrales de Madrid, y la misma orden se hizo extensiva á los peatones y demás empleados de Correos, habiéndose descolgado por aquí hasta operarios de las obras del puerto de Bilbao.

Los numerosos obreros del soberbio hospital en construcción fueron colocados en la dura alternativa de ó votar la candidatura liberal ó ser despedidos del trabajo, y por el mismo contundente dilema se convencieron de las excelencias del liberalismo los camineros y empleados en la Diputación (*El Basco*, 1890-XII-17).

Hala ere, praktika horien adibideak aurkeztu ondoren, zenbaterainoko garrantzia izan zuten aztertu behar da eta, nola ez, ikusi denbora luzean zehar erabili ziren. Ez dugu pentsatu behar behartze horretan oinarritzen zituztela kazikeek garaipen elektoralak. Modu horretan lortzen zituzten botoak ez ziren horren ugari, gainera. Bizkaian zegoen egoera ez zen Estatuko beste nekazar probintzietakoa bezalakoa. Hemen ez zeuden hango lurjabe handiak, “menpean” laborari asko zituztenak. Orokorrean, lurjabeak zenbait herritan sakabanaturiko baserrien jabe ziren. Gandariasen aitaren kasuan, adibidez, 17 etxebizitzek jabe zen Arratzen, baina beste herri batzuetan ez zuen jabetza askorik. Pentatzekoa da Arratzuko udalean eragin handia izango zuela maizterren botoa, baina hauteskunde-barruti osoan ez horrenbeste. Gernika-Lumoko industriako langileen artean ere eragin handia izango zuten, eta herri mailan guztiz erabakigarriak izango ziren boto haiek. Baina ez da pentatsu behar boto guztiak monarkikoarenak zirenik. Izatez, hurrengo atalean aztertuko dugun bezala, beste alderdi politikoek –karlistak eta abertzaleak– boto ugari lortzen zituzten. Boto horietatik asko langileenak ziren. Beraz, dependentzia ekonomikoa ere ez zen horren eraginkorra herrian, hurrengo testuan argi adierazten den bezala:

Aspaldian uri honetan abertzaletasuna estaldua zeukan jauntxu-eskuak. Bañan orain, lan-olak zabaldu diran lez, baita ere batera dijua euzko-gogua azkaten. Ordu onian uste dot ipiñi dirala lan-ola onek (*Euzkadi*, 1917-II-28).

Orain arte, faltsutzeak eta inposizioak kazikeen boterean zuen eragina aztertu dugu, baina ez da oso logikoa pentsatzea faktore horietan soilik oinarritzen zela haien indarra eta iraupena. Faltsutzeak eta inposizioak modu zabalean erabiltzeak gizartea kazikeen kontra jarri zezakeen. Beraz, kazikeak gizartearen nolabaiteko onarpena izateko bestelako ezaugarri batzuk behar zituen. Segidan aztertuko diren faktore biek, Gernika inguruko politikari monarkikoek izan zuten boterea ulertzen lagunduko digute.

Gernika inguruan Allendesalazar familia eta, geroago, Juan Tomas Gandarias izan ziren politikari monarkiko garrantzitsuenak. Errestaurazio-garaiaren hasieran Allendesalazartarrak izan ziren botere politikoa zutenak. 1876 urtean Manuel, Montefuerte-ko kontea, Bizkaiko senatari aukeratu zuten. Hurrengo urtean, bizi bitarteko senatari izendatu zuten. Angel bere semea, monarkiko foralista eta liberala, 1881 eta 1884 urteetako hauteskunde orokorretan Gernikako barrutiko Gorteetako diputatua izan zen. Bere anaia Manuel, ibilbide politiko luzekoa (1884-1893) –zenbait alditan ministro, eta 1919 urtean Ministroen Kontseiluko presidentea ere– Markinako diputatua izan zen. Angelen heriotza goiztiarraren ostean (1885), agerian jarri zen berriro familia honen indarra: Angelek utzitako lekua bete zuena Luis Landecho arkitektoa izan zen; haren arrebarekin ezkondu zegoen. 1885 eta 1893 urteen bitartean egon zen Madrilen Gernikako barrutia ordezkatzeko.

Allendesalazartarren ostean, 1896 urtetik aurrera, Juan Tomas Gandarias izan zen Gernikako diputatua Madrilen. Aurrekoek botere handia zuten, baina meatzari eta industrialari aberatsak politikan parte hartzen hasi zirenean, ezin izan zuten mantendu denbora luzeagoz lehen maila bera. Orduan, Gandariasen garaia hasi zen eta oso argi utzi zuen nor zen barrutiko “jabea”: 1896tik 1915era bitartean, bera izan zen barrutiaren ordezkaria Madrilen. Azkeneko urtetik aurrera bizi bitarteko senatari izendatu zuten. Argi dago, beraz, ibilbide luzea izan zuela politikan.

Iraupen horren arrazoiak bilatzeko, gaur egungo ikerketa historiko gehienek faktore bat aipatu dute: “klientelismoa”. Kontzeptu hori antropologiaren mundutik pasatu da Berrezarkuntza-garaiko politikaren ikerketara eta oso arrakasta handia izan du. Bere oinarritzko definizioa da botere, estatus eta aberastasun desberdina duten alde bien ondasun eta zerbitzuak trukatzeko. Nagusi eta bezeroen arteko harremana da. Adibidez, bigarrenaren fideltasun eta botoen truke, lehenak besteak behar dituen mesedeak –edo behar duenean horiek izateko aukera– edo kudeaketak eskaintzen dizkio. Mesedeak bi eratakoak izan zitezkeen: pribatuak eta publikoak.

Lehenengo kasuan, izenak argi adierazten duen bezala, pertsona bati edo talde zehatz bati eta haiei baino ez eginiko mesedeak dira. Garai hartan arrunta zen kazikeei laguntzea eskatzea norbaitek lana behar zuenean, erakundeek eskaera bati erantzun berezia eman behar ziotenean, justizian arazoak

zeudenean, oposaketa batean parte hartu zean... Eta suposatzen zen da nagusiak «lagunei» –hitza hori erabiltzen zen garai hartan– laguntza emango ziela, ahal zuten neurrian. Eta, jakina, mesedea jasotzen zutenak bere alde lan egingo zuten hauteskundeetan, laguntza hori eskertuz. Mesedeak zelakoak izango ziren kontuan hartuta, logikoa da pentsatzea ez egotea horrelako mesederik mundu guztiarentzat; kazikearen inguruko hurbilenak bakarrik jasoko zuten laguntza hori, jakina. Gandariasek, industrialari eta meatzari handia izan arren, ezin ziren hautesle guztiei lana eskaini, ezta erakundeetatik zerbait lortu nahi zutenei ere. Beraz, zenbat eta hurbilago egon “hautatutako” talde horretatik, fideltasun politikoa handiagoa izango zen.

Esan dugu mesedeak ez zirela denontzat egoten; hortaz, nola lortzen zuten kazikeek boterea indartzea eskualde zabaletan? Mesede publikoak eginez, jakina, hau da, gizatalde oso bati on egiten zioten kudeaketak eginez. Garai hartan, politikariek bere barrutiko interesak defendatzen zituzten Gorteetan eta Espainiako gobernuaren aurrean. Eta politikariek barrutiarentzat zenbat eta hobekuntza eta inbertsio gehiago lortu, orduan eta botere handiagoa lortzen zuten. Berrezarkuntza-garaian, estatu modernoaren eraketa eta funtzionamendua hasierriak ziren. Ez zengertatzen gaur egun arruntagoa dena, hau da, erakundeek bere kabuz aztertzea zer den beharrezkoa gizartearen garapenerako eta lanean hastea. Garai hartan, eskualdeetatik presionatu behar zen estatua, honek zituen ondasun eta errekurso eskasak nahi zuten lekura bideratuz. Beraz, portu baten berri zelanak lortzea, komunikazio bide berriak egitea, epitegi berriak zabaltzea, militarren kuartelak herritik alde egitea eta horrelako hobekuntza mota zabalak lortuz, “lan” egin behar zen gobernuaren aurrean. Jende asko baloratzen zuten kazikeek kudeaketa horiek bide onera eramateko zuten ahalmena. Hortaz, botoa kazikeei ematen zien, eskualderako hobe zelakoan. Hautesleek bazekiten zein politikaririk lordezakeen herrirako edo eskualderako hobekuntza gehiago. Hori ikusita, argi zeukaten botoa nori eman.

Era horretako lanetan Allendesalazartarrak oso iaioak izan ziren. Familia hori Gernikako eskualdean zenbait etxe, baserri eta lurren jabe zen, eta pentsatzekoa da horretan oinarritzen zutela zeukaten indar politikoa. Baina aktibo politiko garrantzitsuena Madrilen zituzten harremanak ziren. XIX. mendean zehar, Allendesalazartarren aurrekoek monarkiaren inguruko zenbait kargu garrantzitsu bete zituzten. Aztertzen ari garen garaiko familia-kideak gobernuaren inguruko harremanez ere baliatu ziren. Angel Allendesalazar izan zen mota horretako lan handiena egin zuena. Gernika-Lumoren kasuan, erreka kanalizazioa eta trenbidea egiteko beharrezko baimenak lortuz kudeaketak egiten lehena izan zen. Angel hiltzen, Landeoko koinatuak lortu zuten proiektu bi horiek gauzatzeko. Bestalde, Angelek berak ere bultzatu zuten Espainiako gobernuak Gernika eta Lumo herriak batzea onartzea, 1882 urtean. Eskualdeko jendeak estima handia zuten familia hori, egindako lan horiengatik guztiengatik. Askorentzat beraiek ziren eskualdeko garapena lortzeko beharrezkoak ziren hobekuntzak lortzeko modu egokiena. Egoera hori argi geratu zen Angel hil zenean, 1885 urtean. Bere ibilbide politikoa aipatzen, hil eta lehenengo urteurrenean, honela goraiatu zen bere lana:

No podrá olvidar le, no, Guernica, porque á él debe su engrandecimiento; multitud de grandes beneficios, amor entrañable, mil veces demostrado con hechos que no son palabras, y no de otro modo podrá responderlo y la noble villa á los bienes que de su hijo ha recibido (*El Noticiero Bilbaíno*, 1886-III-18).


Gandariasek ere antzeko lanak egin zituen, hauteskunde-kanpainan argitaratutako hurrengo testuan azpimarratzen bezala:

No se cansen de todos modos nuestros enemigos y convénganse que la inmensa mayoría de electores se halla dispuesta á votar al señor Gandarias por gratitud y haciendo caso omiso de sus ideas políticas, ellos votarán no solo los dinásticos, sino muchísimos carlistas y todos los que anteponen el bien del país á toda otra clase de intereses y aspiraciones; y de este modo le darán una prueba de verdadero afecto porque les consta que el señor Gandarias ha sido y sigue siendo el alma y el factor principal de todas las empresas y proyectos realizados en beneficio de esta región; entre otras que pudiera citar se halla el canal [Gernikako erreka], que gracias á su intervención y su influencia se consiguió la subvención del Estado, así como también á él se debe la construcción de los muelles en el puerto de Bermeo (*El Noticiero Bilbaíno*, 1907-IV-18).


Hala ere, eta kazikeen boterearen ezaugarriak alde batera utzi aurretik, beste faktore bat ere aztertuko dugu. Frogatzen oso zaila den arren, hautesle askok beraiei boto ematea aukera politiko egokiena zela pentsa zezaketen. Ez da ahaztu behar 1876 urtean bukatu zela azken guda karlista eta, artean, askok fresko zituztela urte horietako ondorioak. Beraz, eta hipotesi bezala, esan behar da askok monarkikoak moderazio eta bakearen ordezkari ikustea eta erabakitzea botoa beraiei ematea. Karlistek, oster, diskurtsu erradikala zeukaten, eta indarrez altxatuko zirelako etengabeko mehatxuak askoren gaitzespena jasotzen zuten. Guda karlista urrun zelarik ere, monarkikoek moderazioa ordezkatzen jarraitzen zuten. Espainoltasuna askok begi onez ikusten zuten, katolikotasun antiliberala eta abertzaleztasuna indartu zirenean, batik bat.

Azken finean, politikari monarkikoen boterea faktore anitzetako ondorioa zen eta ikuspuntu zabal horrek laguntzen gaitu ulertzen Gandariasek urte luzeetan izan zuten babesa. Hurrengo grafikoak dira horren adierazle. Lehenengoan hauteskunde-barrutiko datuak aurkezten dira eta, bigarren, Gernika-Lumokoak. Datuak 1910 urtera baino ez dira heltzen, zeren azkeneko hauteskundeetan automatikoki aukeratua izan baitzen: aukeratu beharreko postuak betetzeko zenbaki bereko hautagaiak aurkezten baziren, automatikoki izendatuak izaten ziren. Hori gertatu zitzaion Gandariasi 1914 urtean. Horregatik aurkezten dira hauteskunde horren aurreko emaitzak soilik. Grafiko bietan argi ikusten da hautesleen erdiak baino gehiagok bere aldeko botoa eman zutela urte luzeetan.

Juan Tomás Gandariasen boto kopurua Gernikako barrutian (1896-1910)



Juan Tomás Gandariasen boto kopurua Gernika-Lumon (1896-1910)



4.1.2. Politika "berria"

Grafiko bi horiek, Gandariasen boterea adierazteaz gain, barrutiko eta Gernika-Lumoko politikaren beste ezaugarri garrantzitsu bat uzten dute agerian. Kazikeek indar handia zuten eta urte luzeetan hauteskundeak irabazteko modua izan zuten. Baina emaitzak adierazten duten bezala, ez zuten izan hautesle guztien oniritzia, eta ez zuten haien sostengu politikoa lortu.


Huteskundearen arabera, hutesleak erdiak gutxi gorabehera, ez zuten botoa ematen. Askok abstenitu egiten ziren eta kontrako kandidaturaren bat aurkezten zenean, kazikeen indarrari muzin egin eta bertara bideratzen zituzten botoak.

Egoera horrek Bizkaiko politikaren berezitasuna uzten du agerian. Atal honen hasieran azaldu dugu Cánovas del Castillok alderdi monarkiko baten txandakatzeko ezarri zuela. Leku askotan martxan jarri zen sistema hori, baina Bizkaian bazegoen faktore bat sistema ezartzeko zaila zena: karlistek zuten indarra. Alderdi horretako ideek 1876 urtean eta ostean eragindak izaten jarraitzen zuten; hortaz, monarkikoak lan bateratua egitera behartuta egon ziren. Alderdi baten banatuz gero, huteskundeak galtzeko arrisku handia zuten, botoak ere banatu behar zituztelako. Horregatik, karlisten indarra murrizteko, beharrezkoa zen denen batasuna, modu horretan soilik ziurta zezaketelako huteskundeetan irabazle izatea. Baina karlismoaren indarrak herriko politikaren beste ezaugarri garrantzitsu eta aipagarri batean izan zuten eragina. XIX. mendearen azkenaldian, alderdi horrek bizi zuen barne eraldatzearen ondorioz, Gernika-Lumon oso goiztik eman zen alderdi politiko modernoaren presentzia.

Lehenagoko kapituluetan aztertu dugu Gernika-Lumo aldaketa prozesu batean murgilduta zegoela XIX. eta XX. mendeen artean. Herriko ekonomian eta gizarte eraketan, eta baita jendearen eguneroko bizitzan ere sumatu zen aldaketa hori. Politika alorrean ere aldaketa nabarmenak ematen hasi ziren. Gizartearen berriarekin batera, arazo, eskaera eta ikuspuntu berriak zabaldu ziren biztanleetan. Eta ez zegoen horietarako konponbiderik, Berrezarkuntzaz garaiko sistema politikoak ez zuelako horretarako aukerarik uzten. Kazikeen interesak eta beharrezkoak ziren garrantzitsuenak sistema politikoan, beraiek indartzea beharrezkoa zelako politikak funtzionatzen zezan. Sistema politikoak ez zuten erantzungarri ematen jakin, eta gauzek aldatzen jarraitu zuten. Horren adierazle garbia alderdi politiko modernoaren sorrera eta zabalkundea izan zen. Gernika-Lumoko kasua ez zen salbuespena izan.

Denborak aurrera egin ahala, eta bereziki XX. mendean, alderdi horiek gaur eguneko ezaugarri guztiak hartu zituzten. Lehenik, alderdi horiek ideologia eta proiektu politikoak defendatzen zuten: monarkia tradizionala, abertzaletasuna zein ezkerreko ideia aurrerakoa. Eta ideologia horiek nahi zituzten herritarren artean zabaldu. Momentu horretara arte –normalean eta oso labor esanda– pertsona eta klase pribilegiatu edo herri eta eskualdeetako interesak defendatzen zena zen politikaren helburu nagusia. Bigarrenik, aipatutako helburuak lortzeko erakunde politiko berriak eratu ziren: alderdiak. Erakunde horiek mundu guztiari zabalduak zeuden; izan ere, jende gehiena erakartzeko baitzen helburu nagusia. XIX. mendeko politikan, ordea, oso jende gutxi zuten parte hartzen zuten, oso elitista zen. Normalean, herritarren parte hartzea huteskundeetan baino ez zen bilatzen. Hortik kanpora, elite horien esku geratzen zen politika egitea. Hirugarrenik, eta azkenik, alderdi politiko berrien ideiak zabaltzeko eta jendea erakartzeko, propaganda politikoak hasi ziren erabiltzen. Hortaz, XIX. mendeko azken hamarkadatik aurrera, propagandaren estilo modernoak hasi ziren erabiltzen: mitinak, manifestazioak eta manifes-

tuen banaketak. Fenomeno hau, bereziki, hurrengo mendearen hasieran hasi zen ematen. "Jaiak" izenez ezagutzen zen ekintza aipagarriena. Arrakasta handia izan zuten jendearen artean. Gaur eguneko Alderdi Egunaren edo Aberri Egunaren ait zindariak ziren jai haiek. Alderdi abertzaleez gain, karlistak ere hasi ziren horrelakoak antolatzen. Azken hauek, egun bakarrean egiten zituzten ekitaldi guztiak: mitinak, mezak, literatur lehiaketak, kirolak, antzerkiak... Helburua, ahal zen jende gehiena erakartzea. Gernika-Lumon antolatutakoetara, esaterako, Euskal Herri osoko jendea etorri ohi zen. Alderdi berrien beste ezaugarri bat egoitza politikoak izatea zen, jarraitzaileen sozializazio politikoa indartzeko eta propaganda errazago egiteko. Gaur egun gertatzen den bezala, alderdiko lanak bertan zuzentzen ziren. Alderdikideen arteko erlazioa ere sendotu egiten zen eta baita alderdiaren lan politikoak koordinatu ere.



Abertzaleek Gernika-Lumon 1912. urtean eginiko ekitaldi politiko baten argazkia (*Novedades*, 1912-VI-16)



1912. urteko abertzaileen ekitaldiaren beste ikuspegi bat (*Novedades*, 1912-VI-16)

Gernika-Lumon agertu zen lehenengo alderdi politiko modernoa Komunioi Tradizionalista izan zen; karlisten alderdi, alegia. Lehenagotik ere bazeuden karlistak herrian, baina ez zuten inolako erakunde egonkorrik eratu. Egoera hori 1890 urtetik aurrera zuzendu zuten. Karlistek testuinguru politiko berrietara egokitu behar izan zuten, zeukaten indarrari eutsiko bazioten. Momentu hartara arte, altxamendu militarrek egiteko baino ez zuten prestatuta. Ohiko jarduerak politikoa bigarren mailako eginkizuna zen. Baina Berrezarkuntzako sistema politikoa finkatzean eta beste altxamendu batean murgiltzeko eta irabazteko irabazteko aukeragutxi izatean, karlismoak organitzazio berria behar zuen. Eraldaketa horren lehenengo adibideen artean, Gernika-Lumokoa dugu. Bilakaera horren lehen pausuak 1891 urteko udan eman ziren, eta horrek Estatuko lehenengo adibideen artean jarri zuen herria, zenbait hiriburu handi alde batera utziz, noski. Urte horretako azarorako, egoitzaren estatutuak onartuak zeuden eta ateak zabalik; hala ere, inaugurazio ofizialak 1892ko uztailera arte itxaron behar izan zuten. Egun horretan, karlismoaren Estatu eta Euskal Herri mailako agintari garrantzitsuenak etorri ziren herrira, irekiera ofiziala egiteko.

Agintari taldea egoitzara joan zen lehenik musika banda eta guzti. Gero, Gernikako Arbola ikustera joan ziren. 800 bazkaltiarrentzako bazkariaren ostean, diskurtso politikoak hasi ziren. Alderdi buru zen Cerralbo-ko markesaren hitzak aipatuko ditugu, karlismoak jorratu nahi zituen bide berrien adierazle,

No vengo á predicar la guerra, pero sí á repetir que estamos en ocasión y deber de luchar hoy pacíficamente, de constituirnos, de organizarnos para que se nos halle dispuestos y fuertes cuando á Dios sea servido ó se le ofenda, para luchar y morir por su divina causa, y por la Patria [...].

Para asegurar [el triunfo de Nuestra Bandera], nos organizamos y hemos entrado en la actividad de la lucha política (El Basco, 1892-VII-5).

Karlismoaren afiliazio daturik ez dugu aurkitu eta, ondorioz, ez dago esaterik erakunde berriaren indarra zein izan zen. Hala ere, herriko historia osotasunean ikusita, argi dago handia izan zela karlismoak herrian izan zuten garrantzia, Guda Zibila bukatu arte, behintzat. XX. mendearen hasiera arte, karlismoa izan zen herriko alderdi eratuena, baina mende berriaren lehen

nengo hamarkadan egoera aldatu egin zen, EAJ alderdiak eratzeko lehenengo pausuak herrian eman zituzten. Herriko batzokia zabaltzeko lehenengo bilerak 1907 urteko ekainean hasi ziren egiten. Momentu hartarako 108 bazkide zeuden eta 1908ko otsailean 52 emakume gazte ere gehitu zituzten. Beraz, apirilean egoitza inauguratu zenerako, bazkide kopuru aipagarria zuen herriko batzokiak. Egun horretan alderdikideek meza izan zuten Santa Maria elizan, eta egoitza zoko kideek osatutako koroak abestu zuten bertan. Gero, herriko artzapezak lokala eta ikurrina bedeinkatu zituen. 180 bazkaltzar izan zituen banketaren ostean, alderdiko zenbait buruzagi eta jarraitzaile etorri ziren Bilbotik herrira. Erromeriaren ostean, herriko antzokian mitina, antzokia eta musika kontzertua eman zuten.

Alderdi politiko modernoak herrira etortzeko ez zituzten ezabatu garai hartan politikak zituzten ezaugarriak. Artean kazikismoak indartu jarraitzen zuten herrian eta barrutian. Juan Tomas Gandariasen hauteskunde-emaitzak dira horren lekuko. Baina erakunde politiko berri horiek indartzeko eta jardura propagandistikoa zabaltzeko, herrian zegoen politika "egiteko" modua eraldatu zuten. Orain bazegoen beste modu bat arazoak konpontzeko eta ideiak plazaratzeko, kazikearengana joateaz gain, jakina. Berrikuntza horiek, logikoa denez, eragin handia izan zuten testuinguru politikoan. XX. mendean, gero eta garbiago zegoen kazikearen boterearen oinarrian zeuden ezaugarriez aparte, monarkikoek bestelako medio politikoetara jo behar zutelako botereari eusteko. Monarkikoek jorratu zuten bidea, bada, antolaketarena izan zen.

Lehen Mundu Guda bukatzeko zegoenean, eta aurrerago aztertu den bezala, abertzaleek lehenengo garaipen elektoralak lortu zituzten. Bizkaiko monarkikoek eta baita herrikoek ere neurriak hartu beharra ikusi zuten egoera horren aurrean. Erakunde politiko berria sortzea izan zen, besteak beste, hartutako bidea. 1919ko ekainean, herriko dozena bat gazte monarkikok bere esku hartu zuten berriaz lan horien erantzukizuna. Monarkiko eta abertzaleen aurkako sektore politiko eskuindar guztiak bat egin zituzten egoitza sortu zuten eta, politika egiteko beste era batzuekin alderatu gabe, propaganda lan sendoa egitea erabaki zuten. Gernika-Lumo izan zen, halaber, berrikuntza horren adibide argia. 1919 urtean, gazte monarkikoak, Gandariasen laguntza ekonomikoarekin, herriko Centro Vasco-Español zabaltzeko lanak egiten hasi ziren. Egoitza, prentsa arabera, oso eroso eta herriko onenen artean zegoen:

Un magnífico salón de actos que quedar á decorado ir reprochablemente; gabinete de lectura, sala de tresillo; Sala de Juntas y Secretaría política y todas las demás dependencias propias y necesarias en un Centro de esta clase, componen los diferentes departamentos de la Sociedad y todo convenientemente distribuido y con capacidad y condiciones higiénicas inmejorables (*El Pueblo Vasco*, 1919-X-16).

Egoitza zabaldu zenerako, bazkideak izugarri hazi ziren. 1919ko amaierarako, 200era heldu zen eta antolatzaileek uste zuten ehun gehiago ere lortuko zituztela. 1920 urteko urtarrilean zabaldu zituzten egoitzak ateak. Kideek harreman soziala izateaz aparte, herrian eta barrutian propaganda politikoa bideratzeko ere balio izan zuten egoitzak. Karlistekin eta abertzaleekin alderatuz, alor horretan monarkikoek egin zuten lana ez zen oso handia izan.

Hala ere, aipagarria da herriko politikaren aldaketaren adierazle delako. Betiko modu kazikistez aparte, monarkikoen ere egoera berriei egokitzeko beharra ikustea, esparru horretan eman zen bilakaeraren adierazle garbia da Berrezarkuntza-garaian.

1923tik aurreko Primo de Riveraren diktadurak eten bat suposatu zuen aztertu dugun alderdi politiko modernoaren bilakaeran. Arazo desberdinak direla eta, aipatutako hiru esparru politikoek ez zuten izan testuinguru egokia gizartean zabaltzeko eta indartzeko. Abertzaileen kasuan, diktadurak nazionalismoaren aurka harturiko neurriek alderdiaren erakunde formal guztien desagertzea ekarri zuten. Diktadoreak galarazi egin zuen Espainiako batasunaren aurkako edozein jarduerareta, nola ez, EAJren jardueran eragin handia izan zuen. Ez zen eman pertsonen inguruko errepresiorik, frankismo garaian bezala, baina batzokiak eta herriko batzordeen lan publikoa bukatu egin ziren; hala ere, alderdiko jarraitzaileen arteko harremanek jarraitu egin zuten. Karlisten kasuan, barne zatiketa izan zen alderdiaren jardueraren ezaren arrazoia. Alderdiaren sektore bat erregimen berriaren instituzioetan integratu zen, baina jatorrizko alderdiko lanak alde batera utziz. Horren ondorioz, karlismoa jardun gabeko garaian sartu zen. Azkenik, monarkikoen kasuan ere ez zen garai egokia izan erakunde lanetan aritzeko. Primo de Riveraren helburuetako bat Estatuaren krisian sartu zuen kazikismoarekin bukatzea zen. Horretarako, betiko monarkikoen boteretik urrundu zituen eta eskuineko sektore sozial berrietan oinarritutako alderdia sortu zuen. Monarkikoen beti izan zuten lotura handia botere politikoarekin. Boteretik urrundu zituenez, indarra ahuldu eta, horren ondorioz, karlismoarekin gertatu zen bezala, jardun gabeko garaian ezagutu zuten.

Alderdi horiek izan zuten testuinguru desegokiak, hala ere, ez zuten eten Gernika-Lumon eta beste leku askotan ematen ari zen politikaren modernizazio prozesua. Primo de Rivera diktadorea horren jakitun zen eta bere erregimenerako ezaugarri berrietan oinarrituriko alderdi propioa sortu zuen. Ez zen izan frankismoko alderdi bakarra bezalakoa, diktaduran ez zelako beste alderdi guztien jarduerareta galarazi, baina alderdi erregezale eta espainiarra sortu nahi zuen. Alderdi berri hori 1924 urtean sortutako Unión Patriótica izan zen eta Gernika-Lumon indar handia lortu zuen. Aztertu ditugun alderdi guztiak bezala, gizarte-sektore guztietara zabalik zegoen, egoitza propioa zuen, propaganda modu berriak erabiltzen zituen eta proiektu berezia defendatzen zuen. Proiektu horren oinarriak hauek ziren: estatuaren "berriztapena" –hau da, bizi zuen alor askotako krisiarekin bukatu–, kazikismoa suntsitzea, ordenua sozialari eustea eta, erregioen nortasuna gordez, Espainiaren batasuna bermatzea. Ideia orokor horiek eskuineko sektore politiko askoren onarpena izan zuten eta afiliazio kopuruan ikus daiteke alderdi berriaren arrakasta. Horretan asko lagundu zuen Primo de Riverak berak Gernika-Lumora egin zituen bisitak: 1926 urtean nesken eskolan lehenengo harria jarritzeko eta alderdiaren herriko egoitza inauguratuz, 1928an. Ezaugarri horiek guztiek aztertutako ditugun afiliazio datuetan sumatu zirenean. Alderdiak berak mandakoak dira eta, ondorioz, kontu handiz hartu behar dira puztuak egon daitezkeelako. Hala ere, diktadura krisian zegoenean, gizartean ondo errotu zela baieztatzen digu, artean ere kopuru altuak izateak.

Unión Patriótica-ren afiliatu kopurua Gernika-Lumon

	1924-X	1924-XII	1925-I	1925-II	1930-I
Gizonak	344				397
Emakumeak	115				366
Guztira	459	574	639	669	763

Argi dago, beraz, Primo de Riveraren diktadura ez zegoela politikak zuen bilakaeraren aurka. Izan ere, monarkiari ezaugarri politiko berriztatuak eman nahi zizkion garaira egokituzko eta horretarako herri faxistek gauzatutako zenbait proposamen aplikatzen saiatu ziren. Erregimen hau ez zen bizi ziren denboraren aurkakoa eta hau gai bitan sumatzen da: alde batetik, biztanleek politikan parte hartzeko zuten gogoia ez zutelako ahuldu, indartu baizik; bestetik, herriko emakumeak politikan sartzea bultzatu zutelako, goiko datuek argi adierazten duten bezala.

Bigarren Errepublikaren aldarrikapenak, lehenagotik sumatzen zen demokraziarako bidea era zabal batean ezartzea ahalbideratu zuen. Demokrazia berri horretan ideologiek, biztanleriaren nahiak eta ikuspuntuak hauteskunderen bidez bideratuzko eta alderdi politiko modernoek garrantzia handia lortu zuten. Kazikismoaren zenbait ezaugarri iraun arren, berrikuntza nagusitu egin ziren. Politikaren berrikuntza eta gizartean zabaltzea, beste ezaugarri batean sumatu zen: emakumeen parte hartze zuzena politikaren munduan. XX. mendearen hastapenetan emakumeak present izan ziren zenbait egintza politikotan, baina politika gizonen esparrua zen. Emakumearen lana esfera pribatura mugatuta geratu arren, horrek ez du esan nahi garai hartako politikariek emakumeen garrantzia ikusten ez zutenik. Alderdi katoliko guztientzat, gizartearen ordenu soziala indartuzko, garrantzia handiko lana betetzen zuen emakumeak: generazio berriak era egokian eta kristau baloreetan hezitzea. Emakumeek umeei ematen zien hezkuntza desegokia bazen, gizarte guztian izango zuen eragina. Horregatik, gizartea kristau baloreetan oinarritzea nahi zutenek asko baloratzen zuten haien zeregina, baina betiere familiaren barneko eginkizunetan. Hala ere, azkenik emakumei ere txanda heldu zitzaienen politikan parte hartuzko. Diktaduran eta, bereziki, Bigarren Errepublikan emakumeek politika publikora "jauzia" egin zuten eta momentu horretatik aurrera, haien parte hartzea areagotu egin zen. Ez ikusle bezala soilik, propaganda zuzenki parte hartuz eta beraientzako erakunde bereziak sortuz, baizik.

1931 urtean Errepublika aldarrikatu zenean, diktaduran motel ibili ziren erakundeek indartu egin zuten asko beren presentzia. Unión Patriótica-koek, ordea, alderantzizko prozesua bizi izan zuten: diktadurara erabat loturik egon zenez, hau bukatu eta alderdia desagertu egin zen. Hala ere, eskuindar erregizaleei jarraitu beharreko bidea erakutsi zien. Hala ere, erregimen berrian, abertzale eta karlisten indartzea izan zen egoera aipagarriena eta, ezaugarri berri bezala, sozialista eta errepublikarren sorrera Gernika-Lumon.


Abertzaleak, 1921 urtetik aurrera, alderdi bitan zeuden banatuta. Alderdiak jarraitu beharreko bidea erabakit zeko orduan, moderatu eta erradikalen arteko desadostasunak berrazaldu zituzten. 1930 urtean, ordea, sektore biak berriro bildu egin ziren EAJren barnean, testuinguru berrian bien arteko desadostasunak alde batera utzi zirelako. Barne arazoak konponduta eta Errepublikaren askatasun politikoez baliatuz, herriko abertzaleek alderdiaren erakunde guztiak berreraikit zeari ekin zioten. 1931ko maiatzean, batzokiak berriro abaldu zituen berriro ere, eta batzorde kopuruak gora egin zuen guztiz. Datu gutxi izan arren, 1931 urtetik 1934ra bitartean, 120tik berrehun baino gehiagora pasatu ziren. Aipatu dugun bezala, alderdiaren berrikuntza garrantzitsua emakumeen alorrean eman zen. 1931 urtean EAJk emakumeentzako erakunde berezia bultzatu zuen: Emakume Abertzale Batza. Gernika-Lumon arrakasta handiko erakundeak izan zen, zeren bere sorreran, 1931ko urrian, 181 emakume afiliatuta baitzeuden, baina 1934 urterako 315era heldu ziren; afiliazio kopuru handia eta emakumeak politikan zuen indarraren adierazlea. Erakunde horrek era askotako lanak burutu zituen, bereziki esparru politikoan, propagandistikoan eta emakumeen arteko gizarte harremanak indartzen. Hala ere, aipagarria da 1935 urtean emakumeentzako elkarte berezia sortu zutela: Euzko Gastetxu Batza. Umeak balore abertzale eta kristauetan hezitzea zuen helburu erakunde horrek. Hezkuntza eta sozializazio lan hori egiteko, emakumeak ziren egokienak aipatu ditugun balore kristauen barnean.

Errepublika garaian, EAJ herrian alderdi handiena eta jendetsuena izateaz aparte, herriko politikan indar politiko garrantzitsua bilakatu zen. Alderdiak 1917tik aurrera izan zituen garaipenez aparte, herrian monarkikoak izan ziren beti garaile hauteskundeetan. Bigarren Errepublikan, ordea, erregeza lehen lekua abertzaleek bete zuten. Errepublikak iraun zuen bost urteetan eman ziren hauteskunde guztietan (1931ko lehenengo biak udaletarakoak, beste guztiak orokorrak) EAJren boto kopuruak gora egin zuen etengabean. Gernika-Lumon emandako boto guztien ehuneko 40 eta 50 inguru ziren abertzaleenak. 1931ko urriko hauteskunde orokor partzialean baino ez zen eten joera hori. Hauteskunde horiek Jose Antonio Agirreren lekua nork beteko zuen hautatzeko egin ziren, honek Iruñeko postua aukeratu baitzuen, bertan ere diputatua aukeratu izan zelako. Hauteskunde hauetara abertzaleak baino ez ziren aurkeztu eta, hortaz, hauen botoa baino ez zen eman. Baina salbuespen hori alboratuz, argi dago boto emateen erdia abertzalea zela.

EAJren boto kopurua aztertu ondoren, badaugu beste egoera esanguratsua bat aipatzeko: 1933ko azaroko hauteskundeetan izan zuen gorakada nabarmena. Urte horretan emakumeei botoa emateko eskubidea eman zitzaizkien eta hor dago egoera berri horren arrazoia. 1890tik aurrera Espainian sufragiorik gabe egon arren, gizona eskubide bakoitza baino ez zuten eskubide hori. Errepublikarekin eta demokraziarekin sakondu nahi izatearekin batera, emakumeei ere eskubide hori ematea onartu zen. Aldaketa horren ondorioz, 1933ko hauteskundeko emaitzak nolakoak izango ziren ez zegoen batere argi. Jakina zen emakumea, Euskal Herrian, behintzat, oso katolikoa zela eta eskuineko alderdiei emango ziela botoa, baina ez zegoen argi norentzat izango ziren boto gehienak. Herrian EAJk emakumeen inguruan eginiko antolatze lanak

boto emaile berri horiek bere ingurura erakartzea lortu zuen, emandako hazkunde handiak adierazten zuen bezala. Hala ere, herrian zuten botoen portzentajea berean mantendu zen, aldaketa handirik eman gabe.

EAJren boto kopuruaren eta boto guztien protzentajearen bilakaera Gernika-Lumon (1931-1936)




Karlismoa izan zen Gernika-Lumoko bigarren indar politikoa. Baina abertzaleekin gertatu ez bezala, haien berrindartzea ez zen eman Errepublikan aldarrikatu bezain pronto. Hasteko, karlisten esparru ideologikoko hiru alderdi desberdinek bat zeko prozesua bukatu behar zuten. Horretan garrantzirik handia izan zuen karlisten errege-erreginen inguruan emandako egoerak. 1931eko urrian Jaime hil zen eta bere ordean, Alfonso Carlos jarri zuten. Jaimeren "erregetzan" eman ziren zatiketak konpontzeko bidea bazegoen, behintzat. Horrela, 1932ko urtarrilean hiru alderdiak batu ziren Iruñean, erlijioa eta ordena soziala iraultzaren aurrean hobeto defendatzeko asmoz.

Batasun horrek alderdiaren organizazio lanak bizkortu zituen. Gernika-Lumon, Sociedad Tradicionalistak urte askotan bere ateak zabalik edukiarren, aipatutako zatiketak ez ziren herriko karlistei lan politiko askorik egiteko aukera eman. Beraien arteko desadostasuna areagotu eta azkenean egoitza zarratzea nahi ez bazuten, behintzat. Horregatik, Errepublikako lehenengo urtean karlistek propaganda lan gutxi egin zuten, eta egin zutena, abertzaleekin batera zuten koalizioaren barnekoa izan zen. Baina 1932tik aurrera eta EAJrekin zuten harremana mingosten joan zen bitartean, organizazio eta propaganda lan handia hasi zuten herrian. Abertzaleek egin zuten bezala, aipagarriena emakumeak biltzeko egin zena izan zen. 1932 urtean herriko Asociación Benéfica de Damas Tradicionalistas edo *Margaritas* izenarekin ezagunagoa zen erakundea sortu zuten. Berrito ere emakumeak antolatzea

arrakasta handiko ekintza izan zen: 1932ko martxoan 150 *margarita* zeuden, lau urte beranduago, aldiz, 280ra heldu ziren.

Aipatu dugunez, karlismoa herriko bigarren indar politikoa izan zen, hurrengo grafikoko datuek agerian uzten duten bezala. Abertzaileen atzetik oso distantzia txikiagoa geratu zen ziren beti. Baina emaitza horiek era egokian ulertzeko beste faktore bat ulertu behar da: Errepublikaren garaian karlistak ez ziren inoiz hauteskundeetara bakarrik aurkeztu; koalizioan beti. Horregatik ez da erraza jakitea zein zen bere benetako indarra. Lizarrako Estatutuaren aldeko koalizioan hartu zuten parte EAJrekin batera eta, esan dugunez, ez dago jakiterik zein alderdik eman zizkion boto gehien kandidatek horri, ezta Gernika-Lumon ere. Hori kontuan izanik, grafikoko honetan koalizio guztiak herrian lortutako emaitzak jarri dira. Baina aurrerago aipatu dugun bezala, koalizio hori oso azkar apurtu zen alderdi biko horien arteko desadostasunak gaitzitu ezinak bihurtu zirenean, 1932tik aurrera.

Karlismoaren boto kopuruaren eta boto guztien portzentajearen bilakaera Gernika-Lumon (1931-1936)



1932tik aurrera, karlismoa eskuin espainolistaren erreferente bihurtu zen. Horretan asko lagundu zuten karlisten "erregeen" ezaugarriek: Don Jaimeren osteko Carlos Alfonso oso zaharra zen eta ondorengo gabea. Beraz, bazirudien karlisten leinua agortu zear zegoela. Horren ondorioz, karlistek bere planteamendu eskuindarrak, antiraultzaileak eta abertzaileen aurkakoak indartu zituzten, tronuaren inguruko eskakizunak bigarren maila batean jarri. Egoera horrek Alfonso XIII.aren jarraitzaileak karlisten inguruan biltzea erraztu zuen, errege hori izan zitekeelako leinu biak berriro batu zezakeena eta alderdi monarkiazale biko arteko diferentziak bukatu. 1933 eta 1936ko




1915. urtean Alfonso XIIIak Gernika-Lumo bisitatu zuen herriko lantegiak ikusteko (Gernikazarra bilduma)

hauteskunde orokorretara karlistak monarkiko horiekin batera aurkeztu ziren. Berritoki ere ez dago jakiterik zein zen sektore bakoit zaren indarra koalizio horren barnean. Bereziki, Gernika-Lumo bezalako herri batean, non monarkikoei historikoki oso indarituak izan ziren beti, karlistek bezala. Errepublikak garaian Centro Vasco-Español-ek zabalik izan zituen bere ateak, eta 1934 urtean, Unión Vascongada alderdi eskuindarren herriko atala sortu zen, halaber. Hala ere, monarkiko horiek ez zuten organizazio lanetan asko sakondu, karlistek zutenaz baliatu zirelako propaganda egiteko, eta haien esku utzi zuten lan politikoaren erantzukizun handiena.

Gernika-Lumoko Errepublikak garaiko alderdi politikoei egindako gainbegiratuarekin bukatu zeko, sozialista eta errepublikarrekin jarraitu behar dugu. Langile mugimendua aztertu dugunean aipatu dugu ezkerreko indar politikoei ez zutela herrian presentzia aipagarririk esparru sindikaletik kanpo. Ideologia eta planteamendu horien jarraitzaile zenik egongo zen, baina ez zuten inolako organizaziorik herrian sortu. Egoera hori erabat aldatu zen 1930 urtetik aurrera. Primo de Riveraren diktaduraren krisiak, eta alderdi politikoei bere lana egiteko aukera izateak eragina izan zuten herriko ezkerreko sektore politiko horien indartze prozeduran. Sasoi horretan, Euskal Herriko eta, nola ez, Gernika-Lumoko gizartea erabat aldatuta zegoen eta, lehen gertatu zen ez bezala, ezkerreko planteamenduei bere lekua lortu zuten. Herritarrek, erlijioa eta ideia kontserbatzaileek zuten monopolioa alde batera utziz, gizartea eratzeko eta arazoak bideratu zeko beste bide bat ikusi zuten alderdi horietan. Erregimen politikoaren aldaketan eta herritarrengan baino ez zuten ikusten Espainiaren krisi egoera bideratu zeko modua.

Gernika-Lumon, Errepublikar aldarrikatu aurretik, 1931ko martxoan, Zentro Errepublikarra sortzeko lehenengo bilerak egin ziren. Argi zegoen, beraz, egoitzak propioa izateko beste errepublikar zegoela herrian. Apiriletik aurrera, erregimen berriaren sektore horien organizazio lanak asko areagotu ziren. Lehenengo momentuetan sozialistek eta errepublikarrek lan bateratua egiten zuten, hori zelako modu bakarra Gernika-Lumo bezalako testuinguru desegoki batean oinarritu finkoak lortzeko. Horrela, Agrupación Republicano-Socialista sortu zuten lan bateratua bideratzeko. Badirudi koalizio horrek hirurehun jarraitzaile inguru zituela Errepublikaren lehenengo hilabeteetan. Baina sektore politiko aurrerakoi horretatik sozialistek nagusitasuna agertu nahi izan zuten. Errepublikarren planteamenduek ez zuten finkotasunik eta, aniztasunaren aurrean, bere proiektu berezia indartu zuten. Horrela, 1931. urteko irailean PSOEn herriko agrupazioa sortu zuten. Herriak planteamendu horiei lekua ezabatu zela argi egon arren, alderdi sozialistak ez zuten izan oso arrakasta handia; Gernika-Lumoko testuinguru politikoa ez zen egokiena horretarako. Bere afiliazioa ez zen oso altua izan. Erregimen berriaren lehenengo uneetan eta errepublikaren lehenengo biurtekoan gobernu sozialista zegoenez, jende asko hurbildu zen alderdira. Baina denbora igaro zen eta askok ez zioten eutsi konpromiso politikoari. Bestalde, ez dirudi emakumeen artean ezartzea lortu zutenik. 1933ko hauteskundeetan, hautesle-errola asko handitu arren, 1931n lortutako boto kopuru berdinari eutsi zioten. Beraz, emakumeek politikari progresista askok aurreratu zuten bezala, eskuinerako joera hartu zuten. Sozialistek gizartean zabaltzeko izan zituzten arazoak hurrengo grafikoan ikusiko ditugu: lehenengo emaitza positibo eta itxaropentsuen ostean, ez zera ez aurrera geratu ziren.

Sozialista eta errepublikarren boto kopuruaren eta boto guztien portzentajearen bilakaera Gernika-Lumon (1931-1936)



Azkenik, 1930 urtean EAJtik banatu zen Eusko Abertzale Ekintza (EAE) aipatu behar da. Herriko alderdi txikiena zen, baina aipagarria da alderdi horren zenbait pertsonaia garrantzitsuak –Jose Ignacio Arana edo Julián Arrien– herrikoak zirelako. EAEko kideek planteamendu errepublikarrak eta laikoak defendatzen zituzten, eta EAJren erradikaltasunaren aurrean ez zuten izan alderdi horretan beraientzat leku egokia eta alde egitea baino ez zitzaizkien geratu. Alderdi berriak jarraitzaileak lortu zituen errepublikaren lehenengo hilabeteetan eta bere egoitzak –Euzko-Etxea– propioa zabaltzea lortu zuten Gernika-Lumon. Hala ere, ez zuten lortu jarraitzaile kopuru handirik, ezta garrantzia handitzea ere. 1931ko udal eta hauteskunde orokorretan hirurogeita hamar boto inguru lortu zituzten; geroago ez ziren bakarrik gehiago aurkeztu. Gernika-Lumon ez zuten nahi zuten erantzuna lortu, alderdiak egin zuten ezkererako bira egin ostean. Eta hau gertatu zen Bilbo eta inguruko alderdikideen eraginagatik.

Atal honekin bukatzeko, eta aurkeztu diren datuak kontuan izanik, argi dago Gernika-Lumoko politika ez zela izan uste zen bezain geldoa eta atzeratua. Bere ezaugarri eta denbora propioak izan arren, argi dago XX. mendearen hasieratik aurrera aldatze prozesu batean murgildurik zegoela. Aldaketa horrek –egin daitezkeen nabardura guztiak eginik ere– demokrazia gehiago izateko bidean eragina izan zuen; hau da, gaur egungo politikaren lehenengo pausuak eman ziren aztertzen ari garen garaian. Apurka-apurka, ideologia politikoak zabaldu, alderdi politiko berriak sortu eta biztanle askoren irizki hauteskunde bitartez bideratuzeko aukera egon zen. Berrezarkuntza-garaian lehenengo ezaugarri biak finkatu ziren, eta Errepublikan, azkena indartu.

4.2. POLITIKA GERNIKA-LUMON

4.2.1. Berrezarkuntza-garaia (1876-1923)

XIX. mendearen zati handi batean, Gernika-Lumo eta inguruan karlistismoa izan zen jarraitzaile gehien zituen indar politikoa. Carlos VII.aren aldekoen nagusitasuna agerian geratu zen eskualdean, azken guda karlistan. 1872an huts egindako altxamenduan eta hurrengo urtean hasitako gerran, Gernika-Lumo, Euskal Herri gehiena bezala, karlisten alde jarri zen. Hala ere, karlistek Bilbo okupatu ezinean geratu zirenean eta hiriaren setioa hasi zutenean, agerian geratu zen karlisten garaipen militarerako ezintasuna. Gainera, errege karlisten aldeko indarrek Estatuko zenbait erregiotan soilik zuten indarra. Liberalek, beraz, ejertzitza antolatuzeko eta etsaiei aurre egiteko aukera izan zuten. Horrela, 1874 urtean altxatuen porrota etorri zen; Bilboko setioa apurtzea da horren adierazle. Hurrengo urtean, 1875ean, Alfonso XII.a tronura bueltatuzean eta Espainiako egoera politikoa egonkortzean, kanpaina militarrek hobeto egitea ahalbideratu zuten militarrei. Lehenik, Kataluniako frentearekin amaitu zuten, gero Euskal Herrira bidali ziren tropak, 1875. urtean liskarrak indartuz iparraldeko frentean. Azkenean, hurrengo urteko otsailan, Carlos VII.a Frantziara pasatu zen eta azken guda karlista bukatu zen.

1876. urtean hasi zen, beraz, Berrezarkuntza-garaia Euskal Herrian. Alfonso XII.ak gidatutako sistema politikoak egonkortasun handia lortu zuen. Espainian krisia berriro zabalduko zela uste zutenek kale egin zuten eta erregetza berriak urte luzeetan iraun zuen. Horretan, guda osteko karlismoaren krisiak eta jendearen bake nahiek asko lagundu zuten. Karlistek eta monarkikoek testuinguru berriari egokitu behar izan zuten, hortaz. Horretan karlistek izan zuten arazo gehiago; “alfonsotarrek”, ordea, laguntza handia jaso zuten sistema politiko berria indartzeko eta karlistei aurre egiteko Euskal Herrian.

Guda amaitu zean, karlismoak era askotako arazoak pairatu zituen. Aipagarrienak karlista arruntek jasan zutena izan zen. Jarraitzaileen familiek, gizonen erbestealdia, horrek sortzen zizkien egoera ekonomiko zailarekin, eta orokorrean bizitza normalera bueltatzeko arazoak sufritu zituzten. Baina karlisten egoera txar horren aurrean, Carlos VII.ak eta bere hurbileko laguntzaileek Europako hirietan “gorteetako” bizitza zeramat zuten. Bidaiak, luxuzko bizitza eta prentsan aieratutako amodiozko arazoek jarraitzaile askoren gaitzespena jaso zuten, batzuek sufritzen zeuden bitartean, buruzagiak ondo bizi zirelako. Beraien ikuspuntu katoliko zorrotzen arabera, gainera, onartezina zen bizimodu hori –askok ez oso kristautzat jotzen zuten– eta jarraitzaile askoren artean, alderdiarekin zuten lotura malgutu egin zen.

Baina hori ez zen izan karlismoak 1876tik aurrera pairatu zuen arazo bakarra. Alderdian korrante politiko desberdin bi zeuden. Katolikotasun erradikalaren aldekoak ziren eta batzuek erlijioaren defentsa Espainiako tronuaren eztabaidaren gainetik jartzen zuten. Errege baten edo besteren gainetik, gizartea balore erlijiosoan pean mantentzea funtsezkoena zela uste

zuten. Sektore «integrista»-izen horrekin ezagunak izan ziren garai hartan– horien aurrean, errege karlistaren eskubideak lehen mailan mantentzen zuten taldea ere bazegoen. Gernika-Lumon gehiengoa osatzen zuten talde honek. Horien ustetan, Carlos katolikoa zenez eta liberalismoa gaitzeszten zenez, boterera heltu zean, balore kristauak automatikoki ezarriko ziren estatuaren gobernamentuan. Ondorioz, errege karlistak tronua eskuratzeko aldarrikapena defendatzea ere beharrezkoa zen. Barne zatiketa asko bizitu zen XIX. mendeko laurogeita hamarreko hamarkadan, eta ondorio bikoitza sortu zuen. Alde batetik, 1888 urtean alderdia zatitu egin zen, betiko karlista eta integristen arteko erlazio baketsua ezinezkoa izan zenean. Bestetik, Gernika-Lumoko barru-



Euskal Diputazioen ordezkariak 1907an Gernikako Arbolara eginiko bisita (Gernikazarra bilduma)

tian zatiketa aurretik, jarraitzaile eta buruzagien arteko erlazioa ez zen oso ona izan. Alderdiko buruek –Nocedal aita-seekek, integrista ezagunak– bere korronteko buruzagiak jarri zituzten Euskal Herrian, Gernikako barrutian bezala, alderdia gidatuz. Baina jarraitzaileak betiko karlistak zirenez, ezinezkoa izan zen inolako lan politikorik egitea horien laguntza ez zutelako izan eta bien arteko ikuspuntuek sarritan talka egiten zutelako.

Berrezarkuntza-garaiaren hasieran, Comución Tradicionalista-ren beste arazo bat antolakuntza zarena izan zen. Ez zuten inolako antolakuntzaririk, alegia. Guda bukatu zenean, ez zuten sortu inolako antolaketarik Berrezarkuntzaren testuinguru politiko berrira egokituz. Guda garaira arte, alderdiaren buruzagi nobleek gain eta sortu nahi izan zen armada formalaz aparte, «partida» edo gerrilla moduko taldeak baino ez zituzten eratu. Talde horiek lider ospetsuak izaten zuten eta bat-batean antolatzen ziren ekintzak egiteko. Militarren erasoak hasten zenean banatu egiten ziren eta etxera etzuten. Gernika inguruan talde horietako bi izan ziren: lehena, Busturialdeko Leona Iriarte abadeak zuzendutakoa eta bigarrena Francisco de Goirienak, jaiotzez Arratzen zuzaria eta «jesuita» ezizenarekin ezaguna, gidatua. Buruzagi horiek katolikoak zirenez eta Carlos VII.aren tronuarekiko eskubideaz aparte, gizartea irizpide katoliko zorrotzekin gidatzea nahi zuten, eta horretarako, Espainian monarkia tradizionala, liberalismoa izpirik gabea, ezarri nahi zuten.

Argi dago karlismoaren eraketa gudarako egokiagoa zela, politika instituzionalean lan egiteko baino. Horretaz gain, estatu mailako buruzagiek ez zuten nahi Errestaurazio-garaiako instituzioetan parte hartu. Liberalismoaren etsai erradikalak ziren karlistak eta Espainiak bizi zuen egoeratik harraren



1912. urteko abertzailearen ekitaldiaren beste ikuspegi bat (*Novedades*, 1912-VI-16)

oinarria ideologi horretan ikusten zuten. Sistema horrek sortutako erakunde batean parte hartzea, hau da, Gorteetan, nolabait haren balioa onartzea bezala zen. Hori zela eta, uko egin zioten hauteskunde orokorretan parte hartzeari. Horren ondorioz, karlistek ez zuten hauteskundeetarako egokia izan zitekeen gutxienezko organizaziorik sortu. Udal eta aldundietarako hauteskundeetara, ordea, aurkeztea onartzen zuten, erakunde administratiboak zirelako, eta ez politikoak. Baina eraketa egokirik ez zuten, oso zaila gertatu zitzaizkien karlistei ordezkari zaitezela, baita erakunde horietan ere.

Azkenean, aipatutako arazo guztiak batuz, karlismoak erregimen berriaren lehenengo hamarkadan tradizionalki izan zuen botere politikoa galdu zuen, gizarte mailan zuen presentzia guztia desagertu ez arren. Testuinguru berrira ez egokitzeak erakundeetako gidaritzatik kanpo geratzea ekarri zuen. Egoera hori zuzendu nahi izan zen 1890 urtetik aurrera, jada aztertu dugun berrantolatzearekin, baina ez zuten lortu erakundeetan izan zuten indarra berreskuratu. Momentu horretarako monarkikoen, Gobernu desberdinen laguntzarekin eta kazikismoan oinarriturik, bere boterea zabaltzea eta indartzea lortu zuten eta.

XIX. mendean zehar, Gernikako barrutia ez zen monarkikoen zat eskualde oso egokia izan karlistak indartu suak zirelako. Baina guda amaitez, egoera aldatzen joan zen apurka-apurka. Horretarako, gobernuaren laguntza oso lagungarria gertatu zitzaizkien. Karlistek oso errotuta jarraitzen zuten gizartearen eta beste altxamenduetatik aterako arriskua hain ortxe zegoen. Egoera horrekin bukatzeko, era bitan politikak jarraitu zuten. Alde batetik, karlistak izaten jarraitzen zutenek ez zuten inolako laguntzarik jasotzen. Prentsan oso argi aipatzen zen karlisten aurkako politika horren ezaugarriak zeintzuk ziren:

Vivimos como desterrados en la sociedad actual, las oficinas públicas están cerradas para nosotros, el favor oficial para nada lo conocemos, en todas partes estorbamos, nos hallamos contentos con que no se nos permita vivir dentro de la legalidad común; la situación es tan dura que solo por fé y por conciencia, como lo somos, se puede seguir siendo carlista (*El Vasco*, 1886-IX-12).

Bestetik, politikari monarkikoen laguntza jaso behar zuten "ongile" bezala agertzeko gizartearen aurrean. Estrategia horrekin, monarkikoen fidelotasuna indartzeaz aparte, karlista askok bere alderditik alde egin zuten. Karlistek argi zuten norberaren bidez auzoak izango zituztela alderdian jarraituz gero. Monarkikoen hurbilduz gero, oster, ez. Horregatik, askok, alderdiko egoerak lagunduta, bide hori egitea erabaki zuten. Aldaketa hori bultzatzeko, gobernuak politikari monarkikoen egindako eskaera guztiek kontuan hartu behar zituzten. Eskualdeen interesei eta pertsonen eskaerei egoki erantzunez, biztanleen artean begirunea sortuko zuten, sistema berria indartzen lagunduz. Gobernuaren horren jakituz, 1888 urteko barne gutun honek adierazten duen bezala:

El Consejo de Ministros, después de haber deliberado sobre la situación de las Provincias Vascongadas, en vista de la actitud adoptada por el partido carlista y del desaliento que reina en el partido liberal, ha resuelto que cada uno de los

Ministros de sus respectivos departamentos haga todo aquello que en materia de personal ó de tramitación y despacho de expedientes contribuya á dar satisfacción al partido liberal ó á las recomendaciones de sus representantes, así como lo que signifique oposición á toda aspiración carlista.

En ese sentido ningún detalle es insignificante.

Allendesalazarren boterearen oinarriak aztertu ditugunean, lan handia egin zutela zentzu horretan aipatu dugu; eskualdea eta Gernika-Lumo hobetu zezaketen neurriak lortu eta gauzatzeko kudeaketak egin zituen. Horretaz gain, Angel Allendesalazar diputatuak Gernika eta Lumoko udaletan karlistek zuten indarra eta ordezkariak zurrizteko bestelako neurriak bultzatu zituen. XIX. mendearen azken herenean Bizkaiko zenbait herri berrantolatzen ziren prozesuan murgildu ziren. Batzuk oso txikiak eta errekurtsu ekonomiko eskasekoak zirenez, ezin zituzten gutxienezko beharrezko zerbitzuak era egokian eskaini, hezkuntza eta medikuntza bereziki. Antolaketa hobea bilatzeko eta errekurtsuak lortzeko zenbait herri batzen hasi ziren: Ea, Naxitua eta Bedaru, esaterako, edo Arbazegi eta Gerrikaitz, Munitibar osatuz. Aztertzeari garen kasuan gauza bera gertatu zen: 1882 urtean Gernikako herria eta Lumoko elizatea batu egin ziren Gernika-Lumo sortzeko. Alde batetik, neurri hori herriaren hazkundeak behar zituen lurak lortzeko modua zen. Alde zaharretik erreka inguru arte zeuden lursailak beharrezkoak zituen herriak etxe berriak –«ensanche» izenarekin ezagutzen zena– egiteko eta, geroago, trenbidearen geltokia jaratzeko. Baina bestetik, karlisten indarra gutxitzeko modua ere bazen. Karlistek Lumon zein Gernikan zingotzi gehienak zituzten eta, ondorioz, baita alkateak ere. Baina Berrezarkuntza-garaian epaitegi-barrutiko hiriburuetan –Gernikaren kasuan bezala– gobernuaren erabakitzat zuten zuena nor izan behar zen alkate. Horregatik, zingotzi monarkiko bakar batekin alkate izateko aukera zegoen, neurri hori aplikatuz. Gainera, Lumorekin batuzean alkate horren botere eremua handitu egiten zen lehenago karlistek gehiengoa zuten tokian. Beraz, udalen mailako fusio horiek ondorio politikoak izaten zituzten.

Aipatu ditugun egoera horien ondorioz, Gernikako hauteskunde-barrutiko botere politikoan aldaketa garrantzitsua eman zen erregimen berriaren lehen urteetan. Karlistek hauteskunde orokorretara ez aurkeztean, monarkikoen errez eskuratu zituzten postu horiek. Probintziako diputazioan prozesu bera eman zen, geldoago izan bazen ere. Gernikako barrutian 1882 eta 1886ko hauteskundetan karlistek irabazi zuten, baina 1890 urtean monarkikoen lortu zituzten irabazleari zegozkion hiru jesarlekuak; karlistek bakarrik lortu zuten. Gernika-Lumoko Udalean gauza bera gertatu zen. Garai horretako udal hauteskundeetako emaitzen daturik ez ditekagunez, dauden datuekin konpondu behar dugu bilakaera aztertzeko. Baina denek adierazten dute karlistek udal agintaritza izan zuten galera. 1881 urtean, Gernikako zingotzi guztiak karlistak ziren; Lumon ere antzeko emaitza lortuko zuten elizatea karlista izan zelako. Baina 1883 urtean ezin izan zuten saihestu zingotzi monarkiko bat hautatua eta alkate izendatua izana. Aldaketa handia izan zen hori. Alkateek bere esku zituzten eskuduntza exekutiboak kontuan izanik, udalaren funtzionamendua haien esku geratzen zen. Prozesu hori asko indartu zen

1897an. Urte honetan, monarkikoek karlistek baino zinegotzi gehiago lortu zituzten lehenengoz. Berrezarkuntza-garaian, beraz, monarkikoek bere esku izan zuten udal agintaritzak. Karlistek, ezta abertzaleek ere ezin izan zuten beraien boterea gutxitu, zenbait zinegotzi lortu arren. Alkatetzak, garai hartan, beti egon zen monarkikoen esku.

1890ean monarkikoen boterea asko indartu arren, esparru politiko horretan ere zenbait aldaketa eman ziren. Esan behar da XIX. mendearen azken hamarkadan meatzetan eta industrian aberasturiko kapitalistek politikan zuzenki parte hartzeko erabakia hartu zutela. Espainiako gobernuak, negozioetarako neurri ekonomiko egokiak hartzeko asmoz –politika protekzionista ezarri nahi zuten Estatuko merkaturatzerriko produktuetatik hobeto defendatzeko–, egokiena Gorteetara zuzenean joatea zela uste zuten. Hori lortzeko, lehenik monarkikoen ordezkari zirenak baztertu behar zituzten. Aldatze prozesu hori ez zen izan erraza eta arazorik gabekoa leku askotan, Gernikako barrutian bezala. Allendesalazar familiako kideak aldatzea ez zen izan arazorik gabekoa.

Aldaketa horren lehenengo pausuak 1893 urteko hauteskunde orokorretan eman ziren. Allendesalazartarren seme nagusia zen Nicolas aurkeztu zuten deialdi horretara. Familia horretako kideek irabazle irteteko izan zuten erraztasuna kontuan izanik, Nicolásek ere barrutiaren ordezkari izango zela uste izango zuten. Gainera, gobernuko presidentearen –P.M. Sagasta– eta Kongresuko presidentearen –Romanones–eko kontea– laguntza zuten. Baina aipatutako erregezaleak ez ziren horrekin kikildu eta bere hautagaia aurkeztu zuten: Busturiako itziasontzi jabe zen Manuel Maria Arrotegi. Arrotegi Aldundiko presidenteordea zen, eta instituzio horretan zuen postuaz baliatu zen barrutiko herrietan zeuden arazoak lehenbailehen konpontzeko. Nicolasek, aurkariaren maltzurkeriak ikusi zituen eta hautagaitza erretiratzea erabaki zuen. Arrotegik, berriz, aztertu ditugun zenbait fakturaz mota –hildakoen botoak ematea, zenbait hauteslek boto bat baino gehiago ematea, kontrolik gabeko zenbaketak...– eta botoen erosketa erabili zituen garaile irtetea ziurtatuz.

Hala ere, zenbait arazo pertsonal medio, Arrotegik Bizkaiko kapitalisten artean zuen onarpena bertan behera geratu zen eta hurrengo deialdirako beste hautagai bat bilatu zuten: Juan Tomás Gandarias. 1896 urtea izan zen bere karrera politiko luzearen abiapuntua, beste alabatean aztertu den bezala. Hala ere, 1896 urteko hauteskunde orokorrak, Gandariasen garaipenaz gain, beste egoera bat geratu zen agerian: karlismoaren ezintasuna. Urte horretan karlistek izandako boterea berreskuratu zen saiatu ziren eta hautagaia aurkeztea erabaki zuten, baina monarkikoek erabilitako mekanismoen aurrean ezin izan zuten ezer egin. Gobernuarentzako onargarria izan zitekeen hauteskunde bat zuten monarkikoen artean liskarrak egotea, baina narretzina zen edozein erregezalaren aurrean karlistak garaile irtetea, bereziki Espainiak Kubako kolonian gerra hasia zuenean. Askoren ahotan zegoen gerra horrek sortu zuen egoeraz karlistek beste altxamendu bat egiteko baliatuko zirela eta, horregatik, gobernuak bere esku zegoen guztia indartze horren aurka erabili zuen. Hala ere, karlistak aurkeztu gabe urte asko egon

ondoren, monarkikoez ez zekiten aurkarien indarra zein izango zen; horregatik, Gandariasi laguntza osoa eman zitzaion beraiei aurre egiteko. Guardia Zibila eta gobernuko delegatuek eginiko lanaz gain, Gandariasek bere medio propioak erabili zituen garaile izateko: botoen erosketa, emaitza manipulazioa, etab. Baina aipagarria da lehenengo aldiz barrutian hautesleak mehatxatzeko, Bilbotik etorritako pertsona-taldeen –palu eta guzti– presentzia. Talde horietako kideak Gandariasen meategi eta enpresen langileak ziren. Hauek bere jabearen interesak defendatzeko prest zeuden, diruaren truke edo lanari eutsi ahal izateko. Karlisten hauteskunde-agenteen lana galarazi nahi zen, bereziki, gizon horien indarkeriarekin.

Y en ese mismo día, por la noche, llegaron á esta villa cuarenta y tantos *maquetos* con *garrottes*, que se esparcieron el domingo por las aldeas: ¡vergüenza para los que los trajeron y se codearon con ellos y los acompañaron! No se llamen vizcaínos los que así tratan de ganar las elecciones en este Señorío: escándalo igual ni parecido no se ha visto jamás en esta tierra de las cristianas libertades. Sin duda, que de seguir se con empuje nuestra elección en este distrito, hubiérase deramado sangre humana, y el 12 de los corrientes hubiera sido día, no sólo de lágrimas, sino de luto, en Guernica y sus comarcas (*El Basco*, 1896-IV-17).

Gernika-Lumon, hauteskunde egunetan tentsio handiko uneak bizi ziren talde horiek eta karlistek topo egiten zutenean. Karlisten egoitza inguruan eman ziren liskar handienak non beraien hauteskunde kudeaketa eta koordinazioa lanak egiten ziren:

Fijémonos en la presencia de los *porristas* ó *maquetos* que in vadieron el distrito el día de la elección. Fueron precuros un hato de miserables alquilados que por dos veces durante el periodo electoral asaltaron este Círculo *carlista* armados de *manoplas* y *garrottes*, y que desalojaban la escalera y huían cobardemente á la primera embestida *carlista*. El día inmediato anterior al de la votación, se presentaron en Guernica y se dejaron ver en otros pueblos del distrito, con gruesas *porras* colgantes de los puños, numerosas *partidas* de mineros verdadera gente del hampa *hermanos* de los que llevados por el Sr. Galdiz acudieron a la próxima anteiglesia de Ereñon en donde perpetraron los crímenes que son de dominio público (*El Basco*, 1896-V-19).

Testuak adierazten duen moduan, Ereñon eman ziren gertaera larrienak: hautesle bat hil zuten hauteskunde egunean. Hala ere, badirudi herriko aurkarien arteko liskarren ondorio izan zela, ez esandako taldeen indarkeriarena.

1896 urteko hauteskundeetan karlistek botere politikoa berreskuratuzeko ahalegina egin zuten. Horretarako, antolaketa berria eta eskura zuten militante guztien mobilizazioa erabili zuten. Indar guztiak erabili arren, ezinezkoa izan zitzaien monarkikoez erabilitako prozedurei aurre egitea; agerian geratu zen testuinguru berrian berrindartzeko zituzten arazoak. Lan handia egin zuten, baina ez zuten garaipena lortu. Hauteskunde horietan sortu zen hausketa ez zen mugatu karlisten eremura. Karlistekin hauteskunde borrokatuak izateak arazo ugari sortu zituzkien monarkikoei ere, indar eta errekurtsio handiak erabili behar zituztelako, barrutiko klima politikoa mingosteaz aparte. Beraz, biei komeni zitzaien hauteskunde borrokatuak ekiditeko erdibidea

aurkitzea. Zein zen baina, egoera horretarako irtenbidea? Eta saiatzen jarraitu arren, hauteskundeetan jokoan zeuden postuak bien artean banatzea inolako borrokarik gabe. Horrelako paktuak Durangoko barrutian gauzatu ziren, eta gero, Gernikan. Karlistek monarkikoei Gorteetako ordezkariak libre uztearen truke, Aldundirako, barrutian aukeratzen ziren lau postuak erdibana banatzen zituzten edo, gutxienez, postu bat eskuratzen zuten. Monarkikoentzat hori zen nahi zutena lortzeko modu egokiena eta errazena. Karlistentzat Madrilera joatea ez zen oso garrantzitsua, bazekitelako bere iritzia ez zela kontuan hartzen eta, horregatik, Espainia mailan zenbait diputatu lortzen nahikoa zuten bere ikuspuntuak plazaratzeko. Gainera, Gernikan garaile irteerako zituzten arazoak ikusita, karlistek onar ezazketen borroka eta dirurik gastatu gabe Aldundirako ordezkariak lortzen hauteskunde orokorretara ez aurkeztea. Akordio horiek XX. mendearen lehen hamarkada bukatu arte iraun zuten.

Karlista guztiek ez zeuden ados era horretako akordioekin, bestalde. Betiko etsaiekin eta, hori gutxi balitz, gainera, liberalak zirenekin paktatzen, onartezina zen askorentzat. Urte askotan erlijioaren eta saiatzen sideratu zirenekin akordioetara heltzen zena oso salto handia zen karlista arrunt askorentzat, bereziki karlistoak Euskal Herrian zuen jarrera politikoarekin kontraesan handia suposatzen zuenean. Urte horietan alderdiko buruzagiek katolizismo erradikala defendatzen jarraitzen zuten eta bere burua liberalismoaren aurkako arerio posible bakar bezala aurkezten. Izan ere, erlijioaren defentsaren erradikaltasunak zenbait apezpikurekin eztabaidak eragin zituen. Akordio horrek, onura politiko handiak eman arren, alderdiaren liberalismoaren aurkako tradizioarekin haustura handia suposatu zuen. Defendatzen ziren ideien eta alderdiak zermatan zuten praktika politikoaren arteko aldea agerian geratu zen modu horretan.

Aipatutako kontraesanak garrantzitsuak izango izango zuten, barrutiko alderdi politiko bakarrak monarkikoak eta karlistak balira. Bertako ordezkariak zabalduz, hauteskundeetan garrantzitsuak izango ziren eta desagertu egingo ziren eta jarraitzaileek izango zituzten ikuspuntu desberdinek ez zuten horren eragin handia izango alderdiak erakundeetan lortu ezazakeen botere politikoaren aurrean. Baina hori ez zen Gernikako barrutiko egoera. Bazegoen hirugarren sektore politikoak kontraesan horrek sortutako jarraitzaile desilusionatuak bere aldera erakartzen saiatuko zena. Foruzaletasun liberalaz ari gara.

1876 urtean, guda karlista bukatu zenez aparte, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian geratu ziren foruen aztarnak baliogabetu egin ziren, karlistoaren aurkako zigor bezala. Hala ere, Alfonso XII.aren inguruan zeuden politikariek, Cánovasek bereziki, bazekiten Euskal Herrian foruek zuten miresmen handia. Horregatik, foruen ordezkariak, gaur egun ere martxoan dagoen Kontzertu Ekonomikoen sistema ezarri zen. Beste legeri bat aplikatu arren, sistema horrek zerga asko biltzen zena eta eskuduntza ugari uzten zituen Aldundien esku. Askorentzat berrikuntza hori nahikoa izan zen, baina beste batzuentzat foruak berriro indartu behar ziren. Sektore politiko horientzat, gainera, erlijioa arriskuan zegoen Espainian eta eraso horien aurka lan bateratua egin behar zen. Foruzaletasuna eta erlijioaren horrek karlistoaren esparru politiko berean jartzen zituen fueristak, baina bazegoen bereizten zituen ezaugarri garrantzitsuak. Karlistoak egiten ez zuten bezala, foruzaleek León XIII. aita

santuaren irizpideak oso-osorik onartzen zituzten. Alde batetik, katolikoek aldarrikapen bereziak alde batera utziz, guztien lan bateratua bultzatzen zuten erlijioaren defentsan, karlismoak mantendu nahi zuen monopolioa arbuaiatuz. Bestetik, erlijioa defendatuzeko ez zuten inolako arazorik inestuzio politiko liberalerantz parte hartuzko. León XIII.ak sistema politikoaren ezaugarriei garrantzia kendu zien, irizpide erlijiosoak defendatuzeko aukera egonez gero. Horregatik, katolikoek edozein sistematan parte hartzea ezaketen bere helburuak lortuzko. Alfonso XII.aren monarkia liberalean karlistek hori egitea ukatu egiten zuten. Horregatik guztiagatik, fueristek Elizaren laguntza izan zuten XIX. mendearen azkenaldian.

Foruzale horiek XIX. mendeko laurogeita hamarrekoko hamarkadaren hasieratik, Bilboko Sociedad Euskalerra inguruan biltzen hasi ziren. Bertan korrante politiko anitzak ordezkatzen zituzten kideak zeuden. Hala ere, urteak pasatzean, zenbait zuek alde egin zuten, eta geratu zirenak, orokorra zen aldarrikapen foruzale eta erlijiosoaren inguruan bildu ziren. Hamarkada horretan, lehenengo ahaleginak egin zituzten hauteskundeetan Gernikako barrutian. Emaitza itxaropentsuak lortu zituzten, baina garaile izan gabe. Mendeko horren azken hamarkadan, Euskalerra egoitzaren inguruko jarraitzaileak gero eta gehiago ziren. Foruzaleen lana ere bizkortu egin zen, bereziki propaganda alorrean. Horretan Ramón de la Sota eta bere inguruko politikari gazte eta liberalen presentzia garrantzitsu handia izan zuen. Beraientzat organizazio modernoagoa eratu eta propagandari leku handiagoa eman behar zitzaien, aipatutako helburuak gizarrean zabaltuzko.

Berrikuntza horiek gauzatuzeko aukera 1893 urtean izan zuten Gernika-Lumon. Urte hori oso gatazkatsua izan zen Euskal Herrian. Madrileko gobernu liberalak atera nahi zituen zenbait neurri fiskalek sektore sozial askoren arbuioa lortu zuten. Lehenik, Ogasun Ministroak, German Gamazo-k, indarrean zegoen hiru probintziatako kupoa berritu nahi zuen. Bere ustez, ez zuten ondo adierazten zeukaten aberastasuna. Modu horretan, beraz, probintziak Estatuari ordaintzen ziotena handitu nahi zuen. Baina Nafarroan zerga sistema orokorra ezarri nahi izan zuenean, Euskal Herri osoan neurrien kontrako oposizioarekin egin zuten topo. Neurri horiek gauza ez zitezen, «gamazada» izenarekin ezaguturik den mugimendua eman zen Nafarroan. Gernika-Lumon sentimendu foruzale horren isla ere eman zen. Herriko karlista eta monarkikoek ekainean manifestu bateratu bat kaleratu zuten gobernuaren nahiak arbuaiatuz. Baina gertaera ezagunenak 1893ko abuztuaren 16an, San Roke egunean, eman ziren.

Orfeón Pamplonés abesbatza Santanderretik Iruñera bidean zihola, lehenengo hirian sari bat jaso ostean, Bilboko foruzaleek, karlistek, integristek eta abertzaleek omenaldi bat eskaintzea pentatu zuten Gernika-Lumon. Omenaldi horren bitartez, Nafarroari bizkaitarren babesa eta laguntza adierazi nahi zitzaien Gamazo Ministroaren neurrien aurka zuten borrokan. Sociedad Tradicionalista eta Sociedad Guerniquesan bilduta zeuden herriko karlistak eta monarkikoak berriro batu ziren; ekintzaren alde jarri ziren eta manifestu bat kaleratu zuten, lehena bezain sutetsua eta momentuan zegoen espiritu foruzalearen adibidea:

Los navarros son nuestros hermanos, y hoy que padecen injusta persecución, hoy que el hacha centralizadora amenaza con los últimos restos de sus venerados fueros, y muéstranse dignos de sus mayores en la defensa de sus preciadas instituciones, Guernica debe mostrarles que no en vano se sostiene y erguido se levanta en su suelo el bendito Roble símbolo de los fueros, buenos usos y costumbres del Laurak-bat, de las heroicas provincias vasconavarra, si sufridas y laboriosas en tiempos de paz y de bonanza, viriles y enérgicas en los momentos de amenaza y de peligro (*El Basco*, 1893-VIII-17).

San Roke egunean, omenaldian parte hartzeko hirurehun pertsona inguru heldu ziren Bilbotik trenez. Geltoki inguruan jendetza handia zegoen, musika lagun, bidaiariei harrera egiteko. Denak batera, Foru, Nafarroa eta «Unión Vasco-Navarra»ren aldeko oihuak bota eta Gernikako Arbola abestu zuten, eta, ondoren, Juntetxera eta Andra Mari elizara joan ziren. Herriguneko landa batean bazkaria antolatu zuten. Bukaeran, mahi-buruek diskurtsoak egin zituzten.

Momentu horretan baina, ekitaldian zehar partaideen artean egondako ikuspuntu desberdinak agerian geratu ziren. Bilboko antolatzaileak, Foruekin eta Euskal Herriarekin erlazonaturik zeuden bandera, kartel eta zintzilak erabiltzeko a kordiora heldu ziren. Gernika-Lumora heldu bezain pronto, hala ere, Sociedad Tradicionalista eta Sociedad Guerniquesan Espainiako banderak eta kolore horretako telak balkoietan jarrita zeudela ohartu ziren. Apaingarri horiek kentzeko eskatu zuten, baina inolako emaitzarik lortu gabe. Baina oturuntza bukatzean, alderdi desberdinek Foru eta egin beharreko aldarrikapenen inguruko ikuspuntu anitzak agerian geratu ziren. Foruzaleen artean partaideek eginiko topan «¡Muera Castilla!» bota zuten. Horrek karlisten haserrea piztu zuen eta banketatik alde egitea erabaki zuten. Iruñeko abeslariari egoitza kafea hartuz joan zitezela konbetea egin zieten, eta harantz joan ziren. Momentu horretan hasi ziren arazoak. Gizatalde bat Sociedad Tradicionalistara joan zen eta balkoian zeuden apaingarriak kentzen saiatu ziren. Tentzio une bat zuten eta alde berritarako oihuen ostean («¡Viva los Fueros!» oihukatzen zutenek «¡Viva los Fueros con la bandera española y viva la España de Pelayo y Recaredo!» izan zuten erantzun bezala), talde horrek karlisten egoitza utzi eta Sociedad Guerniquesarantz joan zen. Bertan ere apaingarriak kentzen saiatu ziren eta zenbait bazkiderekin borrokatu ostean, hagatik bandera jaitzsi eta kalera bota zuten. Kanean bandera eskuratuzeko, zenbait pertsona tiraka hasi ziren, oihala apurtu zuten arte. Orduan, Guardia Zibila heldu zen eta hiru pertsona atxilotu zituen, baina berehala utzi zituzten libre. Handik gutxi, Bilbora bueltatu ziren bisitariak, trenez.

Gernika-Lumon eman ziren gertakari horiek «sanrocada» izenarekin pasatu dira historiara eta euskal abertzaletasunaren lehenengo akto publiko bezala kontsideratu izan da. Argi dago antolatzaileen artean aniztasun politiko handia zegoela, baina gauza argia da, halaber, oso abertzale gutxi zeudela bertan. Izan ere, 1893 urtean, oso talde txikiak eta marginalak baitzen. Hala ere, badirudi gutxi hauek izan zirela liskarretan parte hartu zutenak, Sabino Aranak berak aitortu zuen bezala. Abertzaleen jarrera eta parte hartzea aipagarria izan arren, ekitaldi foruzalea kontsidera daiteke, Gaztelaren aurkako

oihuak bezala. Erregio horrek, besteen gainetik, Espainiako gobernamentuan ustez zuen posizio pribilegiatua salatu nahi zen oihu horiekin. Aranak ere horixe bera aipatu zuen. Beste gauza bat da karlistek, foruzaleen izen ona zikintzeko asmoz, oihuak "separatistak" zirela esatea, baina zentzu erregionalista izan zuen ekitaldiak. Hau da, independentzia eta horrelako kontzepturik ez zen bertan defenditzen, Sabino Aranaren jarraitzaileak izan ezik, noski. Bestalde, Ramón de la Sota pasatu da historiara ekitaldi horretako enfrontamendu eta Espainiako banderaren apurtzearen erantzule bakar bezala. Lehen Mundu Gudaren testu guruan Sota EAJren buruzagi garrantzitsua izan zen, baina «sanrocada» garaian abertzaletasunetik aldenduta zegoen; izan ere, urte horietan Arana eta bere jarraitzaileek foruzaleei irain ugari egiten zizkieten. Beraz, bere jarrera, geroago aurpegiatu zitzaion bezala, ez zen izan abertzalea, eta bertan egon ziren lekuko batzuen arabera, Sota beti saiatu zen enfrontamenduak ekiditen eta alde desberdinen arteko bakea lortzen, ez liskarrak bultzatzen.

«Sanrocada» inguruan mitologia ugari eraiki dira, baina ekitaldi horren garrantziari ez zaio merezi duen lekua eman. 1893 urtetik aurrera foruzaleen lan politikoa indartu egin zen eta Euskal Herrian karlismoaz at zegoen espiritua erregionalista eta katolikoa antolatuz eta biltzeko pausu handiak eman ziren momentu hartatik aurrera. Prozesu horretan, Gernika-Lumon bizi izandakoak zerikusi handia izan zuen. Herriko balio foruzale sinbolikoak baliatuz, foruzaleek XIX. mende bukaera arte, zenbait propaganda eta ekintza antolatu zituzten herrian 1876 urteko Foruak ezabatu zirela gaitzesteko. Ekintza horiek foruzaleek soilik antolatu zituzten, eta jasotako debekuek eta polizia presentzia, gobernuak eman zien garrantzia azpimarratzen dute. Izan ere, espainiar estatuaren krisi sasoiarekin bat etorri ziren propaganda lan horiek, artean espainiarrak ziren kolonietan –Kuban bereziki– gerra zegoenean. Horregatik, gobernariengandik urruti, "separatismoarekin" lotu zitekeen ezaugarri arriskutzat jotzen zen, koloniek bide hori jarraitu nahi izango zutelako.

Era horretako lehenengo ekintza 1895 urteko uztailan egin zen, baina ez dirudi jendetza handirik batu zenik bertan. 1896an, ordea, 600 foruzale heldu ziren herrira, trenetara. Gernikako Arbola ikusten joan ziren denak manifestazio jendetsuan, baina bertara heltzean, gobernuaren delegatuak agindu zuten ezin zirela herritik modu horretan ibili. Guardia Zibil ugari zegoen bertan eta, arazoak saihestu nahi zituztenez, isil-isilik bueltatu ziren geltokira. Multzo horretatik, lauhun pertsona inguru Sukarrietara joan ziren, Txatxarramendiko hotelean bazkaltzeko asmoz. Bertan delegatuak, jaten hastera zihoazela, jantzetatik irteteko agindua eman zuten. Horren ostean, Bilbora bueltatu ziren trenetara beste eragozpenik gabe. Hurrengo urtean, foruzaleen hartu zuten indarrari aurre egiteko eta kolonietako egoerak txarrena egin zuenean, urte horretako ekitaldiak debekatu egin ziren. Hala ere, azkenean, antolatzaileak eta agintariak akordio batera heldu ziren: herrira batera joan zitezkeen, baita mezatara joan ere, baina Gernikako Arbola ikustera hogeit hamar pertsonako taldeetan sartu eta isiltasun osoz egin behar zuten bisita. Deialdi horrek ere arrakasta handia lortu zuen. Iturri batzuen arabera, trenetan lauhun foruzale heldu ziren, beste batzuek, ostera, Juntetarekin mila inguru bildu zirela diote. 1898 urtean, gobernuaren jarrera ikusirik eta Kuban Estatu Batuen parte

hartze zuzenarekin gerra galtzar zegoela ikusita, antolatuz aileak uko egin zioten ekitaldia egiteari.

Propaganda lan horien eragina Gernika-Lumoko hauteskundeetako emaitzetan nabaritu zen. XIX. mendearen azken hamarkada aurretik ere foruzaleek hautagaiak aurkeztu zituzten probintzial hauteskundeetara, baina aipatu ditugun propaganda lanekin loturik, 1894 eta 1898 urteetako deialdietan lortutako emaitzak interesatzen zituzten zaizkigu orain. Kasu bietan, monarkikoei eta karlistek beraien artean zituzten akordioen aurka borrokatu ziren eta jakina zen aurkari horiek menperatzea ez zela lan erraza. Hala ere, barrutian zein Gernika-Lumon boto kopuru aipagarria lortu zuten. 1894 urtean 161 boto, emandakoen % 35, eta barruti osoan 2.445. Kasu horretan haien hautagaia aukeratua izatea lortu ez arren, emaitzak horiek adierazten dute bazegoela ordezkatzeko zuten esparru ideologikorako gutxienezko jarraitzaile kopurua. Boto emaleen heren batek-edo foruzaleek planteatzen zituzten ideiak onartzen zituzten eta, aipagarria ere bada, boto-emale horiek ez zirela monarkiko ezta karlista ere, alderdi horiek bere hautagaiak aurkeztu zituztelako. Egoera hori berriro geratu zen agerian 1898ko deialdian. Gernika-Lumon botoak 149ra gutxitu baziren –emandakoen % 32–, barruti mailan hiru mila bozketara heldu ziren eta Angel Zabala abertzaleak, Aldundiko eserlekua lortu zuten.

1898 urteko hauteskunde probintzialak gai askogatik izan zen garrantzitsua. Oso testuinguru politiko kritikoa deitu zen jendea hauteskundeetara, Kuba eta Filipinak Espainiaren kontrolpetik kanpo geratzen hasi zirenean. Galera militar horiek agerian utzi zuten alor desberdineko krisia. Munduko inperio handiena izandakoak ezintasuna adierazi zuen, herrialde “gazte” baten aurrean, Estatu Batuen aurrean, hain zuzen ere. Horrek, mundu mailan, Estatuaren makaltasuna eta jaitziera utzi zuen agerian, askok izan zezaketen handitasun-ustekak bat-batean puskatuz. Garaiko intelektual eta politikok ugarik, krisi horren erantzule bezala, Berrezarkuntza-garaiko gobernuen eraginkortasun eza eta kazikismoaren ustelkeria salatatu zuten. Horregatik, Espainiaren “erregenerazioa” bultzatu behar zela aldarrikatzen zuten, helburu horrekin beharrezko erreformak eginez. Kazikismoak gabeko gobernuen beharra sektore politiko gehienak onartu arren, progresistenak –demokratikak, errepublikarrak, sozialistak...– Elizaren gehiegizko eragina ere egoeraren erantzule bezala azaltzen zuten, Espainiako modernizazioa oztopatzen zuelako. Horregatik, estatuen zentzuzko alorrean zintuen gehiegizko eragina, hezkuntzan bereziki, mugatu egin behar zen, eta herriaren gobernamendutik aldentu. Espainia eta Estatuak Herriko sektore politiko kontserbatzaile eta katolikoentzat onartezina zen Eliza ikustea egoeraren erantzuletzat, eta ez zuten bere garrantzia politikan murriztu nahi. Krisiari irtenbidea emateko progresistek defendatutako erreformak onartezinak ziren, baina sektore horretako alarma guztiak piztu ziren XX. mendearen lehenengo gobernu liberalek Elizaren garrantzia mugatuzeko zenbait neurri hartu nahi izan zituztenean –Frantziatik zetozen kongregazio kopurua murriztea eta erlijiorik gabeko eskolak sortzen uztea–. Katolikotasunaren aurkako “erasotzat” hartu ziren neurriak eta, horren aurrean, Elizaren defentsa bultzatu zuten sektore politikoek, eta, segidan ikusiko dugunez, Gernika-Lumon eta bere barrutian politikaren ezaugarri berri horiek garrantzitsuak izan zuten.

Testuinguru horretan kokatu behar dira foruzaleek 1898 urtean Aldundiko hauteskundeetan Gernikako barrutian lortu zituzten emaitza onak. Espainiako krisiak jende asko hurbildu zuen foruzaleetasuna eta erregionalismoaren ingurura, bertan ikusten zutelako egoerari irtenbide bat emateko modu egokia. Emaitza horiek era bitan azter daitezke. Alde batetik, XIX. mendeko azken hamarkadan eginiko lanen lehenengo emaitza bezala. Foruzaleetasunak gizartearen sektore aipagarria erakartzea lortu zuen bere ingurura, hotzes, Foruen eta legalitatearen barruan erlijioaren defentsaren inguruan planteamenduetara. Bestalde, hurrengo mendeko lehen hamarkadan emango zen politikaren lehenengo pausua izan zen 1898koa. Urte horretatik aurrera, monarkikoen kazikismoaren aurka, foruzaleetasunaren alde eta Elizaren interesen defentsan oinarritutako koalizioak osatu ziren Bizkaian eta Gernika-Lumoko barrutian. Hautagaitza horiek lortutako emaitza onak adierazten dute planteamendu horiek errotuak zeudela Gernika-Lumo inguruan.

Koalizio horretara bildu ziren alderdi eta sektore politiko desberdinek ere garrantzia dute. Alderdiri gabeko katolikoen eta –pentasa genezake– karlisten bilakaerarekin nahigabetutakoen parte, foruzaleek eta bertazaleek bildu ziren koalizioaren inguruan. Koalizio horretan, hala ere, EAJ izan zen lehen mailako postua lortu zuen indar politikoa, Angel Zabalaren hautaketak adierazten zuen bezala. Barrutiko politikan hartu zuen garrantzia ulertzeko, alderdiko kideen gaztetasuna eta lanerako joeraz aparte, sorreratik aurrera izan zuen bilakaeran bilatu behar dira, bertan aurkitzen direlako, egoera horren erantzunak.

Sabino Aranaren planteamendu politikoak plazaratu bezain pronto, zenbait jarraitzaile lortu zituen Busturialdea inguruan. Aranaren familia Sukarrietakoa zen eta bertan igoarri zen zituen udak, hortaz, Sabinok lagun eta ezagun ugari zituen inguruan. Horien eta eskualdetik Bilbora joan zirenen artean lortu zituen bere lehenengo jarraitzaileak. Orokorrean, herriko estatusun ekonomikorik gabeko pertsonak ziren, gehienak medikuak, abokatuak, jauntxoak edo lurjabeak, merkataria, etab. Gernika-Lumon, dakigunagatik, behintzat, lau jarraitzaile lortu zituen. Ezaguna denez, garai hartako Aranaren planteamenduak oso erradikalak ziren, ez soilik independentzia eta erlijioaren defentsan, baita alderdiko –1895 urtean ofizialki sortua– partaide izateko ezaugarriek finkatzean eta beste indar politikoaren aurkako irainetan ere. Bilboko Euzkaldun Batzokiko partaide izateko behar ziren ezaugarriak –abizen guztiak euskaldunak izatea, adibidez– eta alderdia gidatuzeko zuen ezkutukeriak eta pertsonalismoa horren adierazle ziren. Urte horietako abertzaletasunaren jarduera, alderdikideen arteko bilera, oturuntza eta mezetara mugatzen zen eta, ondorioz, jendeari irekia ez zegoen antolaketarekin ez zen erreza jarraitzaile ugari lortzea. Horren guztiaren ondorioz, 1898 urtean alderdi oso txikia eta marginala izan zen. Gainera, urte horretarako alderdia krisian zegoen, afiliazio aldetik eta Aranak zituen arazo pertsonalengatik, hau da, jasan zituen atxiloketengatik. Baina urte horretan EAJn gauza asko aldatu ziren. Alde batetik, Espainian erlijioak zituen “erasoen” aurrean, Sabino Aranak erlijioaren defentsan bere beste planteamendu guztien gainetik jarri zuen. Erlijiorik gabeko Euskal Herririk ezinezkoa zenez –katolikotasuna euskaldunen ezaugarri garrantzitsua zelako–, euskaldunentzat ere lehen mailako

arazoa zen Elizaren defentsa. Bestetik, 1898 urtetik aurrera sumatzen dira Aranaren "bilakaera espainolistaren" lehenengo aztarnak. Bilakaera horretan, independentismoaren aldeko aldarrikapena asko mugatu zuen, ikuspuntu erregionalista eta moderatuen alde.

Prozesu horrek aldaketa aipagarria bideratu zuen EAJren barnean: Ramon de la Sota inguruko sektore foruzalea alderdian sartzeko aukera eman zuen, Euskalerra Sozietatean bere proiektua gauzatzeko ezinezkoa zela ikusi zutenean. 1898an bizi ziren aldaketek pausu hori ematea eta abertzaletasuna indartzea ahalbidetu zuten. Sektore berri horrek alderdiaren erradikaltasunak sortutako ertzak leundu zituen eta gizartera zabalik zegoen erakunde sortzeko bultzatu zuen. XX. mende hasieran prozesu bii horietan arazoak izan arren, azkenean ezaugarri berri horiek ezartzeko lortu zuten eta EAJ alderdi berria bihurtzea ahalbidetu zuen. Baina foruzaleen garrantzia ez zen horretara mugatu. Foruzaleak sartu eta batera, alderdiaren estrategia aldatu egin zen, halaber. Orduetik aurrera, EAJk foruzaleek defenditutakoa onartu zuen eta Foruen eta erlijioaren aldeko lan bateratua onartu zuten. Hau da, kazikismoaren aurkako, erlijioaren eta Foruen aldeko koalizioak bultzatu zituzten eta EAJ buru jarri zen. Gernika-Lumoko eskualdean, 1898ko probintzia hauteskundeak izan ziren horren lehen adibide, eta 1911 urtean eman zen koalizio horien azkena. Urte horietan guztietan sektore horrek emaitza onak lortu zituen, monarkikoak eta karlistak menperatzeko lortu ez arren. Baina gerora EAJk izan zituen garaipenak ulertzeko permititzen digu.

1898 urtean, Bilbon Sabino Aranak Aldundian lortutako eserlekua, eta Angel Zabalaren emaitza onak, EAJren lehenengo garaipen elektoral bezala aipatu izan da. Hala ere, aztertutako EAJren barne prozesua eta koalizio zabalean parte hartzeko kontuan hartzen ez bada, ezin dira modu egokian ulertu hauteskundeetan lortutako emaitzak. Garaiko prentsan beraietaz ez dute datu gehiegirik ematen, baina Zabalak eta Aranak lortutako botoak kazikismoaren aurkakoak zirela sumatzen da, eta ez EAJrenak soilik. Badirudi planteamendu horiek 1899 urteko udal hauteskundeetan erabiliak izan zirela, prentsan «elemento vascongado, independiente y no político» osatutako kandidaturak eratuko zirela aipatzen. Gernika-Lumon, Casimiro Olazabal monarkikoa Gandariasen aurkako zinegotzia zela esaten zen prentsan. Kazikismoaren aurkako ezaugarri horrek eta segidan aztertuko diren koalizioetan izan zuen papera kontuan izanik, badirudi eragina izan zuela herriko udalean. Datu horiek adierazten dute zer-nolako indarra zuten Gernika-Lumon sektore politiko katoliko eta foruzale horiek.

1903 urtera arte itxaron behar da koalizioaren lehenengo datu zehatzak lortzeko. Lehenik, probintzia-hauteskundeetan EAJk berriro bere kideez osatutako kandidatura bat Gernikako barrutian aurkeztu zuen, baina berriro ere katoliko eta foruzaleak erakartzeko asmoz. Helburu horrekin, Gernika-Lumon urte horretako otsailaren 23an bilera egin zen barrutiko herrietako ordezkariekin. Bileraren helburua «católico-vascongado» eta kazikismoaren aurkako hautagaitza denek aldarrikatzea zen. Gernika-Lumotik prentsara bidalitako gutun batean argi adierazten zen deialdi horretan ematen ari zen borroka, behintzat, kandidatura horren bultzatzaileentzat:

la lucha está entablada, pues, entre la libertad y la tiranía, entre la dignidad y el servilismo, entre la honradez y el soborno, entre la buena fe electoral y la vileza de quienes no merecen tener voto (*La Patria*, 1903-III-5).

Borroka hori urte berean deitu ziren hauteskunde orokorretan eraman zen, halaber. Deialdi horretan Bizkaiko zenbait hauteskunde-barru titan pertsona independentez osaturiko kandidaturak aurkeztea erabaki zuten foruzale katolikeok. Gernika-Lumon Ramon de la Sota izan zen hautatua. Bere aldarrikapena egiteko, apirilean, berriro ere Gernika-Lumon, herriko ordezkariekin bilera antolatu zen. Bertara lauhun jarraitzaile hurbildu ziren eta bukatzean, manifestu bat plazaratu zuten. Bertan, segidan irakurri daitekeen bezala, argi geratu zen bere zentzua:

En la villa de Guernica y Lumo, cabeza del distrito electoral para diputados á Cortes del mismo nombre, á seis de Abril de 1903, reunidas en Junta numerosas personas de todos los pueblos del distrito, que, profesando distintas doctrinas políticas, lle van por fin común dentro de su respectivo credo y con respecto al país en particular, el ideal católico y el ideal fuerista en toda su integridad, se trató ampliamente de la necesidad de presentar por el distrito un candidato (*La Patria*, 1903-IV-12).

Sotak hautagaitza onartzeko baldintza bat jarri zuten: ez zela erabiliko falsuakeriarik ezta dirurik ere bere kandidaturaren alde. Azkenean, kandidaturaren bultzatzaileek erretiratu zuten erabaki zuten Gandariasek erabili zuten ustelkerien aurrean. Modu horretan, Sotaren izena ez nahastea nahi zuten horren zikina izan behar zuten hauteskunde batean parte hartzeagatik. Horregatik, Gandariasek arazo gabe irabazi zuten deialdi horretan. Baina urte horretan eginiko ahalegina 1907 urtean gauzatu zen eta, urte horretan, Gandariasek ez zuten izan horrenbesteko erraztasunik irabazteko.

1907an, urte bat zuetako etenaren ondoren, berriro jarri ziren martxan era horretako kandidaturak. Lehenik, urte horretako martxoan probintzia hauteskundeetan gauzatu zen. Baina garrantzitsua izan zen ena pirileko orokortakoa. Jose María Urquijo katoliko independentea eta ospetsuak bete zuten Sotaren lekua. Honek ere aurrekoaren planteamenduak erabili zituen:

Obra de un mes hace que surgió espontánea y en forma bien manifiesta en este católico distrito de Guernica el ansia unánime de sacudir el yugo del caciquismo liberal imperante, proclamando un nombre que sintetizara en la contienda electoral que se a vecina todas las legítimas aspiraciones de sus católicos electores y que los llevara, unidos en apretado haz, á la definitiva lucha de la que había de salir triunfante la reconquista de nuestra libertad de ciudadanos y de nuestra honra de católicos vascos y antiliberales (*La Gaceta del Norte*, 1907-IV-11).

Gertaera batek gehitu egin zituen deialdi horretako Urquijoren aukerak: barrutiko karlistek, erlijioa defendatuzeko, bere hautagaitza onartu eta bere aldean egitea erabaki zuten. Erabaki horrek alderdiko agintarien gaitzespena jaso zuten, Gandariasekin akordioa zutelako, baina eskualdeko karlistek tinko mantendu zuten bere jarrera. Laguntza hori izatea Urquijorentzako oso garrantzitsua zen, modu horretan abertzale, foruzale, integrista, karlista eta

alderdi gabeko katolikoek laguntza lortu zuelako, eta Gandarias monarkikoa bakarrik geratu zen borrokan horretan.

Hauteskunde horiek, gainera, badute beste ezaugarri bat. Lehenengo aldiz propaganda kanpaina modernoa eta zabala egin zen barrutian. Gernika-Lumon egoitza zuen Hauteskunde Biltzar Katolikoak lan handia egin zuen zentzu horretan. Seguruena agenteek pertsonalki eginiko lanak ere emango ziren –botoak erosi zituela ere salatu zuten aurkariak–, baina aipagarriena publikoki egin ziren lanak dira. Urquijo barruti guztian ibili zen hautesleekin bat zen eta diskurtsoak egiten haien botoa erakartzeko. Egun osoko bidaia horiek herri garrantzitsuetan bukatu zituzten, non mitin handiagoak egiten ziren. Adibidez, Gernika-Lumon bukatu zen egunean, aurretik Ajangiz, Arratzu, Nabarniz, Muxika eta Foruan egon zen. Gernika-Lumoko mitina Erreterian egin zuten, herriko alkateak debekatu zuelako mitina egitea. Baserri bateko balkoitik Teodoro de Aranak, Aranako kontea, gernikar karlista ospetsua, Urquijoren hautagaitzak suposatzen zuela aurkeztu zuen:

el consolador mo vimiento iniciado en el distrito de Guernica tiene su origen en las constantes exhortaciones pastorales que tienden á evitar que aquí suceda lo que en Francia, donde más que el poder de los enemigos, la frialdad, apatía y punible complacencia de los católicos han sido el motivo de la implantación de leyes de odiosa persecución. [...]

Aquí hay una legión de católicos dispuestos á defender por todos los medios la fe preciosa que les dejaron sus padres en riquísima y sagrada herencia.

Así como el Primado de España dijo que había que enterarse de las Leyes y de Asociaciones, engendro miserable de las logías, costase lo que costase, así nosotros vamos á enterarnos el caciquismo venga lo que viniere (*La Gaceta del Norte*, 1907-IV-19).

Mitinaren ostean, herrian zehar manifestazioan joan ziren Urquijoren jarraitzaileak, Urquijo laguntzen Aranak eta zera.

Gandarias, egoera hori ikusirik, ez zen geldirik geratu. Hauteskundeak nahastuz ahala, azpilanak areagotu zituen: botoak erosteari ekin zion; barrutia bisitatu zuen hautesleak erakartzeko eta Urquijoren kanpaina katolikoa ez zela defendatu zuen. Horretarako, Apezpikuaren laguntza izan zuen Gandariasek, publikoki egin zen gutun batean Urquijo bezain katolikoa zela esan zuenean. Gernika-Lumoko jarraitzaileak Gandariasen irudia garbitu nahi zuten aurkariak eginiko salaketan aurrean, eta prentsan bere pertsonari buruzko manifestu bat aurkeztu zuten. Bertan, Gandariasek barrutiaren alde eginiko lanak eta lortutako onurak aipatu zituzten:

No se cansen de todos modos nuestros enemigos y convéngase que la inmensa mayoría de electores se halla dispuesta á votar al señor Gandarias por gratitud y haciendo caso omiso de sus ideas políticas, lo votarán no solo los dinásticos, sino muchísimos carlistas y todos los que anteponen el bien del país á toda otra clase de intereses y aspiraciones; y de este modo le darán una prueba de verdadero afecto porque les consta que el señor Gandarias ha sido


y sigue siendo el alma y el factor principal de todas las empresas y proyectos realizados en beneficio de esta región; entre otras que pudiera citar se halla el canal, que gracias a su intervención y su influencia se consiguió la subvención del Estado, así como también a él se debe la construcción de los muelles en el puerto de Bermeo (*El Noticiero Bilbaíno*, 1907-IV-18).

Hala eta guztiz ere, hauteskundeak oso parekatuta egon ziren eta, horregatik, 1896 urtean egin zuen bezala, Bilbotik meatzari eta langile taldea ekarri zuen barrutira a urkarien agenteen lanak eragozteko. Bermeon eta Errigoitin eman ziren liskar aipagarrienak, baina barruti guztian egon ziren tent sio oneak, katolikoek ere era horretako taldeak antolatuz zituztelako. Talde horiek antolatzen nor izan zen lehena ezin da jakin. Azkenean, Gandariasek iraba zizuen alde txikia aterata. Atera zituen 3.700 botoak nahikoak izan ziren Urquijoren 3.356ren aldean. Gernika-Lumon gauza bera gertatu zen: Gandariasek 331 boto lortu zituen, eta Urquijok 241, emandako guztien % 42.

Urquijok hauteskunde orokorretara berriro aurkezteko asmoa adierazi zuen 1910 urtean. Hauteskunde-lanak egiten hasi eta, bat-batean, erretiratzea erabaki zuen. Karlismoaren Bizkaiko agintariak barrutiko jarraitzaileei Urquijori laguntzea debekatu eta Gandariasen aldeko botoa ematea agindu zien. Erabaki horrek, jakina, karlisten artean zatiketa sortu zuen. Urquijok bazekien denek laguntza gabe oso zaila izango zuela Gandariasi irabaztea, eta, beraz, erretiratu egin zen. Hala ere, bere hautagaitzak zuten bultzatzaileak, karlistak eta Arana ikonoak ondea barne, bere izena mantentzea erabaki zuten, eta propagandarekin jarraitu zuten. Erreterian egin zuten berriro mitina, Gernika-Lumoko alkateak debekatu zuelako herrian egitea. Baina Gandariasek berriro irabazi zuen, 1907 urtean baino alde handiagoa aterata. Katolikoek izandako arazo eta guzti, barrutian 2.954 boto lortu zituzten, Gandariasek baino mila gutxiago. Gernika-Lumon, berriz, 230 boto, emandakoen % 37.

1907 eta 1910 bitartean eman zen politikaren bizkortzearen ostean, 1911n amaitu egin ziren katolikoek arteko koalizioak. Urte horretako probintzietan monarkiko eta karlisten arteko koalizioari abertzaleek osatutako beste bat gehitu behar zaio. EAJko kideez osatuta egon arren, kazikismoaren eta erlijioaren defentsan agertu zen koalizio hau. Jokoa zuden lau jesarlekuetatik bat seguru zuten, eta, beraz, hauteskunde horiek lasaiagoak izan ziren. Katolikoek koalizioak 1911n bukatu ziren, eta hamar urte baino gehiagoko borroka politiko eta elektoralaren garaiari amaiera eman zitzaion. Oinarri politiko horien inguruan sorturiko mugimenduak arrakasta aipagarria izan zuen Gernika-Lumon eta eskualdean. Monarkikoek, karlisten laguntzarekin, lehentasuna mantentzen zuten, baina katolikoek emaitza onak lortu zituzten hauteskunde borrokatuetan. Hurrengo grafikoan agertzen den bezala, Gernika-Lumon monarkikoek atzetik egon ziren, baina botoen herena baino gehiago lortuz betiere. Monarkikoetatik urrun zegoen biztanle multzo horretaz baliatu zen EAJ bere politika berezia defendatuzeko hauteskundeak aurkezte zenean, 1911tik aurrera.

1898 eta 1911 urte bitarteko Gernika-Lumoko hauteskundeetako emaitzak



Oharra: P= Probintzia hauteskundeak. O= Hauteskunde orokorrak.

1911 urteko hauteskundearen ostean, Berrezarkuntza-garaiko enfrontamendu politikoaren ezaugarriak aldatu egin ziren; baita Gernika-Lumon ere. XX. mendearen lehenengo hamarkadan erlijioaren inguruko eztabaidak baretu egin ziren. Horren ordez, beste gai batzuk bilakatu ziren politikaren arduraren oinarri. Aipagarriena Espainian eman zen ezkerreko indar politiko eta sindikalen indartzea izan zen. Egoera horren aurrean, sektore kontserbatzaile guztiek mehatxaturik ikusi zituzten erlijioa eta ordena soziala. Ezkerrekoei hobeto aurre egiteko, eskuineko indar guztien batasuna bilatu behar zen, aurreko monarkiko eta katolikoaren arteko zatiketa alde batera utziz. Planteamendu horiek garrantzi handiagoa zuten ezkerreko alderdiek eta sindikatuek indarra zuten eremuetan, Estatuko hegoaldeko nekazarialdeetan eta industria garapen handia zuen hirietan, Bilbon bezala, esaterako. Gernika-Lumon, hala ere, industrializazioaren lehenengo urratsak ematen ari ziren hasten zegoen hamarkada horretan eta, aztertu dugunez, ezkerreko sindikatuek ez zuten presentzia garrantzitsurik.

XX. mendea aurrera zihoan heinean, beste eztabaida politiko bat indartu zen, Espainiako lurralde-egitura ingurukoa, alegia. Batzuek nahi zuten zentralizazio handiagoaren aurrean, karlistek, adibidez, Estatuak egitura erregionala hartzea defendatzen zuten, eta, abertzaleek, bere aldetik, estatu gabeko nazioen autogobernurako eskubideak hasi ziren aldarrikatzen. Azken aldarrikapen horiek Katalunian izan zuten garrantzi handiagoa, abertzaletasuna bertan baitzegoen errotuago. Herrialde horretarako nahi zuten autonomiak Espainia guztian izan zuten eragin eta berrikuntza instituzional horren aldeko mugimendu zabala sortu zen, baita Euskal Herrian ere. Mundu mailan, bestalde, 1914 urtean hasierako Lehen Mundu Guda nazio txikien eskubideen inguruko eztabaida zabaldu zuen, bereziki Estatu Batuetako Robert Wilson

presidentek beraien etorkizuna erabakit zeko autodeterminazioa tresna egokia izan zitekeela defendatu zuenean. Testuinguru horretan, EAJren aldarrikapen artean, abertzaleenak zirenak indartu ziren berriro. Erlijioari eman zitzaion lehentasuna murriztu egin zen, bere planteamendu abertzaleak lehen mailara bueltatu ziren, batez ere, Euskal Herriko autonomiaren aldekoak. Horregatik guztiagatik, Euskal Herrian abertzaleetasuna indartu zenean, nazioaren inguruko eztabaida eta enfrontamendua izugarri areagotu ziren, eta 1923an Berrezarkuntza-garaia bukatu zear zegoela, alderdien arteko borrokaren elementu garrantzitsua bilakatu zen. Gernika-Lumon, gainera, ezkerrearen "mehatxua" herrian ez egotean, sentimendu nazional desberdinen arteko desadostasuna izan zen indar gehien hartu eta alderdi desberdinen jokaera gidatu zuena.

Testuinguru orokor horren barnean, Gernika-Lumon ere aldaketak eman ziren. Karlismoak bizi zituen barne arazoak XX. mendearen bigarren hamarkadan indartu ziren berriro. Beste gai batzuetan –tronuaren eztabaida edo alderdi eskuindarren batasuna– zeuden ikuspuntu desberdinez aparte, nazioaren ingurukoa izan zen, bereziki Euskal Herrian, karlisten barne arazo gehien sortu zituen. Barne zatiketa horrek, azkenean, alderdia zati bitan banatu eta ekarri zuen 1919 urtean. Batzuek uste zuten abertzaleen aurka borrokatu behar zela. Nazionalisten aldarrikapenek Espainiako batasuna arriskuan jartzen zuten, indar politiko guztiak erabili eta lan bateratua egin behar zen haien aurka. Beste batzuek, ordea, bestelako estrategia defendatu zuten. EAJk aldarrikapenak moderatu zituen eta autonomiaren aldeko apustua egin, karlismoak betidanik defendatutako Espainiako ikuspuntu errejonalistarekin bat egin zezaketen. Horren ondorioz, abertzaleekin batera autonomiaren aldeko koalizioak egin zituzaketen. Bizkaian, Gernika-Lumoko Aranako kontea dugu horren adibide ezagunena. Zilegi ikusten zuen betidaniko errejonalismoa autonomiaren eztabaidara hurbiltzea Sotak gidatutako EAJrekin batera, bien ikuspuntu kontserbatzailetik ados zeudelako beste alor askotan ere. Baina karlisten zatiketak Gernika-Lumon zuen indarra gutxitzea ekarri zuen. Jarraitzaileen artean zeuden ikuspuntu desberdinek ez zuten uzten lan politikoa egiten, alderdiaren barneko "sentimentsalitate" bietako bat molestatu barik, behintzat. Herriko karlisten egoitzak bizi zuen egoera horren adierazle zen. Beste garai batzuetan egindako propaganda lana ia desagertu egin zen eta barne arazoak zirela eta, 1916 eta 1918 urteen bitartean ateak zarraturik izan zituen. Horren guztiaren ondorioz, karlismoak herrian zuen garrantziki politikoa gutxitu egin zen eta EAJ bilakatu zen herriko monarkikoen oposizio indar garrantzitsua.

Koalizio katolikoak deuseztatzean, monarkikoen jarraitzean zuten herriko botere politikoa kontrolatzen eta hauteskundeetan garaipenak lortzen. Horretan karlisten laguntza izan zuten urte luzeetan. EAJ bakarrik zegoen borrokan eta botere horri aurre egiteko arazo handiak izan zituen. Horren adibidea, 1913ko udal hauteskundeetan zinegotzi gabe geratu izana da, monarkiko eta karlisten koalizioak eginiko lanaren aurrean. Urte bereko probintzia hauteskundeetan gauza bera gertatu zitzaizen. Diputatu bat hil zen eta ordezkari zeko egin ziren hauteskundeetan hautagai monarkikoak erraz irabazi zuen, baita Gernika-Lumon ere. Gauza bera gertatu zitzaizen 1915

urteko probintzia hauteskundeetan. Barruti eta herriko abertzaleek, hauteskundeetarako behar zituzten lanak egiteko beharrezko antolaketa eta barne dinamika lortzeko, denbora luzea behar izan zuten eta, horren ondorioz, hauteskundeetan monarkikoei aurre egitea ez zitzaizkien posible izan urte luzez. Baina abertzaleek ez zituzten baztertu propaganda alorrean egin beharreko lanak eta, denboraren joanean, biztanleriaren zati garrantzitsua inguratu zitzaizkien.

Hala ere, hamarkada horren hasierako hauteskundeetako emaitzak aztertutik, beste egoera bat azpimarratu behar da. 1911tik 1915era EAJK-ia boto kopuru bera lortu zuen deialdi guztietan: ehun eta hirurogei boto inguru, boto emaitza % 28. Hala ere, emaitza itxaropentsua izan arren, urrun zeuden aurkarietatik, monarkikoei eta karlistek 380 boto, gutxi gorabehera, lortu zuten zutelako. Alde hori kontutan izanik ere, nazionalisten botoen inguruan irakurketa desberdin bi egin daitezke. Alde batetik, EAJK kontuan izateko moduko sektore soziala ordezkatu zuten Gernika-Lumon, esandako % 28, hain zuzen ere. Bestetik, boto kopurua tinko mantentzeko, boto-emaitzen artean abertzaleek jarraitu zailde egonkorra lortu zutela adierazten du. Deialdi batetik bestera emaitzetan aldaketa handiak egon izan balira, boto-emaitzen artean abertzaleen aukera tinko defendatu zen ez zen adierazle zatekeen. Hau da, testuinguruaren arabera, botoa ematea eta geroago kentzea erabakiko zuten hautesleak egongo ziratekeen. Baina egonkortasun hori mantentzeko jarraitu zailde talde tinkoa lortu zuela adierazten du, eta abertzaleen zaletasunaren oinarriak onartzen zuten, EAJRi bere bozka emateko prest zeuden. Hau da, alderdi abertzalearen benetako jarraitu zailde zeuden herrian.

Espainiako egoera politikoa Lehen Mundu Guda bukatu zenean zegoenean hasi zen aldatzen, eta 1917. urtetik aurrera, askoz ere azkarrago. 1898. urteko krisiaren ostean, Estatuko erakundeak beste krisi sakon batean murgildu ziren berriro ere. Gobernu desberdinek arazoak konpontzeko eta lan egiteko zuten ezintasuna gero eta nabariagoa zen. Horixe bera adierazten zuten emandako gobernu aldaketa ugariak, alderdi monarkikoen zatiketak, parlamentuan aurrekontu zein legerik onartu ezinak... Hori ikusirik, gero eta argiago zegoen askorentzat Berrezarkuntza-garaiko instituzioek aldaketa eta erreforma handiak behar zituztela. Militarrak ere minduta zeuden gobernuak Marokoko gudan armadaren barneko mailaz igotzeko zuten jarrerarekin. Eta hori guztia gutxi balitz, 1917ko Sobiet Batasuneko Iraultza zaren ostean, ezkerreko alderdiak indartu eta erradikalizatu egin ziren, eta zituzten helburuak lortzeko zirela ikusi zuten. Sektore kontserbatibozko, esparru politiko horretatik zetorren "mehatxua" gero eta handiagoa zen, zenbait lekutan, Bartzelonan bereziki, ordenu publikoan zeuden arazo handiek adierazten zuten bezala. Testuinguru hori guztia borobiltzeko, azkenik, Kataluniatik asko indartu zen autonomiaren aldeko aldarrikapena. Askorentzat autonomia lortzea zen instituzioek zuten ezintasuna gainditzeko modu egokia, era horretan baino ezin bait zen gobernuan murriztu kazikismoaren eragina.

Arao horiei guztiei nolabaiteko erantzuna eman behar zitzaizkien Lehen Mundu Gudaren azken urtetik aurrera, Estatuko egoera ekonomikoa eta soziala ez zelako batere ona. Guda garaia hazkunde ekonomiko eta ira-


bazi handien epea izan arren, prezioen igoera handia eman zen, eta horrek familia ugariantzat arazo piloa zekartzan. Produktu askotan, gudan zeuden herrialdeek zituzten eskaera handiak ekarri zuen prezioen igoera. Esportatu zitezkeenak, prezio handiak ordaindu behar ziren Espainian geratzen zeko –Europar sal zitezkeen parekoa, behintzat– eta inportatu beharrekoak ere oso garesti zeuden merkatuan, eskasak izateaz gain. Prentsan agertutako artikulu batean 1914 eta 1920 bitartean, elikagaien prezioa % 170 eta soldadak % 57 baino ez igo zela aipatzen zen. Lan asko zegoenez, jendeak bazuen errentak lortzeko modua, baina oinarrizko produktuen prezioak behe eta erdi mailako klaseetako familien ekonomian izan zuen eragin zuzena. Guda amaitzean eta Europako herriek bere industria berreraiki zutenean, bat-batean, esportazioak geratu egin ziren. Horrek langabezia ekarri zuen eta lana zutenentzako ere, lanorduen murrizketa –eta soldatena ere– jasan izan behar zuten. Ondorioz, familia askorentzat garai oso txarrak iritsi ziren. Gernika-Lumon ere, Udalak, Elizak eta zenbait alderdi politikok egoera txarrean zeuden familiei laguntzeko eta elikagaiak banatu zizkieten.

Testuinguru horrek guztiak, jakina, eragina izan zuen Gernika-Lumoko politikan. Kazikismoa eta politikari monarkikoen aurkako iritziak asko zabaldu ziren gizartean, eta horretan garaiko prentsak eta zenbait alderdik egingutako propaganda lanek lagundu zuten. Sektore sozial gero eta zabalagoa instituzioen erreforma zentzuzko demokratikoan egiteko aldekoa zen, ordura arte sistematik aldenduak zeuden indarrek nolabaiteko parte hartzea izan zezaten. Horren adibidea, herriko EAJk udal agintarien aurka egin zuen kanpaina sumatzen da. Politika “zaharraren” aurrean, politika “berria” eta “mailakoa” beharrezkoa zela defendatzen hasi ziren. 1912 urtetik aurrera, Gernika-Lumotik bidalitako gutunak agertzen dira prentsan zentzuzko horretako salaketak eta proposamenak egiten. Badirudi, beraz, abertzaleek jakin zutela gizarteak zituen arazoei erantzun egokiagoa eskaintzen eta babesa eskuratzeko. Horri gehitu behar badiogu abertzaleek autonomiaren alde mantentutako jarrerak gizartearen zati handi bateko betiko foruzaletasunarekin bat egiten zuela, ulergarriak dira 1917 urtetik aurrera herrian eman ziren hauteskunde emaitzak.

Aipatutako testuinguruak Euskal Herri osoan izan zuen eragina. Politikan eman ziren aldaketek adibidea EAJk lortutako emaitza onak dira. Bizkaiko Aldundia kontrolatzen zuten 1917 urtean lehenengoz, baina hazkunderaren garrantzia adierazten zuena hurrengo urteko orokorretan eman zen. Abertzaleek Bizkaian Madrileko Gorteetan jokoan zeuden sei jesarlekuetatik bost lortu zituzten, eta Gipuzkoan eta Nafarroan, ordezkari bana. Emaitza horiek adierazten zuten argi eta garbi politikan ematen hari zuten eraldaketa. Gernika-Lumon abertzaleek ez zituzten monarkikoak garaitu, baina 1917tik aurrera asko hobetu zituzten emaitzak. Urte horretako azaroan eginiko udal hauteskundeak izan ziren aldaketaren lehenengo adibide. EAJk 266 boto lortu zituen, emandakoen % 42 inguru. Hurrengo urteko orokorretan abertzaleen emaitzak zertxobait gutxiago ziren, baina 1919ko hauteskunde orokorretan emaitza onena lortu zuten: 305 boto, emandakoen % 44. Hurrengo grafikoan ikusten den bezala, urte horretatik aurrera, abertzaleek boto gutxiago lortu zuten, baina 1920tik 1923ra bitartean, egonkortu egin ziren EAJren emaitzak.

herrian: 220 boto inguru. Emandako botoen herena, berriz ere. Beraz, 1917tik aurrerako testuinguruan EAJk beste alderdi bat zuetatik botoak jaso zituela ikusten da. Baina koiuntura horren ostean, benetako abertzaleak geratu ziren herriko EAJren hautagaiak babesten, kasu horretan 1915ean zeudenak baino zenbait gehiago.

1911 eta 1923 bitartean Gernika-Lumoko hauteskundeetako emaitzak



Oharra: P= Probintzia hauteskundeak. O= Hauteskunde orokorrak. U= Udala hauteskundeak.

Grafiko horrek beste egoera bat uzten du agerian: Gernika-Lumon abertzaleen aurkako indarrek gehiengoan izan zutela tarte horretan. Berriz ere, EAJ garaile izan arren, Gernika-Lumon ez zuten horrelakorik lortu. 1911tik aurrera, monarkikoak hauteskundeak irabazi arren, argi zuten abertzaleak apurka-apurka hautesle oniritzia lortzen ari zirela, 1918an agerian geratu zen bezala. Eskuin ez-abertzaleko sektore horiek, EAJren emaitza onen aurrean, hobeto antolatu eta alderdi desberdinen lanak koordinatzeko sortu zuten Liga de Acción Monárquica –LAM– 1919 urtean. Bizkaia osoan zehar Gernika-Lumoko eskuineko sektore politiko horiek organizazio horrekin botoak mantentzea eta, azkenean, 1919tik aurrera gehitzea lortu zuten.

Monarkikoen hazkunde eta abertzaleei aurre egin ahal izatea, arrazoi bitan oinarritu daiteke. Lehenik, sektore horiek autonomia eta nazionalismoaren aldeko aldarrikapenaren aurrean, jarraitzaile askoko beste bat erabili zuten: “españolismoa”, garai hartan erabiltzen zen terminoaren arabera. Abertzaleen lanaren aurrean, askok Espainiaren batasuna arriskuan jartzen zela uste zuten eta, horren ondorioz, Euskal Herriko “espainoltasuna” defen-

datu behar zen. Ramón Bergé hautagaiak, 1919 urtean plazaratutako manifestu batean argi adierazten zuen “e spainolismo” horrek erabiltzen zituen argumentuak:

No es una lucha personal, ni siquiera de partido, la que la Liga de Acción Monárquica me manda a sostener; es la lucha de los vizcaínos que amamos a España, una sola e indivisible, contra los que rompiendo y pisoteando la tradición de Vizcaya, representada en el Árbol Santo, aspiran a la separación sembrando el odio a la Madre Patria (*El Pueblo Vasco*, 1919-V-30).

Gernika-Lumon, planteamendu horien jarraitzaile ugari zegoen, hauteskundeetako emaitzek adierazten duten bezala. Monarkiko zein karlista askorentzat Euskal Herriaren espainoltasuna zalantzarik gabekoa zen. Beraz, abertzaleak hori dudan jartzen hasi zirenean eta, bereziki, emaitza onak lortzen hasi zirenean, askok begi onez ikusi zuten eskuinetik egiten hari zen aldarrikapena. Baina planteamendu horiek ezagutzera emateko –eta hori da aipatu nahi den bigarren arrazoia– eta jarraipen handi hori izateko, monarkikoen politika modernoaren ezaugarriak eskuratu zituzten, eta propaganda eta sozializazio politikoa egiten hasi ziren. Gernika-Lumon Centro Vasco-Español sortu zutelako esana dugu. Baina lan horiek bultzatzeko oso garrantzitsua izan zen 1919an sortutako Liga de Acción Monárquica erakundea. Bertan, alderdi monarkiko guztiak eta karlisten arteko abertzaleen aurkakoa bildu ziren, helburu batekin:

coincidiendo en el respeto á las instituciones vigentes y en el dogma de la unidad indivisible de la Patria Española, consideran necesario y urgente organizar el esfuerzo de todos frente á las propagandas del nacionalismo vasco (*El Pueblo Vasco*, 1919-III-16).

Politika berriaz baliatua eta planteamendu argi batekin, monarkikoen botoa errekuperatu eta garaile izaten hasi ziren berriro Gernika-Lumoko barrutian, 1920tik aurrera. Gernika-Lumon 1917 eta 1919 bitarteko jaitzieren ostean, hazkunde garai izan zuten berriro. Boto kopuru txikiena lortu zuten garaian, 1917ko udal hauteskundeetan, 347 boto lortu zituzten. Hiru urte geroago, 485, eta 1923an, 519. Joera aldaketa hori 1919ko probintzia hauteskundeetan eman zen. Bizkaian abertzaleek zuten gehiengoari buelta emateko, monarkikoen beharrezkoa ikusten zuten Aldundian zuten kontrolarekin bukatzea. Horretan urte horretako hauteskundeak oso garrantzitsuak ziren, eta egoerari buelta ematea lortu zuten, lortu ere. Aipatu dugun sozializazio politikoak eragin handia izan zuen horretan, baina baita hauteskundeetan egin ziren presio eta manipulazioek ere. Gernikako barrutian, abertzaleek, Guardia Zibila eta gobernuko ordezkarien lan partziala, indarkeria eta boto erosketak salatuz zituzten. Hala ere, Gernika-Lumon hauteskundeak lasai joan ziren. Monarkikoen hauteskundeak galdu zituzten barruti osoan, baina beste barrutietako emaitzekin Aldundia kontrolatzea lortu zuten berriro. Gernika-Lumon botoen lehenengo igoera lortu zuten. Barrutia gero eta abertzaleagoa zela kontuan hartuta, Gernika-Lumoko igoera ez da ulertu behar soilik indarkeria eta faltasutze horren ondorio bezala, baizik eta monarkikoen bizi izandako bilakaera politikoaren eraginaren ondorio bezala ere bai.

1917 eta 1919 bitarteko hauteskundeetako borroka gogorraren ostean, Gernika-Lumok eta barrutiak berak berealdia ezagutu zuten. Egoera horretan asko lagundu zuen EAJren barne egoerak. Alderdian urte asko zeramaten elkarrekin sektore moderatua eta erradikala. Autonomiaren kanpaina indarrean zegoenean eta lehenengo garaipenak lortu zirenean, denek egin zuten lan bateratua, baina bide legalak jarraituz autonomiarik ezin izango zela lortu argi geratu zenean, kolaborazio hori apurto egin zen. Sektore erradikal-independentistak alderditik alde egin zuen bere bideak alderdiaren barnean gauzatzeko modua aurkitu zen ez zuelako eta alderdi abertzale berria sortu zuen. Gernika-Lumon lehenak izan ziren gehiengo mantendu zutenak, baina bere lanak moteldu egin ziren. Barne zatiketa eta monarkikoen indartzea ikusirik, hauteskundeetan emaitza onak lortzeko aukerak gutxituak geratu zitzaizkien. 1920ko orokorretan egin zuten azkeneko ahalegina monarkikoak irabazteko, baina alferrik. Hurrengo deialdian, 1923koan, ez zuten hautagairik aurkeztu eta liberalek aurkeztutakoa babestu zuten, monarkikoen aurkakoa eta erregionalista zelako. Testuinguru horretan abertzaleek nahiago izan zuten lan guztiak Gernika-Lumoko Udalean eta Aldundian ahal zen ordezkaritza zabalena lortzen saiatu, monarkikoak gehiegi estutu gabe. Eta ondorioz, Berrezarkuntza-garaia lasaitasun politikoz bukatu zen 1923 urtean Gernika-Lumon.

4.2.2. Primo de Rivera-ren diktadura (1923-1930)

Miguel Primo de Riverak Jeneralak gerra egoera aldarrikatu eta tropak kalera atera zituen 1923ko irailaren 13an, Baratzelona. Hurrengo egunean gobernuko presidentek dimititu egin zuen eta Alfonso XIII.ak estatu kolpea ontzat hartu zuen eta Primo de Rivera deitu zuen militarrez osaturiko gobernu berria eratzeko. Modu horretan eta odol tantarik isuri gabe, 1876tik indarrean zegoen konstituzioa baliogabetu egin zen eta monarkia parlamentarioa bukatu. Militarren jarraitza ez zuten inongo posizio garrantzitsurik Espainian. Sektore sozial eta politiko gehienek –zenbait sindikatu soilik saiatu ziren greba orokorraren deialdia egiten, arrakasta handiegirik gabe– horrelako neurri baten beharra ikusten zuten eta, azkenik, heldu zenean, itxaropenez hartu zuten; militarrek egoera bideratuzeko kapaz izango ziren zain geratu ziren, behintzat.

1917 eta 1920 urteen bitarteko borroka politikoaren ostean, Gernika-Lumoko barrutia lasaitasun garaian bizi bazen, horrek ez du esan nahi aipatutako Espainia mailako arazoak konpondu zirenik. Arazoak 1923 urtean joz zuten gailurra, baina lehenagoko urteek zerbait agerian utzi zuten: legalitatea erabiliz ez zegoen modurik instituzioetan beharrezkoak jotzen ziren aldaketak gauzatzeko; bestelako ezohiko neurriak behar ziren. Lan horretarako militarren parte-hartzea jotzen zuten askok beharrezko, teorikoki politikatik at zudelako eta Espainiako benetako interesak defendatuko zituztelako. Horregatik, garai hartan askoren ahotan zegoen “burdinazko zirujaua”-ren etorreraren aldarrikapena, legalitatea kontutan izan gabe, indarrez eta inolako oposiziorik gabe beharrezkoak ziren aldaketak ezartzeko eta Estatu egoera zuzentzeko. Lan hori burutu ondoren eta arazoak konponduta, berriro ere normaltasun konstituzionalera itzuli ziren.



1928ko Gernika-Lumoko udal agintarien argazkia, herriko art zapezpikuarekin (Gernikazarra bilduma)



Primo de Rivera diktadorearen bisita Gernika-Lumora 1928an, herriko udal eta eliz agintariekin batera (*Novedades*, urriak 1928)

Delgado Cendagortagarza, Ander: Gernika-Lumo (1876-1937). Sar rera historik oa



Bisita horren beste argazki bat (*Novedades*, urriak 1928)



1928ko bisitan, Primo de Rivera Unceta y Cía.-ren lantegia bisitatu zuten (Gernikazarra bilduma)

Militarren jarrera azaltzen duen arrazoi nagusia Marokoko gerran bilatu behar da. Ez zeuden batere pozik gobernutik jasotzen zituzten ordenu eta neurri kontrajarriekin. Boterera heldutako gobernu bakoitzak bere estrategia ezarri nahi zuen, baina boterean denbora laburrez irauten zuten, hurrengoak berea jartzen zuen martxan, horrek sortzen zuen koordinaketa arazoekin. Baina ezinegon handiena 1921ean Annualen jasandako porrot odoltsuaren ostean areagotu zen. Askok militarren errua zela esan eta jarrera horren erantzukizunak bilatu behar zirela defendatzen hasi ziren. Espainiako Gorteak lan horretan hasi eta azken ondorioetara iritsi orduko, militarrek boterea eskuratzea erabaki zuten. Baina militarren jarreraren onarpen zabala ez da arrazoi horretan bilatu behar; militarrek beste egoera batzuk zuzendu nahi zituzten eta horretarako zegoen erakunde "garbi" edo kazikismoak gabeko bakarrak ziren. Askorentzat militarrek ziren egoerari ordenu sozialean oinarritutako irtenbidea emateko geratzen zena aukera bakarra.

Hiru ziren arazo nagusienak: ezkerreko alderdiak indartu eta erradikalizatu izana, kazikismoak sortutako ustelkeria eta gobernuen ezintasuna, eta abertzaletasunak Espainia puskatzearen arriskua. Lehenaren kasuan hartu ziren neurriak ez zituzten Gernika-Lumon eragin aipagarriarik izan, herrian ez zegoelako mugimendu sindikal indartsurik. Beste alor bietan hartu zirenak, ordea, bai.

Kazikismoarekin bukatzea zen helburu garrantzitsua. Askok uste zuten kazikeek eta politikari profesoalek beren interesen alde erabiltzen zutelako botere publikoa, biztanleen arazoak konpontzeko baino. Interes pertsonalen defentsa horretan, politikari horiek boterera iristen zirenean, neurri guttiak erabiltzen zituzten gutxi batzuen eskuetan banatuz botere guztia. Horregatik, behar beharrezkoa zen usurpatzaile horiek alduak izatea eta politika "garbia" jartzea bere orde. Garbitze lan hori militarrek egin behar zuten eta garbiantan hori bukatu artean soilik iraun behar zuten diktadurak. Gobernadore Zibileen eskuduntzak, beraz, Gobernadore Militarren esku utzi ziren eta barrutietan azken horren ordezkari ziren Gobernuko Ordezkaria sortu zen; kargu hau ere militarren esku zegoen. Antolaketa berri horrekin, hortaz, kazikeek kontrolatzen zituzten instituzioak ordezkatu nahi ziren.

Hala ere, udaletan ikusten zuten askok kazikismoaren jatorria, herri mailako erakundeak eta errektiboak kontrolatuz lortzen zutelako eragina eta boterea indartzea. Udaletatik hasten zena Espainian zegoen kazikeen politika. Horrekin bukatuz, 1923ko irailaren 30ean Estatu guztiko zinegotziak kargutik kendu zituzten eta haien orde, herriko zerga-ordaintzaile handienez osatutako zerrendatik aukeratutako pertsonak jarri ziren. Neurri horrekin politikari profesionalen orde, herrian interes ekonomiko zilegiak zituztenak jarri nahi ziren. Uste izatekoa zen herria ondo kudeatzea bere negozio edo lanbiderako gauzarik egokiena izango zela eta, ondorioz, herrira ko egokiena eta ez beraientzako baino ez zena bilatzen saiatuko zirela. Gernika-Lumon oso azkar aplikatu zen neurri hori eta modu horretan osatutako udala abian jarri zen 1923ko urriko lehen egunerako. Zinegotzi berriek izan ziren alkate berria aukeratu behar zutenak.

Hartutako erabaki horrek udalak osotzeko mekanismo automatikoa ezarri zuen, baina bilatzen zen helbururako arrisku bat zuen. Zitekeena zen zerga-ordaintzaile horiek ere kazikismoarekin erlazionaturik egotea, bereziki herri txikietan, politikan jarduten zutenak gehienetan erdi mailako klaseak bait ziren. Gainera monarkikoak ez ziren alderdiko kideak aukeratuz gerta zitekeen sistema horrekin, Gernika-Lumon gertatu zen bezala. Lehen momentuko zinegotzi berrien artean abertzale, errepublikar eta sozialista bana izan ziren izendatuak, zinegotzi zerga-ordaintzaileen zerrenda horretan zeudelako. Horregatik, udalak eratuzeko modua finkatzen zen bitartean, Gobernuko Ordezkaririk izan ziren udalak kontrolatu zituztenak. Berehala hasi ziren, gainera, erregimen berriaren alde zeudenen izendatze berriak egiten, egon zitezkeen "akatsak" konpontzeko asmoz. Parte hartuz hori bereziki nabaria izan zen alkateen kasuan. Udal agintaritzan zuen garrantziagatik, ezin zuen edonork alkate izan. Postu garrantzitsuenak betetzeko kazikismoarekin loturarik ez zuten edota politikan berriak ziren pertsonengana jotzen. Baina aipatutako ezaugarriez aparte, Euskal Herrian beste bat ere bazegoen: abertzaleak ez izatea. Lan hori ez zen erraza, baina azkenean karlismotik eta, bereziki, diktadurak sortutako alderdi politikotik –aztertu dugun Unión Patriótica– lortu zituzten pertsona horiek. Hau da, betiko monarkikoak ez ziren eskuineko eta sektore abertzaleen aurkako taldeetatik eratu zuten herriko udala.

Neurri horren bidez, herriko politika gidatu zuten Berrezarkuntza-garaiko monarkikoak aldentuak izan ziren. Bat-batean, boterea izatetik marjinatuak izatera pasatu ziren, askorentzat beraiek zirelako Espainiaren egoera kaskarraren erantzuleak. Diktaduraren alderdi berria sortu zenean areagotu egin zen monarkikoen urrunketa. Unión Patriótica alderdiak monarkikoen Lehen Mundu Gudako testuingurutik aurrera indar handiz defendatu zituzten planteamendu berak bereganatu zituzten –ordenu soziala, Espainiako batasuna...–, baina haien alderdia eta lana mespretxatuz. Primo de Riverak politikan parte hartu ez zuten eskuineko sektore sozialak batu nahi zituen alderdi berri horretan. Hau da, pertsona berriak erregimen berrirako, eta ez antzinako kazikeak. Azkenean, monarkikoen marjinazio hori Alfonso XIII.ak berak ere pairatu zuen bere baitan, monarkikoei laguntza eskatu, eta 1930ean ez ziotelako eskaini.

Monarkikoak ez ziren izan diktaduran arazoak pairatu zituen alderdi bakarra. Aipatu dugunez, Primo de Riveraren helburuetako bat abertzaletasuna eta separatismoaren "arriskuarekin" bukatuz gerta zen, eta bere ordez, erregionalismo "sanoa" ezartuz gerta zen. Hori guztia lortzeko, berehala hasi zen neurriak hartzen: 1923ko irailaren 19an, estatu kolpetik egun gutxi ira, beraz. Espainiako batasunaren aurkako propaganda eta manifestazioak debekatuz gerta izan zen neurrietako bat. Espainiako bandera ez zena jasotuz gerta;

escribir en idiomas o dialectos, las canciones, bailes, costumbres, y trajes regionales no serán objeto de prohibición alguna, pero en los actos oficiales no podrá usarse por personas investidas de autoridad otro idioma que el castellano, que es idioma oficial (...)

erakunde ofizialeko agiri eta aktak gazteleraz izan behar ziren. Dekretu horren ostean, Gobernuko ordezkaririk batzokiak bisitatzen hasi ziren: batzoki-

kietako estatutuetan jarritako helburuak aztertu zituzten eta jai egunetan jartzen ziren banderak zeintzuk ziren ikertu. Ikerketa horren ondorioz, 1923ko urriaren bukaerarako, Bizkaiko 31 batzokiak ziren, Gernika-Lumokoa, besteak beste.

Neurri horien ostean, abertzaleek jardunik gabeko garaia ezagutu zuten. Alde batetik, Espainiako politikak zein bide hartzen zuten begira geratu zirelako. Diktadura, aldi baterako neurria zenez, zegoen lana bukatu eta legalitate konstituzionalera noiz bueltatuko zen zain geratu ziren. Bestetik, batzokiak itxita zeudenez eta beraien aurkako neurriak hartu zituen erregimenean zeudenez, uko egin zioten lan publiko egiteari. Hala ere, debekuen ezaugarriak zeintzuk ziren ikusita, argi dago frankismoan erabilitako pertsonen aurkako errepresiotik urrun zegoela diktadura horretan martxan jarritakoa. Erakundeen inguruan eta esparru sinbolikoan mugitzen zen gehienbat. Horren ondorioz, abertzaleek ezin izan zuten lan politiko publikorik egin, baina bai beraien arteko erlazio sozialei eutsi eta esparru pribatuen ideologia bizirik gorde. Adibidez, Sabino Aranaren omenez, mezak egiten jarraitu zuten, baita Gernika-Lumon ere. Horri buruz ez dago datu gehiegirik, baina prentsan aurkitutako 1929ko testu batek argi adierazten du aipatutakoa:

Datorren larunbatian Ander deunaren eguna dugu.

¡Zertzuk eztarkaguz egun onek geure gogora! ¡Areik ziran Batzokiko jai ederak, areik abesti eta dantzak!

Gaur barriz... Isil-misilla sei-sorta izi lagun, geuk dakigun tokitu baten, bilduko dira, eta jaki bata eta bestearen artian, orain amar-amabi urteko jazoerak gogoratzen pozik igaroko dabe. Bai azkenian allar-kerien bat jaurti bere... (*Euzkadi*, 1929-XI-30).

Bazeuden, hala ere, euskal espirituarekin bat zetozen zenbait aktibitate egiterik diktaduran. Politika egiterik egon ez arren, euskaldunen ezaugarri orokorrak indartzeko lana egin zitekeen. Horregatik, orokorrean "euskaldun" bezala kontsideratu zitezkeen zenbait aktibitate kultural eta kirol arlokoak egitea baimendua zegoen. Eskua artean ditugu datuen arabera, ezin dugu jakin abertzaleak soilik eginiko lanak izan ziren edo ez, baina badirudi, Gernika-Lumon, behintzat, talde horietan abertzaleek bere izaera adierazteko modua izan zutela. Herriko abesbatza, musika banda eta Elai-Alai dantza taldeak kasurako, euskal tradizioak lantzen zirelako. Kirol alorrean, Txara-Txara izena zuen txirridulari taldea sortu zen. Herriko mendigoizale abertzale taldearen izena izan zela kontuan hartuta, baliteke beraiek sortutako taldea izatea. Badirudi ezaugarri berdinsuak zituen futbol taldea ere sortu zela. Beraz, abertzaleek esparru pribatuen sozializazio politikoa egiteko eta euskal kultura indartzeko izan zuten aukera. Beraz, diktadurak ez zuen abertzaleen zaletasunarentzako hausturarik suposatu eta Bigarren Errepublikan EAJK izan zuten indartzea ulertzea eramaten gaitu.

Urteak joan urteak etorri, aldi baterakoa neurria zena egonkortzen saiatu zen Primo de Rivera. European zeuden diktaduren modelo jarraituz, bereziki Italia faxistarena, erregimen korporatibo berria sortzen saiatu zen. Espainiako

arazoak konpontzeaz gain, faxista itxurako diktadura eraiki nahi zuen Primok. Horren harira, alderdia sortu zuen eta, bereziki, konstituzio berria egiteko lanak hasi zituen. Denboran luzatze horrek eta Primoren nahiak ikustean, diktadurak zituen babesa galtzen joan zen a purka-apurka. Lehenik, betiko monarkikoa, aipatu dugunez. Geroago, Alfonso XIII.a. Diktadura berria botere politikoa gutxitua izango zela pentsatuz, Primorekin zuen erlazioa txarrerantz egin zuen. Militarrek eta ikasleek ere diktaduraren aurka egin zuten. Egoera hori dela eta, 1930eko urtarrilean Primok dimititua zela eta atzerrira joatea erabaki zuen.

Hori gertatu zenean, Espainiako politikak zein bide jarraitu behar zuen ez zegoen batere argi. Alfonso XIII.aren eta monarkikoa aburuz, 1923 aurreko egoerara bueltatu behar zen, diktadura existitu ez balitz bezala. Hori lortzeko eta hauteskundeak egin aurretik, lehenik udalak osatu behar ziren. Horretarako, metodo berezia erabili nahi zen: 1923 aurreko zinegotzi guztien zerrenda egin zen, deialdi bakoitzean izan zuten botoen arabera ordenatuz, eta automatikoki izendatuak izan ziren zinegotzi. Hilda zeudenak edo dimititzen zutenak ordezkatuz zeko zerrendara joaten zen hurrengo pertsonaren bila. Baina monarkikoen nahiak betetzea ezinezkoa izan zen alderdi politiko guztiak errefusatu egin zutelako zinegotzi kargu horiek hartu zela. 1923 aurreko monarkikoa esanguratu asko ere horrelako neurrien aurka zeuden. Alfonso XIII.ak beraiek marjinatua zela gogorki kritikatu eta mendekua hartu zuten. 1930erako jadanik ezinezkoa zen atzerantz buelta egitea. Denboraren poderioz, nork nahi izango ote zuen horren kritikatu izan zen garaira itzultzea? Nork nahiko izango ote zuen kazikismoa indartzea ekar dezakeen garaira bueltatzea? Nork diktadurak konpondu nahi izan zituen arazoetako garaira berriro joatea?

Erregeak ere gero eta oposizio handiagoa zuen. Diktaduraren etorrera lagundu eta sistema horretan izan zuen jarrera ikusita, monarkiaren inguruko eztabaida piztu zen Espainian. Erregeak politikan zuen parte-hartetzea zuzena, Espainiako arazoaren parte izatea iruditzen zitzaion askori. Horregatik, erregearen aldaketa behar zela aldarrikatzen zuten, baina oraingoan demokrazian oinarrituta. Horren adibide da 1930ean Donostian errepublikarrek, sozialistek eta abertzale katalanek sinatutako paktua. Monarkiaren aurkako testuinguru horretan, azkenik, erakundearen egoera normaltzeko lehenengo pausua eman zen: 1931ko apirilko 12ko udal hauteskundeak konbokatuz ziren. Erabaki hori hartu zean, Espainiako agintariak teoriak esanahi politiko txikiagoa zuen hauteskundeetatik hasi nahi izan zuten. Orokorra konbokatuz baino eztabaida txikiago egongo zela uste zuten. Baina Erregearen inguruan sortu zen aurkako oposizio zabala zegoen garaian, Espainiako klima politikoa baretzeko eman ziren pausuek ez zuten helburua lortu. Azkenean, udal hauteskundeak ostean, errepublika aldarrikatu zen eta Alfonso XIII.ak erbeste-rako bidea hartu zuen.

Deialdi horretara alderdi politiko guztiek aurkezteko aukera izan zuten, azkenean askatasun politikoak berreskuratu egin baitziren. Gernika-Lumon ere oso goiz hasi ziren hauteskunde lanak. Abertzaleak, barne zatiketarekin bukatu ostean indarturik, eta karlistak, oraindik zatiak, izan ziren lehenak

hautagaiak aurkezten. Kasu honetan, kazikeen aurkako koalizioan batu ziren. Ez zeuden prest Gernika-Lumoko erakundeak berriro ere kazike monarkikoen eskutan uzteko eta, hori ekiditeko, lan bateratua onartu zuten. Aurkeztutako bigarren hautagaitza monarkiaren aurkako sektore politikoak osatutakoa izan zen. Aipatu ere aipatu dugu, 1930 urtearen azkenetan errepublikarren eta sozialisten lehenengo lan politikoak sumatu zirela herrian. Espainia mailan zegoen testuinguru politikoaz baliatuz, monarkia gaitzesten eta erreforma demokratikoa aldarrikatzen zuten sektoreak erakartzea bilatzen zuten Gernika-Lumon ere. Lehenik, abertzaleak eta karlistak monarkiaren aurkako koalizio zabalean batu nahi zituzten, baina, azkenean, errepublikarrak eta sozialistak baino ez ziren batu. Azkenak hautagaiak aurkezten –bitartekoa zen ari ziren nahasmenaren adibide argia– monarkikoak izan ziren, karlisten sektore espainolistaren laguntzaile bezala aurkeztu beharrean, herriko interesen alde aurkeztutako hautagaitza independente bezala agertu ziren.

Gernika-Lumon, 1923 aurreko ezaugarriak berpiztu zituen hauteskunde kanpainak. Kazikeen aurkako eta antimonarkikoen hautagaitzak osatzen zuten alderdiek lehenago barneratutako berrikuntzak erabili zituzten. Mitinak egin eta manifestuak banatzeari ekin zioten botoak erakartzeko asmoz. Monarkikoen artean nabariagoa izan zen atzerako begirada hori. Prentsan berriro agertzen hasi ziren industria-langileei eta baserriko errentariei eginko presioak, botoen erosketak, etab. Hauteskunde egunean bertan ere badirudi hautesleengan presioak eman zirela. Horren adibide Lumoko eskolako hauteskonton zia apurtzea izan zen. Ez dakigu zein alderdi izan zen horren erantzule, baina neurri hori erabiltzen zen hauteskundeak oso estuak zedenean edo gaitzeko aukera ikusten zenean. Aurkarien indarrari aurre egin ezinik ikusten zutenean eta galduko zutela argi zegoenean, hauteskonton zia apurtu eta hauteskundeak errepikatu egin behar izaten zen. Beren burua gaitzale ikusten zutenak, pertsona gehiago batu eta aurkarien presioei aurre egitea posible izaten zuten eta, ondorioz, irabazteko aukera gehiago izan. Baina borroka handia izan arren, orokorrean hauteskundeak lasaitasunez igaro ziren.

Kandidatura	Botoak	Emandakoen %	Zinegotzi
Monarkikoa	434	% 52'1	9
Kazikeen aurkako	306	% 36'7	4
Antimonarkikoa	88	% 10'5	0

Hauteskunde horietan Gernika-Lumok urte askotako ezaugarria utzi zuen agerian berriro: herri monarkikoa zen. Koadroan ikusten denez, hamahiru zinegotzitik bederatzi eskuratu zituzten. Hala ere, Gernika-Lumon inork uste ez zuena gertatu zen hauteskunde horien ondoren. Espainiako hiri handietan errepublikarrek irabazi ostean, errepublika aldarrikatu zen, lehenik Eibarren, apirilaren 14an.

4.2.3. Bigarren Errepublika (1931-1936)

Gernika-Lumon, beste herri askotan bezala, Bigarren Errepublikaren lehenengo momentuak jai giroan eman ziren. Errepublikaren etorrera ziurtatu zenean, apirilaren 14ko iluntzean –seguruenik Eibarko berriak lehenago ere helduko ziren–, herriko Komite Errepublikarra udaletxera abiatu zen jende ugari lagunduta. Lehenik, hiru koloreko bandera errepublikarra jarri zuten balkoian eta, gero, herria zeharkatu zuten manifestazioan, musika bandak Marsellesa jotzen eta bolanderak botatzen. Bertan batutakoak gauerdira arte egon ziren ospatzen, egun horretan hasten zelako itxaropenez betetako garai berria. Baina jai horrek adierazten zuen alaitasunak berehala eman zion paso borroka politikora. Hurrengo egunean erregimen berriko lehen erabakiak hartu ziren. Bizkaiko Komite Errepublikarrak udala baliogabetu zuen eta bere ordean behin-behineko bat izendatu zuen, errepublikaren alde argi eta garbi agertu ziren pertsona osatua, hau da, errepublikarrak, sozialistek eta Eusko Abertzale Elkartzeko ideak. Monarkikoak, karlistak eta abertzaleak udal erakundeetatik at geratu ziren. Udal horren lehenengo erabakia monarkiaren sinboloak herritik kentzea izan zen. Lehenik, Udaleko batzar aretoan zeuden Alfonso XIII., Primo de Rivera eta Martínez Anido Jeneralen argazkiak kendu zituzten, eta haien ordean, Galán eta García Hernández militar errepublikar fusilatuenak jarri zituzten. Bigarrenik, herriko kaleko zenbait izen ere aldatu zituzten, hurrengo koadroan agertzen den bezala:

1931kako apirilean Gernika-Lumoko kale izenen aldaketa

Izen zaharra	Izen berria
Isidoro León	Barrenkale
Juan Tomás Gandarias	Artekale
Manuel Allende Salazar	Azokekale
Fernando El Católico	Galán y García Hernández
Alfonso XIII etorbidea	Libertad etorbidea
Paseo de la Unión	República enparantza
Estación kalea	14 de Abril kalea
Lavadero kalea	Iparraguirre kalea
Juntetxetik bidera zihuan kalea	Sabino Arana etorbidea
Gernikako Arbola inguratzen zuen kalea	Sabino Arana kalea

Argi ikusten denez, erregeen eta Berrezarkuntza-garaiko politikarien izenak kaleetatik kendu ziren eta haien ordean, kaleetako izen tradizionalak jarri zituzten berriro, Barrenkale, Artekale edo Azokekale, esaterako. Beste kale batzuen kasuan, Errepublika berriarekin zertik erakusia zuten kontzeptu askatasuna edo errepublika- eta sinboloekin aipatutako militar fusilatuen kasua edo Apirilaren 14a, errepublika aldarrikatu zen eguna- izendatuak izan ziren.

Baina aipagarria da udal berriaren abertzaileak gutxiengoak izan arren –EAEk bizi zirela eta EAJ agertu ere ez–, ideologia horren sortzaile zen Sabino Arana eman zitzaion lekua. Horrek argi adierazten du agintari berriek argi zutela abertzaletasunak herriaren zuzenbidea eta aldenduak izatea ez zutela nahi. Erregimen berriak beraien zatere lekua zuela adierazi nahi zuten.

Udal berriaren osaketak agerian utziz zuten Errepublikaren lehenengo uneetan egonkortutako zatiketaren politikoa. Baina herriko gertaera politiko garrantzitsuenak aurkeztu aurretik, komeni da aipatzea Bigarren Errepublikak Gernika-Lumon izan zuten bilakaeran maila bizi bereizi behar direla. Alde batetik, Gernikako Arbola bertan egoteak herriari balio sinboliko handia ematen zion –gaur egun duena baino askoz handiagoa–, foruen eta euskaldunen askatasunaren adierazle zelako. Horren ondorioz, erregimen errepublikarrean Euskal Herriko zenbait gertaera aipagarri izan ziren herrian. Zenbait alderdi politikok euskaldun ororen batasuna adierazi nahi zutenean edo herritar guztien aldarrikapenak kaleratu, Gernika-Lumo aukeratu zuten ekitaldiak antolatuz zeko. Horren ondorioz, herriaren zenbait gertaera eman ziren Euskal Herriko dinamika politiko orokorrean ulertu behar direnak. Bestetik, herri mailako politika dago. Hau da, herriko barne politika eta alderdi desberdinen arteko indar banaketa berezia kontuan izanik ulertu daitezkeen gertaerak. Batzuek zein besteek, Errepublikan politikak gizartean bizi zuten indarrez eta zabaltze prozesua adierazten dute. Lehenagotik ere nabariak ziren biztanleen parte-hartarazte zuzena politikan; orain, ostera, erabat zabalduko da politika egiteko modu berria eta arazo politikoez pertsonen zuten interesa. Horretaz gain, pertsonen interesatzen zitzaizkien gaien ezaugarriak ere aldatu ziren. Lehenago, orokorrean, pertsonen herri mailako arazoak interesatzen zitzaizkien gehienbat, baina denboraren joanean, Euskal Herri eta Espainia mailakoak ere beren arduren artean jarri ziren. Bilakaera hori erabat ezarri zen Bigarren Errepublikan. Beraz, Errepublikan politikak izan zuten ezaugarriak gaur egungo demokrazia ikerketan pareka daitezke, jendearen parte-hartarazte eta interesak kontuan hartuz.

Lehen mailako gertaerak izan ziren errepublika berriaren lehenengo egunetan eman ziren aipagarrienak. Erregimen berriaren lehenengo egunetan, Getxo, Elorrio, Bermeo eta Mundakako alkateak, Katalunian hartu zuten bidea jarraituz, Euskal Errepublika, espainiar Errepublika Federalaren parte izango zena, aldarrikatu zeko lehenengo pausuak ematen hasi zen. Gernika-Lumon, apirilaren 17an, Euskal Herriko udal guztiek aukeratu zuten ordezkaritza biltzea zen helburua, gai horri buruz eztabaidatzeko eta puntu minimoa manifestu bat onartuz zeko. Errepublikaren behin-behineko gobernuko kideak arduratuta zeuden Katalunia eta Euskal Herriko gertaerak hartzen ari ziren abertzale kuxua handiaz eta bilera debekatu erabaki zuten. Bizkaiko Gobernadore Militarrak, hiruheren soldadu zabaldu zituen herriko erdialdean; sei metrailadore jarri zituzten herriaren sakabanatuta eta hainbat Guardia Zibil ere, ekitaldia egin ez zedin. Militarrek herriko sarrerak zarratuz aparte, herriko alkate errepublikarrak ekitaldia debekatu zuten eta biztanleei bertan parte ez hartuzeko eskatu zuten bandoa ere publikatu zuten. Aukeratu zuten egunetan alkate ugari hurbildu zen herrira, jarraituz askoz lagunduta, baina militarren presentzia ikusirik eta enfrentamenduak egotea ekiditeko, errepideetan geratu ziren eta ekitaldia bertan behera utziz zuten.



Gernika-Lumoko Alderdi Sozialistaren kide eta agintarien argazkia (Gernikazarra bilduma)



Gernika-Lumoko emakume karlista edo *Margarita* batek emandako mitina Fikan 1933. urtean (Gernikazarra bilduma)



Gernika-Lumo eta inguruko herrien abertzaleen ordezkariak za Bigarren Errepublikan egindako ekitaldi politiko batean (Gernikazarra bilduma)



1931. urteko hauteskundeetan Lizarrako Esta tutuaren aldeko hautagaitzetan aukeratutako diputatuei Gernika-Lumon emaniko agurra Madrilerara joan aurretik (Gernikazarra bilduma)

Delgado Cendagortagarlarza, Ander: Gernika-Lumo (1876-1937). Sar rera historik oa



30. hamarkadako eta bonbardaketa aurreko Gernika-Lumoko ikuspegi bat (Gernikazarra bilduma)



1936ko urrian Jose Antonio Agirre Juntet xean Lehendakari karguaren zinan (Gernikazarra bilduma)

Espainiako eraketa instituzionala bakarrik aldatu nahi, gizartearen ordena sozial kontserbatzailea eta kristaua ere defendatu nahi zen. Errepublikaren etorrera eta bertan sozialistek zuten garrantzia kontuan izanik, Euskal Herriko eskuineko sektore katolikoek Espainiaren izaera katolikoa arriskuan ikusten zuten. Beldur horiek baretzen ez zuten batere lagundu 1931ko maiatzean izandako gertaerek: Madrilen elizak erre zituzten eta Mateo Múgica Gasteizko apezpikua atzerriratu egin zuten. Askorentzat Errepublikan Espainiako gizartearen katolikotasuna eta Elizaren eskubideak arriskuan zeuden. Egoera hori dela eta, abertzaleek eta karlistek lehenago izan zuten batasuna berreskuratuz.

Baina Errepublikaren aurkako borroka horretan, Gernika-Lumon beste indar batzuk ere bazeuden. Herrian horren garrantzia handia izan zuten monarkikoen borrokat zeari utzi zioten, erregimen berria testuinguru egokiena ez zelako. Baina herrian zuten balizko boto kopurua bere planteamendu minimoak defendatzen zutenei edo momentu hartan uste zuten aukera egokienari emango zizkieten. Herriguneko sekzioetan ez zuten hautagairik aurkeztu eta horregatik uste izatekoa da abertzaleei edo karlistei emango zizkietela botoak, abstentzia ziora joan ez zirenek, behintzat. Baina Lumori zegokion sekzioan bazuten beste aukera bat. Bertan oso indartsuak ziren karlismoan lehen aztertu ditugun abertzaleen aurkako sektoreko kideak. Karlismoaren beste sektorea bezala, haiek ere kandidatura aurkeztu zuten, jakinik monarkikoen laguntza ere izango zutela. Baina "monarkia" hitzak sor dezakeen arazoa ekiditeko, "independente" bezala aurkeztu ziren.

Lumoko sekzioak, azkenik, beste ezaugarri berezi bat ere izan zuen. EAJk bere hautagaiak herrian baino ez zituen aurkeztu, eta nekazal inguruan EAE bakarrik utzi zuten monarkikoen aurkako borrokan. Apirilko udal hauteskundeetan abertzale guztiak kandidatura berean baturik agertu ziren, jakin bai baitzekiten banatuta joateak irabaziak baino galera gehiago sortuko zituela. Baina Errepublika aldarrikatzean, herriko EAEko kideek pentasatu bide zuten aukera ona izango zutela, errepublikartasuna hasiera batetik agerian utzi zutelako eta egoera berrian jarraitzaile asko inguratuko zituztela pentasatu zutelako. Alderdi berri horren herriko zenbait buruzagik alde horretatik zuen eragina ikusirik, EAJkoek erabaki zuten ez zutelako ezer egiterik eta, segurenik, abertzaleen botoak ez banatuzeko eta monarkikoei erraztasun gehiago ez emateko, ez aurkeztea erabaki zuten.

Udal hauteskunde horietan zegoen alderdi desberdinen parte-hartzaileak borroka handia sortu aurretik, hauteskunde egunean lasaitasuna eragin zuten nagusi. Herriguneko sekzio bietan abertzaleek eta karlistek erraz irabazi zioten errepublikarrei eta sozialistei. Sei eserleku eskuratu zituzten, eta besteek, errepublikazaleek, hiru baino ez. Lumon, berriz, monarkiko independenteek aise irabazi zuten EAEko hautagaien aurrean. Lehenek hiru zinegotzi lortu zuten, eta abertzaleek bat baino ez. Udala osatu zenean eta alkatea eta beste karguak aukeratzeko eman ziren bozketen ostean, honela geratu zen eratuta Gernika-Lumoko Udala errepublikarra:

Gernika-Lumoko Errepublikako udala

Kargua	Izena	Alderdia
Alkate	Sebero Altube	EAJ
1. Alkateorde	Victoriano Ascondo	Karlista
2. Alkateorde	Lorenzo Omaeche varría	Independiente
Síndikoa	Raimundo Obieta	Karlista
Zinegotzi	Isidro Arrien	EAJ
Zinegotzi	Juan Bareño	EAJ
Zinegotzi	Enrique Amurrio	Karlista
Zinegotzi	Ismael López F rancés	Errepublikarra
Zinegotzi	Mariano V iguri Ortiz de Zárate	Errepublikarra
Zinegotzi	Romualdo Elguezabal	Errepublikarra
Zinegotzi	Elías Arrien	Independiente
Zinegotzi	Juan José Omaeche varria	Independiente
Zinegotzi	Basilio Astelar ra	EAE

Gernika-Lumon eman ziren hautagaitza kopuru handiak, seguruenik, Espainiak bizi zituen aldaketak sortutako nahasmena edo alderdi desberdinetako kideen arteko harreman pertsonaltarren ondorio izan zitekeen. Hurrengo hilerako bukatu egin zen indarren sakabanatze hori. Ekainak 28rako konbokatutako hauteskunde orokor konstituziogilerako, alde bitan banatu ziren alderdi politiko guztiak. Errepublikaren jarrera progresista defendatzen zutenak, batetik, eta ordenu soziala eta erlijioa defendatzen zutenak, bestetik. Lehenen artean errepublikarrak, sozialistak eta EAE zeuden; bigarrenean, EAJ, karlistak, monarkikoak eta eskuineko beste sektore batzuk. Azken hauek segidan aipatzen den programa minimoaren atzean jarri ziren:

Estimando, sin embargo, que las circunstancias actuales requieren la aportación, y en lo que necesario fuera, la supeditación de las determinaciones propias a un propósito de común actuación que garantice la defensa de aquellos supremos postulados que están por encima de todas las diferencias políticas, se ofrece en colaboración tan generosa como entusiasta, sin renunciar a la integridad de sus ideales, a cuantos hermanados en la sinceridad de la fe católica y en el amor acendrado a nuestras libertades forales se disponga a constituir un haz común de sacrificios y esfuerzos, que responda a los requerimientos del máximo deber que hoy pesa sobre la conciencia de los buenos católicos y sobre el corazón de los verdaderos vascos [...].

Religión, familia, orden, propiedad, escuela cristiana, etc. son capítulos fundamentales que pertenecen al programa de todos los partidos verdaderamente católicos (*El Pueblo Vasco*, 1931-V-1).

Planteamendu orokor horiek guztiak Lizarrako estatutuan gauzatu ziren. Jakinaenez, estatutu horrek Euskal Herriaren esku jartzen zituen erlijio mailako eskuduntza garrantzitsuak, errepublika laikotik babesteko asmoz. Estatutu horretan denek zituzten gustuko gauzak. Erlijioa defendatuz gain, abertzaileak urte askoan eskatzen zebiltzan autonomia Errepublikan lortzeko aukera ikusten zuten; karlista eta eskuineko beste indar batzuentzat Errepublikaren aurka egiteko modua zen. Helburu kontrajarri horiek ez ziren nabariak 1931ko ekainean, eta etsai handiak ziren indarrek lan bateratua egiteko aukera eman zieten. Lan horren adibide nagusia hauteskunde konstituziogileetara koalizioko kandidaturak aurkeztea zen. Baina lan bateratu hori alderdi politikoei bultzatu beharrean, Errepublika hasieran sortutako udalen mugimenduari utzi zitzaion egiten. Estatutuaren ezaugarriak Lizarrako asanbladan finkatu ostean, hauteskundeetara elkarrekin aurkezteko pausua eman zuten. Hurrengo testuak agertzen ditu zeintzuk izan ziren kandidatura horien programa:

La Unión de Municipios vascongados, representación genuina del país, cuya actuación en defensa de las tradiciones forales y de los sentimientos religiosos, que constituyen una de sus más firmes características culminó en el importante acto de Estella, se dispone a completar su obra. Tratada, al efecto, de presentar por cada una de las provincias vasconavarra en las elecciones para las Constituyentes una candidatura que interprete autorizadamente el sentimiento vasquista, tan vigorosamente acusado en la Asamblea de Estella, y le vante su voz en defensa de las tradiciones vascas y de los sentimientos religiosos que ninguna ley y secularizadora podrá desarraigara.

Se trata de llevar al Parlamento diputados que defiendan con energía y tesón la causa de los católicos en el país vasco, reivindicando para la región la facultad de ordenar la vida religiosa, de acuerdo con la Iglesia y acomodándose, al establecer las normas jurídicas que la nueva estructura jurídica del Estado y la organización autonómica hagan necesaria, a la voluntad del país, unánimemente manifestada de modo invariable a través de los tiempos (*El Pueblo Vasco*, 1931-VI-18).

Gernika-Lumori zegokion barrutian –hiriburua eta eremu industrialak osatzen ez zuten probintziako zatia zegokiona– Jose Antonio Agirre jeltzalea eta Marcelino Oreja karlista eta jaiotzez ibarrangeluarra zena aurkeztu ziren. Aurrez aurre errepublikarrak eta sozialistak, Ramón Madariaga eta Julián Zugazagoitia. Azkenik, EAEk ere hautagaiak aurkeztu zituen. Autonomia zela eta, errepublikarrekin zituzten desberdintasunak kontuan hartuta, bakarrik aurkeztea erabaki zuten. Luis Areitioaurtena eta Luis Urrengoetxea aurkeztu ziren hautagai. Euskal Herri osoan hauteskunde kanpaina bizia izan zen. Propaganda ekitaldi ugari antolatu ziren, Gernika-Lumon ere bai, eta prentsan eguneroko agertzen ziren alde nagusi biko arto desberdintasunen inguruko eztabaidak eta, askotan, irainak ere. Hauteskondeek interes eta bizitasun handia izan arren –abstentzio baxua izan zen horren adierazle: %20–, Gernika-Lumon lasaitasun osoz pasatu ziren. Lizarrako estatutuaren aldeko kandidaturak irabazi zuten Gernika-Lumon, barrutian zein Euskal Herrian, non 22 eserlekitik 15 lortu zituzten.

Kandidatura katolikoaren bultzatzaileek Gernika-Lumo aukeratu zuten garaipena ospatzeko eta aukeratutako diputatuak erlijioa eta estatutua

defendatuz Madrilera joan aurretik agurt zeko. Horren jendetza handia esperozen, ezen kaleen norabidea aldatu eta parking bereziak jarri baitziren bisitari guztiak autoak aparkatzeko. Uztailaren 15ean diputatu berriak herrira heldu ziren, eta espero zen bezala, jendetzak lagunduta. Udaletxera haldutako bitartean, zaleen txalo artean zeharkatu zituzten herriko kaleak. Udaletxeko enparantzan Elai-Alai dantza taldea eta musika banda aritu izan ziren giroa alaitzen. Oturuntzaren ostean, udaletxean egin zen mitinean, Pildain abadeak laburbildu zuen Madrilera joanda zein zen diputatu guztien helburua:

Mañana, Dios mediante, saldremos camino de Madrid, no a pedir limosna, no a suplicar, no a mendigar; se acabaron ya a los tiempos vergonzosos (o vergüenza) de las mendicidades afrentosas; no iremos como la otra vez los diputados vascos, a pedir al Gobierno español; vamos a exigir, a reclamar, a reivindicar lo que es nuestro, a reivindicar las facultades que están contenidas en el Estatuto de Estella y entre ellas aparece la que vosotros, señores que habéis asistido a la misma mayor, sabéis que es la de entenderse con la Santa Sede sin que interviniera el Gobierno de Madrid ni ningún Gobierno español. [...]

Y vamos a pedirlo en el nombre de la libertad vasca, en nombre de la libertad de Euzkadi, que está por encima de los Parlamentos, de todos los Estados y de todas las Constituciones españolas y no españolas habidas y por haber (Euzkadi, 1931-VII-14).

Hauteskunde horien ostean, Gernika-Lumok lasaitasun-aldia bizi izan zuen. Ez zen eman eztabaida ezta gertaera politiko aipagarrikerik ere 1933 urte bitartean. Izan ere, herriko alderdi desberdinen arteko erlazioa baketsua izan zen, beraien arteko diferentziak handiak izan arren. Aztertu dugun bezala, alderdi guztiek hazkunde eta antolaketa lan garrantzitsuak egin zituzten, eta herrian ez zen sumatu beste leku bat zuetan ematen ziren liskar odoltsu eta borrokak. 1933ko hauteskundeek berriro jarri zituzten martxan alderdien makinariak eta, urte horretako klima politikoa pil-pilean egon arren, lasaiak izan ziren berriro ere herriko hauteskundeak, propaganda ekitaldi ugari egin arren.

Baina urte horietan, Euskal Herriko testuinguru politikoak aldaketa nabarmenak bizi izan zituen. 1932an Lizarrako Estatutuaren aldeko alderdiak banatu egin ziren. EAJ ez zegoen prest Errepublikaren aurka ekiteko –karlistek eta eskuindarrek nahi zuten bezala–, ikusi egin baitzuten legalitatea erabiliz autonomia lortzeko modua zegoela. Koalizioko beste partaideek erlijio aldetik ezaugarri bereziak zituen estatutua defendatu eta Errepublika ezegonkortzea nahi zuten. Ahal zuten arazo eta oposizio zabalena sortu nahi zuten, erregimen berria deuseztatu arte, 1936an egin zuten bezala. Koalizioa apurtzearen ondorioz, euskaratik politikak ezaugarri berriak izan zituen. Alde batetik, errepublikarrak eta, bereziki, sozialistak zeuden erregimen berriaren sostengu bezala. Beste aldetik, karlistek eta monarkiko eskuindarrek errepublikaren aurkako jarrera izan zuten. Bien artean, EAJ jarri zen. Legalitatea onartzen zuen eta Euskal Herriarentzako autogobernu posible handiena lortzeko lan egiten zebilen. Beraz, mutur bien artean kokatuta zegoen.

Hala ere, 1933ko azaroan hauteskundeak egin arte, abertzale zein errepublika aurkako etsai nagusia sozialistak ziren. Lehenen kasuan, legalita-

tea onartu arren, Bizkaiko Gobernadore Zibilen errepresioa eta pertsekuzioa jasan behar izan zuten. 1932 urtean Bermeon emandako gertaerak oso entzutetsuak izan ziren, baina hurrengo urteko udaberrian berriro indartu zen pertsekuzioa. Niceto Alcalá Zamora Errepublikaren presidentea maitatzen Bizkaira bisitan etorri zenean, zenbait manifestazio antolatu ziren etorrerari arbuia zeko. Guardia indarrez disolbatu zuten emakume abertzaleen manifestazio bat, eta EAJko emakumeak ere ez errespetatzea irain bezala hartu zuten. Ondorioz, 24 orduko greba deialdia egin zuten maiatzaren 4rako. Jarraipen handia izan zuen grebak, baita Gernika-Lumon ere. Dendek ateak zarratu zituzten eta industriek ere gauza bera egin zezaten ere saiatu ziren, baina ez dakigu lortu zutenentz. Greba egiteagatik, Brigada de los Social-ekoek espedientea zabaldu zuten eta beste leku askotan bezala, ateak itxi zituzten herriko merkatariek zigortu egin zituzten 250 pezetako isunarekin. Maiatzetik irailera bitartean, abertzale asko atxilotuak izan ziren, multak jarri zitzaizkien, propaganda ekitaldiak debekatu... Gobernadoreak hartutako neurrien beste adibide bat dugu, abuztuan Gernika-Lumon hartu zutena. Herriari Institutu publikoa zabaltzeko kudeaketak hasi zirenean, alkateak aipatu zuen Euskal Herriari espainiar heziketa ematearen aurka zegoela. Hori aintzat harturik, Gobernadoreak kargutik kendu zuen alkatea, Sebero Altube.

1933 urtean, azkenean, EAJ eta PSOEn arteko harremanak bideratu egin ziren nolabait, Gobernua Diputazioko gestoren estatutua onartuzeko pausuak ematen hasi zenean. Lehenik, Euskal Herriko udalen ordezkariak testua onartu behar zuten, eta, horretarako, abuztuaren 6an asanblada egin zen Gasteizen. Ekitaldi horretara Enrique Amurrio karlista joan zen eta alde bozkatu zuen, bere alderdiaren planteamendu erreionalistak jarraituz. Gero, testua onartu emateko, erreferendumean onartu behar zen. Hori egiteko, 1933ko azaroaren 5eko data jarri zen. Bertan, EAE, EAJ eta errepublikar erradikalak baino ez zuten baiezko botoa eskatu. Karlisen kasuan, nafarrek eta arabarrek, bizkaitar eta gipuzkoar alderdikideekin estatutuaren inguruan zituzten diferentziak ez areagotzeko boto askatasuna eman zieten jarraitzaileei. Sozialistek eta Acción Republicana-k, ordea, estatutuaren onarpenak sor zezakeen giroa segidan egin behar ziren hauteskunde orokorretan ez errentabilizatuzeko abstentzioa eskatu zuten.

Alderdiak jarri zuten interes desberdina kontuan izanik ere, estatutuaren aldeko jarrerak irabazi zuen Gernika-Lumon. Baiezkoaren alde zeuden alderdiak –karlisten sektore bat ere, beharbada-ziurtatuta zuten garaipena. Hala ere, herriari lortu ziren emaitzak manipulatu egon zirela a diezaten dute. Hauteskunde horietan izan zuten emakumeek lehenengoz botoa emateko aukera eta, horren ondorioz, herriko hauteskunde erroldak hiru mila hautesle baino zenbait gehiago izan zituen. Kopuru horretatik % 46 baino ez ziren abstentitu eta 2.848 boto izan zituen alde. Parte-hartze handi hori sinestezina da, mobilizazio handiagoa eman zenean, normalean % 20ra heltzen zelako. Seguruenik, hauteskunde mahaiaren kontrol falta handia zegoelako eman zen emaitzen “handitze” hori. Estatutuaren alde zeuden alderdiak baino ez zirelan egon eta aukera horretaz baliatu ziren. Hala ere, herriari abertzaleek defenditutako jarrera atera zen garaile, baina ez horren diferentzia handiarekin, azaroan bertan egin ziren hauteskunde orokorretan agerian geratu zen bezala.

Erreferendum horretan estatutuaren testua onartu zen. Hurrengo pausua, 1933ko abenduan, estatutua Gorteak onartzea zen. Horretarako, euskal udalen komisio bat joan zen Madrilerara, eta Gernika-Lumotik Enrique Amurrio alkateordea joan zen. Baina 1933 urtean kudeaketak hartu zuen azkartasunak ez zuen ezertarako balio izan. Azaroan gobernua aldatu zean eta eskuinekoa boterera heltu zean, estatutuaren onarpen prozedura bere horretan geratu zen. 1936an, Guda Zibila hasi eta gero, eta berriro ere gobernua aldatu zutenean, hiru probintzietarako autonomia lortu zen azkenean.

Erreferenduma bukatu eta egun gutxi ira, hauteskunde orokorrak konbokatuta ziren. Deialdi horretan berrikuntza biko eman ziren. Alde batetik, aipatu dugunez, emakumeek ere botoa emateko eskubidea lortu zuten eta turte horretatik aurrera, hauteskundeetan hasi ziren parte-hartzen. Errolda bikoiztu izanak gehitu egin zituen hauteskunde lanak. Lehen, hiru hauteskunde-mahai kontrolatu behar izatetik, sei kontrolatuzera pasatu zirelako. Horretaz gain, ezaguna zen emakumeek alderdi katolikoan alde bozkatu zutela, baina ez ezaguna zen esparru horretako zein alderdik lortuko zuen emakume gehien erakartzea. Hori ez zen edozelako zalantza, zeren urte horretan 1.268 gizonetako eta 1.759 emakumetako hautesle biltzeko; beraz, azken horiek herriko botoaren lerrokat zeak aldatu handia suposatuko zuten. Bestalde, Euskal Herriko politika hiru zutabetan banatu zen lehenengo Errepublikan; hirurek aurkeztu zituzten kandidaturak Gernika-Lumori zegokion barrutian. Sozialistek eta errepublikarrek bere hautagaiak aurkeztu zituzten egingandako gobernu-lana defendatzeko. Karlistek eta monarkikoek, berriz, lan hori gaitzestu egiten zuten erlijioaren aurka hartutako neurriengatik, batez ere. Planteamendu horien artean, Espainiaren batasunak zituen arriskuak aipatzen ziren. Azken zutabea EAJK osatu zuten eta honen estatutuaren aldeko defentuak. Hauteskunde egun lasai baten ondoren, EAJ irten zen garaile herrian. 1.139 boto lortu zituen, emandakoen % 47,5. Eskuineko koalizioak 965 boto lortu zituen, emandako guztien % 40, eta bigarren lekua lortu zuen; azkenak errepublikarrak eta sozialistak geratu ziren. 282 boto lortu zituzten, emandakoen % 11.

Hauteskunde horien garrantzia handia izan zen Bigarren Errepublikaren bilakaeran. Sozialistek eta errepublikarrek galdu egin zuten Espainia mailan, eta eskuineko indarrek, ordea, irabazi. José M^a Gil Robles eskuindarra eta Alejandro Lerroux errepublikar erradikala izan ziren irabazleak. Lehenengo biurtekoan egindako erreforma guztiak baliogabetzea izan zen egin zuten lana. Horren ondorioz, gobernura heltu zean, erlijioak ustetuz bizi izan zuten arriskuak bukatu egin ziren bat-batean. Elizaren inguruko gaiek garrantzia galtzean, beste batzuk bilakatu ziren eztabaidagai. Nazioaren ingurukoa izan zen garrantzitsua, Euskal Herrian, bereziki, non abertzaletasuna eta Espainolotasunaren arteko eztabaida izugarri indartu zen. Kontrarreforma horien artean, estatutuaren onarpeneko bidea etetea izan zen bat. Hurrengo biurtekoan eratu ziren gobernuen autonomiaren bidea etetea erabaki zuten, haien ustez, bide horrek Espainiaren batasuna arriskuan jartzen zuelako. Autonomiaren bidea jorratzeak separatismoa ekar dezakeen denbora gutxi ira. Alor horretan Katalunian emandako lorpenak deuseztatzen saiatu ziren, eta protesta ugari sortu ziren. Euskal Herrian autonomia lortzeko prozedura ete-

teia izan zen hartu zuten neurria. Horren guztiaren ondorioz, Espainian zeuden identitate nazional desberdinen arteko eztabaida izan zen 1936 urtean egon zen gairik garrantzitsuenak.

Testuinguru horretan kokatu behar da 1934 urteko enfrentamendu politikoa, non Gernika-Lumon emandako gertaerak garrantzi handia izan zuten. Ogasun Ministroak zuzenean kobratu nahi izan zituen zenbait zerga, Kontzertu Ekonomikoan onartuta zegoenari jaramonik egin gabe. Alor horretan eman zen tentsioa ikaragarri handitu zen ardoaren gaineko zerga kobratu nahi izan zutenean. Horregatik, oraintxe bertan aztertuko ditugun gertaerak Ardoaren Estatutua izenaz dira ezagun. Neurri hori Kontzertuan esandakoaren aurka zegoen berriro ere, eta, gainera, herriaren errekurtsio iturri garrantzitsuenak izatean, udal ogasuna krisian jar zezakeen. Ondorioz, udalak Kontzertu Ekonomikoaren aldeko mugimendua hasi zuten, Diputazioek, orain gobernuaren kolore berekoak, era egokian defendatu ez zituztelako. Euskal Herriko udal askok ordezkaritza bidali zituzten batzarrera, uztailearen hasieran; Gernika-Lumotik Amurrio karlista, berriro ere. Bertan, Kontzertu Ekonomikoaren defentsa arduratuko zen komisioa aukeratu zea erabaki zen. Horretarako, euskal zinegotziak parte hartuko zuten elekzioa konbokatuko zuten abuztuaren 12an.

Gobernadore Zibilak komisio horrekin Diputazioa –ez da ahaztu behar gobernuak aukeratutako kideez osatua zegoela– ordezkatu nahi zela salatu zuen. Komisio horretako kideak herriaren ordezkaritza legitimoak zireneko zinegotziak aukeratu zirenean, Diputazioan zeudenak baino legitimitate gehiago izango zuten. Horregatik, Gobernadoreak hauteskunde horiek debekatu egin zituen eta, egitekotan, alkateen aurkako neurriak agindu zituzten. Udalen mugimenduan ere zatiketa egon zen, udalak gobernuaren aurka erabili nahi zituztelako monarkikoak eta karlistak, ez Kontzertuaren defendatzaileak. Gainera EAJK, sozialista eta errepublikarren arteko hurbilketa salatzen zuten. Izan ere, mugimendu horretan kolaboratu egin baitzuten, eta bazekiten zer zerabiltzan esku artean. Batzuek, Diputazio berriak osatu zeko hauteskundeak bultzatzeko; besteek, gobernuaren aurka egiteko, lan bateratua egin zuten mugimendu horretan. Horren adibidea Gernika-Lumoko udalean ikusi zen. Errepublikak hasieratik karlistek eta abertzaleek akordioak zituzten udala gobernatu zeko. 1934ko uztailean, abertzaleek eta errepublikarrek alkate berria aukeratu zuten, EAEn zinegotzia, Basilio Astelarra. Abuztuko komisio hori osatu zeko hauteskundeetan ere, Gernika-Lumoko barrutitik hiru abertzale –bat Gernika-Lumoko Julio Bareño zinegotzia– eta errepublikar bat –berriro ere herriko zinegotzia, Mariano Viguri– aukeratu zea akordio horien adibidea zen.

Hautatutako batzordeak irailaren 2a aukeratu zuen lehen asanblada egiteko eta Kontzertuaren aldeko manifestua onartu zeko. Zumarragan egin zen eta poliziaren presentzia handia egon arren, egiteko aukera egon zen. Baina Bizkaiko gobernadoreak ez zuen jarrera bera izan. Hauteskunde egunean segurtate indarren presentzia izan ez zedin agindu zuen. Gernika-Lumon, 12an barik, 14an egin ziren, eta arazo gabe egin ere. Gobernadorearen jarrera agerian geratu zen berriro irailean Gernika-Lumon. Zumarragako

bilerara Kataluniako zenbait Diputatu izan ziren gonbidatuak eta, bilera amaitzean, Gernika-Lumo eta Busturialdea bisitatzeko gonbitea jaso zuten. Bisitaldi hori arazoz josita egon zen poliziaren jarreragatik. Txatxarramendiko hotelean egin zen bazkarian ezin izan zuten toparik egin. Sukarrietan Sabino Aranaren hilobira eta Bermeora eginiko bisita ere tentsioz bete izan zen. Baina eguneko gertaera larrienak Gernika-Lumon eman ziren, bisitariak Gernikako Arbola ikusten joan zirenean. Herrian jendetza ikaragarriak itxaron zien Kataluniarrei. Gobernadorearen ustetan, 3.000 edo 3.500 pertsona bitartean. Arazoak Juntetxean hasi ziren, bisitariak argazki bat atera nahi izan zutenean. Poliziak debekatu egin zien eta dantzariak zituzten ikurrina bitartean saiatu ziren eta ezpataz apurtu ziren. Orduan polizia eta Jose Antonio Agirreraren arteko liskarra hasi zen, ikurrina ezkutatzeko ahaleginak egin zituztenean. Orduan, polizia-buruak, « manifestación sediciosa » eta « un acto de afirmación nacionalista » egin nahi zela argudiatuz, kargak hasi zituen, herrian zauritu ugari sortu zituen.

Gertaera horien ondorioak era bitakoak izan ziren. Alde batetik, Gernika-Lumon errepublikan hedatuta zegoen lasaitasuna eten egin zen une batez. Udala ohiz kanpoko bilera deitu zuen istiluak gaitzesteko. Karlistek ez ezik, denek onartu zuten gaitzespena eta horrek udalaren kanpoan zegoen jendearen haserrea sortu zuen:

Después de la sesión, el público que se hallaba frente a la Casa Ayuntamiento, sabedor de que los concejales monárquicos no habían suscrito los despachos de que damos cuenta, aguardó la salida de éstos para abuchearles y afeárselos su conducta.

Los guardias civiles hubieron de intervenir para disolver los grupos, repartiéndoles buen número de culetazos.

A última hora de la noche se nos comunica que la Guardia civil se halla montando guardia frente al Círculo Tradicionalista, ignorándose las causas que han podido determinar esta vigilancia en el lugar indicado (*Euzkadi*, 1934-IX-6).

Bestetik, udaletako batzorde exekutiboek erabaki gogorra hartu zuten irailaren 5ean:

Reunidos los comités ejecutivos de los Ayuntamientos del País Vasco, examinaron con todo detenimiento la gravísima situación por que atraviesa el país, como consecuencia del sistema represivo que el Poder central utiliza en contra del normal desenvolvimiento de los Concejos vascos, causando ofensas al fuero municipal y a las libertades administrativas reconocidas desde tiempo inmemorial en este país; y en virtud, se adoptaron los siguientes acuerdos:

Primero.- La dimisión colectiva de todos los Ayuntamientos del País Vasco.

Segundo.- Dar cuenta de este acuerdo a los parlamentarios vascos y partidos políticos interesados en la defensa de los intereses del país.

Tercero.- Facultar a los alcaldes de las tres capitales para la ejecución de la dimisión colectiva el día 7 de los corrientes.

Cuarto.- Que las Comisiones definitivas continúen en sus funciones para la defensa del Concier to económico, de la autonomía de los Municipios y de los procesos y multas contra alcaldes y concejales.

Bilbao, 4 de septiembre de 1934 (*Euzkadi*, 1934-IX-5).

Erabaki hori onartu zuten, eta Bizkaiko eta Gipuzkoako udal guztiak dimittitzen hasi ziren. Araban txikiagoa izan zen eragina. Gernika-Lumon ere gauza bera egin zuten, hain zuzen ere, horretarako deitutako bileran. Gobernadoreak kargua uzteagatik, kargu publikoak hiru urtez betetzeko debekuarekin zigortu zituen. Gainera, zinegotziek dimittitu zuten herrietan batzordeak izendatu zituzten. Besteetan, udalak funtzionatzeko beste zinegotzi zeuden herrietan, Gernika-Lumon besteak beste, udala mantentzea erabaki zuten. Hala ere, gerora dimittitu zutenak ordezkatu egin zituen batzorde horrek eta beste gestore batzuk izendatu zituzten, udaletxean geratu ziren alderdikoak, jakina: karlistak eta monarkikoak. Izendapen horiek egin zirenean, herrietan tentsioak bizi izan ziren.

Zergen inguruko arazoak sortutako tentsioa, beste gertaera aipagarri batek ordezkatu zuen berehala. Errepublikaren gobernura eskuineko indarrak heldu zirenean, sozialistek bultzatutako erreformak balio gabetuta geratu ziren. Egoera horrek alderdi eta sindikatu sozialistaren barnean zeuden desberdintasunak areagotu egin zituen. Bide legala jarraituz emaitza onik ez zutela lortzen ikusirik, sektore ugari erradikalizatu egin ziren, eta komunistek zuten jarrerarekin bat egin zuten. Erradikalizazio horren ondorioz, gero eta jarraitzaile gehiagok uste zuen errepublika burgesa baztertu eta boterea indarrez hartu behar zutela, sozialisten programa osotasunean ezartzeko. Bide horien jarraitzaileak nagusitu zirenean, Espainian iraultza egiteko lanak hasi ziren. Azkenik, 1934ko urriaren 4an hasi zen.

Asturias eta Kataluniaz kanpo, Euskal Herriko zonalde industrialetan izan zuen iraultzak jarraitzaile gehien. Gernika-Lumon ere eragina izan zuen, baina leku horietan baino intentsitate txikiagorekin. Iraultza antolaketa era bitan egin zen. Alde batetik, hamar pertsona osatutako talde armatuak eratu ziren. Gernika-Lumon ez dago horrelakorik sortu zen berririk. Hala ere, Guardia Zibila jakinaren gainean zegoen sozialisten mugimenduz, eta herriko arma enpresak babestu zituen bereziki, iraultzaileen eskuetan armak erori ez zitezten. Bestetik, urriaren bosteko greba orokorrerako aldia egin zen. Gernika-Lumon jarraipena izan zuen. Industrian eta trenean lan egiteari utzi zitoten, eta herriko dendak ateak itxi zituzten. Jarraipen hori lortzeko pike-teak ibili ziren herrian. Guardia Zibila greba horren aurrean herriko Casa del Pueblo itxi zuen eta herriko buruzagi sozialistak atxilotu, baina grebak jarraitu egin zuen.

Gernika-Lumo bezalako herri katoliko batean iraultza aldeko lanak ikusteak izua sortuko zuen herritarren artean. Ez soilik elikagaien eta beste premiazko gaien hornikuntza zeuden arazoengatik, herrira marxismoa eta horrek zekarren guztia erakar zezakeelako. Grebak urriko 13ra bitartean jarraitu zuen. Egun horretan langileak lanera bueltatzeko agindua eman zen,

iraultzaileek kontrolatzen zituzten eremuak galtzen ari zirela ikusi bait zuten. Sozialistek, logikoki, erabaki horren erantzukizuna jasan zuten, eta errepresio neurriak pairatu zituzten. Baina ez ziren bakarrak izan hori nozitzen. Urte horretako udaberrian abertzaile eta sozialisten arteko hurbiltzeaz baliatu, aurkariak eta gobernua EAJK iraultzearen parte-hartez zuzena izan zuela salatu zuten. Horren ondorioz, Gobernadore Zibilak abertzaileen batzoki eta egoitza ugari itxi zituen, Gernika-Lumoko batzokia, besteak beste, emakume abertzaileen egoitza eta EAEren Euzko-Etxea. 1935eko maiatzean kolaborazio hori frogatzerik ez zegoenez, neurri horiek bertan behera geratu ziren.

Errepresio neurri horiek eragina izan zuten herriko alderdi horien lan politiko publikoan. Propaganda ekitaldiak desagertu ziren hilabete luzez. Lan horiek berriro berreskuratu ziren 1936ko otsailerako hauteskunde orokorretako deialdia egin zenean. Deialdi horretan berriro aurkeztu ziren lehen aipatu ditugun hiru esparru politikoak. Hauteskunde horietara aurkezteko asmoa agerian utzizutenak, eskuineko alderdi guztiek osatutako koalizioa izan zen. Karlistek eta alderdi monarkiko desberdinek "eskuineko koalizioa" eratu zuten berehalakoan, urriko iraultzaile eta bere konplizeen aurka borrokatzeko. Oso planteamenduak argiak zituzten: iraultza eta kontrairaultza eta Espainia eta anti-Espainiaren arteko borroka zegoen momentu hartan Estatuan. Ezkerreko alderdiak irabaziz gero, alderdi horiek oso argi zuten zer gertatuko zen:

Con este arrasamiento de la propiedad privada, la destrucción del sentimiento religioso y el deshacimiento del Estado, por medio de la supresión del ejército, que, desposeído de la moral, del sentimiento patriótico y del concepto de la jerarquía quedaría convertido en una milicia de proletarios al servicio de la revolución social y del bolchevismo de Moscú. España habría dejado de existir como nación civilizada. [...]

Del grado de energía y de virilidad con que se disponga a enfrentarse con tan siniestra perspectiva, depende que España siga su camino o se reduzca a una colonia, metida en la zona de influencia del bolchevismo ruso, y sus súbditos, gobernados como esclavos por un sovieta feroz, sanguinario y despótico, sin ley ni freno (*El Pueblo Vasco*, 1936-I-12).

Euskal Herrian, abertzaletasunaren aurkako borroka gehitzen zitzaien aipatutakoari. Sektore politiko horiek Espainiako zatiketa eta separatismoa jotzen zuten arriskutzat. Ondorioz, helburuak hurrengo leloak laburbiltzen du oso ondo:

contra el separatismo y el marxismo, que son la revolución, UNIDOS TODOS (*El Pueblo Vasco*, 1936-II-14).

Koalizio horrek, karlistak buru, deialdi horretan propaganda eta hauteskunde makinaria oso ondo antolatua zuen. Lehenengoz 1933an emandako pausuak 1936an sakondu ziren. Izan ere, Gernika-Lumon propaganda lan handiena egin zutenak berriak izan bait ziren. Herrian mitin handiak antolatu zituzten eta inguruko herrietan propaganda lanak egitea ere ez zuten ahaztu. Hauteskunde eguneko lanetan ere oso ondo ibili ziren.

zuten aldatu herriko elektzioen elektzagarri herri. Alketan ez zuten protestarik agertu; beraz, zentzu horretan "garbiak" izan ziren. Prentsan salatu egin ziren enpresariet langileei eta baserrietako jabeek maizterrei eginiko presioak. Hala ere, ez dirudi praktika horiek bestetan baino gehiago eman zirenik, zeren argiak izan balira, prentsan salaketa zehatzagoak egingo ziratekeen. Aipagarria da, halaber, 1936ko otsailean Gernika-Lumon izandako emaitzak 1933ko hauteskundeetako emaitzen antzekoak izan zirela; ez zen aldaketa handiegirik eman. Bazirudien hautesleen artean alderdi bakoitzak bere esparrua tinko mantentzen zuela, bere muga lortu zuela eta ez zela boto aldaketa esanguratsurik eman. Abertzaleek 1.166 boto lortu zituzten, herrian garaile argiak izan ziren, emandako botoen % 47,7 lortu baitzuten. Bigarren tokian Eskuineko Koalizioa geratu zen. 968 boto lortu zituen, emandakoen % 39,6. Azkenak Fronte Popularrekoak izan ziren, bigarrenetik distantzia handira, gainera. 281 boto lortu zituzten, emandakoen % 11,5.

Hala ere, hauteskunde horiek errepikatu behar izan ziren. Hauteskunde legeak zioenaren arabera, garaileek botoen % 40 baino gehiago lortu behar zituzten emaitzak ontzat hartzeko. Hori gertatu ezenez, abertzaleen boto kopurua gutxitu egin baitzen, hauteskundeak errepikatu behar izan ziren Bizkaiko barrutian, martxoan. Momentu horretarako hauteskundeetako emaitzak ez ziren oso garrantzitsuak. Espainia mailan Fronte Popularrekoek garaipen argia lortu zuten eta lortutako gehiengoa ez zegoen aldatzerik martxoko emaitzekin. Hala ere, Gernika-Lumoan emaitza berdintasunak lortu zituzten hiru hautagaitzek.

Fronte Popularraren garaipenak beste politika aldaketa ekarri zuen errepublikara; eskuinak eginiko lana berriro alde batera utzi eta errepublikaren hasierara bueltatu zen. Iraultzaileentzako amnistia eta 1934ko udan bertan behera geratu ziren udalen lehengoratzeari onartu zen. Gernika-Lumon, EAEko Basilio Astelarra bueltatu zen alkate izatera. Lehen biurtekoan egin ziren erreformak, bereziki Espainiako nekazal eremuan, berriro martxoan jarri ziren. Eta, Euskal Herrian garrantzitsua izan zena, autonomi estatutua onartzeko prozedura berriro ere jarri zen martxoan.

1936ko udaberrian klima politikoaren erradikalizazioa eman zen eta ezker eta eskuinaren arteko borroka asko gogortu zen. Hala ere, Espainiako beste leku batzuetan bizi izan ziren borroka horren adibide gogorrenak. Euskal Herriko alde askotan, eta bereziki Gernika-Lumon, lasaitasuna izan zen nagusi. Horretan asko lagundu zuten EAJ eta Fronte Popularraren arteko erlazio onak. Estatuko beste zonalde batzuetan sumatzen zen enfrontamendua gordina ez zen hemen horren gogorra. Beraz, Gernika-Lumoko egoera ikusirik ez zegoen pentsatzerik urte horretako uztailan Franco eta militarrek altxamendua hasiko zutenik errepublikarekin bukatzeko. Seguruena, herriko zenbait karlistek izango zuten militarren planen berri, eta Bizkaiko karlistek gidatuko zituzten altxamenduan parte hartzeko prest zeudenak, baina ez dirudi gehiegi izango zirenik. Gernika-Lumon ez dugu karlisten talde paramilitarren erreketek berririk, ezta herrian horrelako erakunderik zegoenik ere. Beraz, Bizkaian eman zen gernikarren parte-hartzeak porrot egin zuen altxamenduan. Seguruena, garai haiek bizi izan zituen pertsona batek bonbar-

daketari buruz egin den lan batean adierazi zuen moduan, jendeak ez zuen espero horrelakorik:

Un día de despertamos como que estábamos en guerra y la gente pues con sorpresa, sorprendida, porque no sabíamos ni por qué.

4.2.4. Espainiako Guda Zibila eta bonbardaketa (1936-1937)

Espainiako Guda Zibila Gernika-Lumoko epe historiko tristeena izan zen, azkeneko mendeetakoa bai, behintzat. Gerrak sortu zituen arazo eta oina-zeaz aparte, 1937ko apirilaren 26an alemaniar eta italiar hegazkinek herria suntsitu zuten.

1936ko uztailaren 18an Francoren tropak errepublikako gobernuaren aurka alt xatzeak eragin zuen ustekabearen ostean eta arazoa konpontzeko luzerako joko zuela ikusita, Gernika-Lumoko alderdi politikoak antolatzen hasi ziren egoera berriari egokitzeko. Helburu horrekin, eta, leku guztietan egin zen bezala, herrian Errepublikaren Defentsarako Komitea eratu zen gerrak sortu zuen egoera gidatzeko, udaletxeak alde batera utziz. Kontuan izan behar da udala altxamenduaren alde zeuden zenbait alderdiren kideak zeudela. Beraz, ez zen batere egokia haien esku uztea herriko agintaritzak. Komite hori ezkerreko alderdiek eta errepublikarrek gidatu zuten lehenengo momentutik. Logikoaenez, errepublikaren aldeko indarrak izan ziren lehenak bertan parte hartzen. EAE, PSOE eta UGTko sozialistek eta alderdi errepublikarrek gehien-egoa zuten, baina Alderdi Komunistako kideak eta Juventudes Socialistas Unificadas-ekoak ere bazeuden. Hori dela eta, posible izan da lehen aldiz dokumentatzea mugimendu horretan parte hartu zuten sozialista erradikal eta komunisten presentzia herrian. Gernika-Lumon oso gutxi izan arren, komunisten berri izateak adierazten du gerra hasi eta berehala, alderdi politikoak indartu eta aniztasuna eman zela. Gerra piztu zenean, alderdietan parte hartzeko grina piztu zen errepublikaren alde zeuden herritarren artean, hotz eta egoera berriaren aurrean, zerbait egiteko gogoia, herrian bertan edo frentean.

EAJ sortu eta egun batzuetara sartu zen erakunde horietan, errepublikaren alde jartzea erabaki zutenean. 1934 urteko iraultzaren ostean, eta Espainiako beste alde batzuetan gertatutakoa ikusirik –Eliza eta abadeen aurkako erasoak, lurren kolektibizazioa...–, abertzaleak beldur ziren ezkerreko alderdi erradikalenak gerra egoeraz ez ote ziren baliatuko berriro ere iraultza egiten saiatzeko. Horren ondorioz, EAJ erakunde berrietan zer gertatuko zen zain geratu zen, baina beste esparru batean izan zuen parte-hartzea zabala izan zen. Gerra hasita, alderdi politikoko kideek miliziak eratu zituzten herriko ordena mantentzeko eta etxeko kontrolatzeko. Lehenik, ezkerreko kideek osatu zituzten talde horiek, baina abertzaleak ere berehala hasi ziren taldeak eratzen, aipatu ditugun “arriskuak” ekiditeko. Lan horretan mendigoizaleak izan zuten betebeharrak handiena.

Erakunde berrien lan garrantzitsuenetarikoa, hornikuntza eta beharrezko ziren bestelako kudeaketaz aparte, herriko ordena publikoa mantentzea eta



Bonbardaketa osteko argazkia, herriko sutsiketaren irudia: gauean oraindik sutan (J.A. Arana Martija bilduma)

errepublikaren aurkako eta saien errepresioa bideratzea izan ziren. Liburu honek aurreko ataletan argi geratu da Gernika-Lumon monarkikoak eta karlistak asko zirela; izan ere, errepublika aurretik gehiengoa osatzen baitzuten. Jakinik esparru politiko horiek ordezkatzeko zituzten alderdiek altxamenduaren alde jarri zirela, ez zen batere komenigarria, ezta lasaigarria ere gudaren atzealdean "et saiak" izatea. Gudaren lehenengo hilabeteetan bazegoen beldurra alderdi horietako jarraitzaileak ez ote ziren altxatuko, errepublikaren alde geratu ziren herrialdeetan arazoak sortu eta frenteeetatik indar horiek erreprimitzeko milizianoak ekartzea behartuz. Hori zen, hain zuzen ere, garai hartan «quinta columna» izenarekin ezagutzen zen arriskua: atzealdean ere altxatuak agertzea bat-batean. Horregatik guztiagatik, eskuineko indar horien aurka errepresio neurriak hartu ziren. Baina Gernika-Lumon erlijioak garrantzitsuak handia zuenez, ez ziren beste leku batzuetan eman ziren fusilatzaiek edo beste neurri zorrotzak hartu. Hala ere, atxilotu ugari egon ziren herrian.

Lehen momentutik, herriko agintari errepublikarrek eskuindarrei iluntzean etxeratzea agindua eta politikari ezagunei udaletxean egunean birritan agertzeko ordenua eman zieten, kontrolpean izateko. Postaren kontrola ere ezarri zitzaizkien, eta baita irratia bahitu ere. Zenbait funtzionarioen kasuan, postutik kenduak izan ziren. Baina neurri "bigun" horiek gogortu egin ziren 1936ko abuztutik aurrera. Gipuzkoa altxatuen esku geratu eta frentea Bizkairantz hurbiltzen ari baitzen. Momentu hartan hasi ziren herrian eginiko lehenengo «desafecto»-en atxilotetak. Abuztuaren 28an herriko agintariak

zazpi pertsona atxilotu zituzten. Lehen sarekada horretan Arratzen Juan Tomás Gandarias atxilotzea ere aipagarria da. Gandarias, leku lasaiagoa eta ezkerreko indar gutxiago zeukana aurkitu zeko asmoz, Bilbotik Arratzen zuko base-ririra joan zen. Baina ezin izan zuen ezkutatu bere ibilbide monarkiko luzea eta atxilotua izan zen. Arratzen zutik Gernika-Lumora eraman zuten eta Bilbora eraman aurretik, herriko kaleetatik ibili zuten atxilotuta, biztanleen aurrean. Gartzelan izan zen Bilbon, baina denbora laburrez, zeren Indalecio Prieto sozialistarekin zuen adiskidantza baliatuz eta diru asko ordaindu ostean, libre geratu eta Frantziara pasatu zuen. Irailaren 12an bigarren atxilotuak saioa egin zen herrian: bost gazte atxilotu zituzten karlisten milizia-koak izateagatik eta armatuak egoteagatik. Hala ere, neurri zorrotz horiek ez ziren atxilotetean oinarritzen soilik. Gernika-Lumoko kasuan, egoera berezia eman zen: zenbait monarkiko ezagun herrian zeuden uda pasatu ostean, altxamendua eman zuten. Andrés Allendesalazar Gernika-Lumo barrutiko diputatu ohia, adibidez, edo Juan Antonio Llorente eskuineko diputatua –José María Gil Roblesen alderdikoa–, zein bere semea herrian irakaslea zenez, bisitan etorri baitzen. Hauei zaintza berezia jarri zieten. Azkeneko sarekada 1937ko martxoan egin zen eta 39 lagun atxilotu zituzten, «realizar una campaña deprimente en la retaguardia» salaketapean. Den-denak Bilboko kartzeletara bidali zituzten.

Errepublikaren herri mailako erakundeak sortu ostean, egin beharreko lan garrantzitsuena frontera joan eta miliziak eratuzea izan zen. Gernika-Lumon, frontera joaten lehenak Juventudes Socialistas Unificadas-eko kideak izan ziren. Uztailaren 21ean, autobus bete gernikar joan zen Otxandiora, non une hartan ematen ari baitzen bataila garrantzitsuena. Aitzindari horien ostean, ezkerreko indarrak izan ziren jarraitzaileak milizietan antolatzen eta frontera bidaltzen. Abuztuko azkenetarako, herriko hogeit lagun zeuden UGT eta Juventudes Socialistas-en batailoietan. Horietara ere herriko errepublikarrek jo zuten, beraiekin eratu zeko jende gutxi zegoelako. Busturialdeko komunistek, Gernika-Lumokoak barne, Gernikako Arbola batailoia sortu zuten, baina jende gutxi zegoenez, beste handiago batzuetara joan ziren lagun hauek. EAEkoek ere berea sortu zuten, Olabarri izenekoa, eskualdeko jarraitzaileak batzeko.

EAJ izan zen azken bere kideak frontera eramaten. Herriko ordena publikoa mantentzeko zuten helburu nagusitzat, lehen aipatu dugun bezala. Baina irailean, Fronte Popularrekiko mesfidantza bukatu zenean, autonomia lortzeko hurbildu eta alderdia errepublikaren gobernuaren alde jarri zenean, beraiek izan ziren Gernika-Lumotik frontera jende gehien bidali zutenak. Bere jarraitzaileak armen erabilera entrenatu zeko, agustindarren eskola-gaurko institutua konfiskatu zuten. Abuztuan, Lagako hondartza, eskualdeko kide guztien arteko praktikak eta maniobra egin ziren. Mila pertsona inguru batu ziren bertan. Agiriaren arabera, herrian 54 pertsona eman zuten izena, gutxienez, EAJren batailoia desberdinetan, Itxasalde izenekoan, batez ere.

Hala ere, herriko biztanle kopuru gehienak beste era batean hartu zuen parte gudan. 1936ko urrian, Espainiako Gobernuak Euskal Herriarentzako autonomia estatutua onetsi zuen. Hil horretako 7an, lehen Lehendakariak



Bonbardaketa osteko argazkia, herriko suntu saketaren irudia (J.A. Arana Martija bilduma)

Jose Antonio Agirrek, eta kontseilariak karguen zina egin zuten Gernikako Arbola aurrean. EAJk gehiengo zuen gobernu horretan, baina Fronte Popularreko beste alderdiek ere izan zuten tokirik. Hartu zuten lehendabiziko neurrietako bat, 1932 eta 1935ko kintan partaidea zen populazioaren mobilizazio orokorra onartzea izan zen, besteak beste. Modu horretan, herriko jende asko, hasieran bolondres gisa egin zutena, gero, behartu egin zituzten frontera joatera. Mobilizazio mota horrek zenbait karlista eta monarkiko soldadut zara deituak izatea ekarri zuen. Horietako asko abertzaleen batailoietara aurkeztu ziren bolondres, haietan erlijioa presente zegoelako, ez beste gudarostetan bezala.

Espaniako Guda Zibil garaian bestelako mobilizazioak ere egon ziren. Bazeuden erakunde berrietan edo frontean egoteaz gain, bestelako betebeharrak garrantzitsuak egiten zituztenak, Gernika-Lumoko herri industrial batean, esaterako. Herriko arma industria produkzio osoan egotea behar beharrezkoa zen milizia errepublikarrentzat, momentu hartan errepublikak ez zuelako arma hornikuntza egokirik. Horregatik, Bizkaiko Gobernadore Zibilak enpresa horiek bahitzea eta militarizatzea ordenatu zuen, 1936ko uztailan. Gernika-Lumoko armen industriaren kasuan ez ziren ekoizpen aldaketa gehiegirik eman behar, ejertzito errepublikararen beharrezkoak asetzeko. Zenbait kasutan,


Talleres de Guernica edo herriko mahai tresnen fabriketan, adibidez, beharrezko aldaketak ezarri ziren kartutxoaren karkasak edo armentzako bestelako metalezko piezak –bonben espoletak adibidez– ekoizteko. Herriko enpresa horietan ere garrantzitsua zen ekoizpena ahal zen neurrian gehitzea. Helburu hori lortzeko, herriko sindikatuen laguntza izan zuten agintariak eta hartu ere neurri egokiak hartu zituzten: langile trebatuak bere lanpostuetan utzi zituzten eta ez zieten bolondres frontera joaten utzi. Baina baziren beste arazo batzuk ere: gizonak frontean zeudenez, langile askoren beharra zegoen fabrika horietan lan egiteko. Emakumeen parte-hartze behar-beharrezkoa izan zen horretan. Emakumeek laguntza eta ospitaletan egiten zuten lan ordurako, baina fabriketara ere kopuru handian sartu ziren trebakuntza asko behar ez zuten lanpostuetan. Datu askorik egon ez arren, zenbait enpresatan emakumeek gehiengo osatzen zuten edo, behintzat, erdia. Lantalde hori osatzeko, Gipuzkoatik etorritako errefuxiatuek ere parte-hartze handia izan zuten. Donostia eta gero, probintzia guztia frankisten eskuetan geratu zenean, pertsona askok Bizkaira alde egin zuen. Gernika-Lumo izan zen errefuxiatuak hartu eta zaindu zituen herrietako bat. 1936ko irailean 1.250 gipuzkoar zegoen herrian, eta azarorako, 2.650ra heldu zen errefuxiatu kopurua. Udal agintariak lantegietan lan egiteko pertsona ugari lortu zituzten gizatalde horretatik, hala gizonak nola emakumeak.

Guda Zibila aurrera zihoan neurrian, Francoren aldeko tropak apurka-apurka Bizkairantz hurbiltzen joan ziren. Hala ere, armak heldu ziren atzerriko gudarietzat, eta urrian tropa horien abiadura etetea lortu zuten Bizkaiko eta Gipuzkoko muga ondoan, zenbait bataila odoltsu izan eta gero. Baina 1937ko apirilean, frankistek indartu egin zuten Euskadiko kanpaina eta aurrera egin zuten. Lekeitio eta Markina inguruak okupatu zituzten. Fronte leku horretara heltzean, Gernika-Lumoko historiaren unerik latzena bizi izan zen. Etortzeaz zegoenaren seinalea, apirilaren 26an, arratsaldeko lehenengo orduan, 16:30ean, Dornier 17 hegazkin alemaniar herriko zeruan bueltak ematen ikustea izan zen. Bat-batean hiru bomba leherkari bota zituzten. Azkenean, 50 kiloko hamabi bota zituzten. Modu horretan hasi zen herriko bonbardaketa, biztanleria zibilaren aurka era masiboan egiten zen lehena, geroago Bigarren Mundu Gerran egingo zirenen aitzindari, eta gerretan egiten ziren basakerien sinbolo bihurtuko zena.

Momentu hartarako Gernika-Lumon zeudenez bazekiten aurretik etortzitekeela arriskua. Lehenago beste bonbardaketa txikiagoak eman ziren, baina Durangon, martxoaren 31an, eta hurrengo egunetan eginitako ostean, arrisku hori gero eta hurbilago ikusten zuten denek. Herriko agintariak horren jakitun ziren eta zenbait babesleku eraiki zituzten. Hala ere, lehenengo hegazkina ikusi zutenean, herrian zegoen jende asko bertatik ihes egiten hasi zen; horretarako aukera izan zutenez, behintzat. Denbora laburrera, Soriatik, arratsaldeko lehen orduan, hiru Savoia 79 italiar bomba-hegazkin irten ziren. Gernika-Lumora ordu baten ostean heldu ziren. Beraiekin Heinkel 111 hegazkin alemaniarra ere bazihoan. Lehenik itxasorantz joan ziren eta bertan bira hartu ondoren, errekatik barrena Gernika-Lumorantz abiatu ziren. Helburua Errenteriako zubia apurtze zena zen, herrira hurbiltzen ari ziren tropak atzerantz egitea zailtzeko. Horretarako, 50 kiloko 36 bomba leherkari bota



Bonbardaketa osteko argazkia, herriko suntu siketaren irudia (J.A. Arana Martija bilduma)



Bonbardaketa osteko argazkia, herriko suntu siketaren irudia (J.A. Arana Martija bilduma)

zituzten, baina ez zuten helburua betetzeari lortu, zenbait etxe suntu arren. Ekintza horretan beste bost Fiat CR-32 ehiza-hegazkin hartu zuten parte, besteiei babes ematen.

Bonbardaketaren lehen bolarak ukatu ostean, kaltetutakoak, herrietik urrunago joateko edo premia zutenei laguntzeko emateko erabiliko zuten herritarrek hurrengo hogei minutuko lasaitasuna. Baina arratsaldeko seiak inguruan, berriro hasi ziren zuten beste hegazkin bat zuten motor hotza. Une horretan, herriaren suntu siper sistematikoa hasi zen, saturazio bonbardaketa. Kasu horretan, Burgosetik eta Gasteiztik irtendako Condor Legioaren Junker 52-ak ziren herriko zeruan agertu zirenak. Hiru eskadrila desberdinetan batuta zeuden etorri ziren 19 hegazkinak. Babes bezala 5 Fiat CR-32 eta beste horrenbeste Messerschmitt Bf 109 ehiza-hegazkin joan ziren haiekin batera; geroago, beste zenbait Heinkel 52ren laguntzeko izan zuten. Hasieran, itsasalderantz joan ziren guztiak eta erreka gertatzen hartu, eta herrira heldu ziren. Hiru hegazkinek osatutako patruiletan pasaldi desberdinak egin zituzten herriaren gainetik, iparretik hegoalderako norabidean. Hegazkinek 250 eta 50 kiloko bomba leherkari bota zituzten. Bomba hauek zuten ondorio suntu zitzaileari kilo bateko su bonbak gehitu zitzaizkion. Modu horretan apurtutako etxeak erretzen zuten, eta herriaren erabateko suntu siper ekarri zuten horrek. Ehiza-hegazkinek, gainera, metrailadoreak erabili zituzten ihes zihozten biztanleak hiltzeko asmoz.

Arratsaldeko 19:30ean herriko alarmak isildu egin ziren azkenean. Amaitua zen Aviazione Legionaria-ko italiarrek eta Legion Condorrek alemaniarrek eginiko Gernika-Lumoko bonbardaketa. Txikizio handia eman zen

herrian. Horretarako 29 tona bonba jaurti zituzten: 250 kiloko 39, 50eko 260 eta kilo bateko 5.472 su bonba. 1937an herrian zeuden etxeetatik % 74 erabat desaginda geratu ziren. Hala ere, Gernikako Arbola, Santutxa eta Maria eliza eta herriko goi aldeko zenbait etxe eta behealdeko industria kaltetu gabe geratu ziren, Errenteriako zubia bezala. Bonbardaketa egin zenetik, bertan hil eta zauritu kopuruaren inguruan eztabaida handia eman zen. Euskal Gobernuak Gernika-Lumotik alde egin zuen eta ezinezkoa zitzaien datu zehatzik ematea. Frankistek, bere aldetik, herrian eginiko txikizioa ezkutatzeko ez zuten izan inolako interesik ikerketarik egiteko. Beraz, egun horietako daturik ez dugu. Hegazkinek egin zuten txikizioa ikusirik, lehen momentuan hil kopurua handia izango zela uste izan zen. Euskal Gobernuaren informe batean 1.654 hildako egon zirela aipatzen zen, baina beste zenbait zifra horretatik gora jartzen zituzten hildakoen kopurua. Hala ere, egun horretan Gernika-Lumon egondako zenbait lekukoren arabera, hildakoen kopurua txikiagoa izan zen. Lehen hegazkina bakarrik etortzeko eta alarmak jotzen hasteak jende askori alde egiteko aukera eman zion. Hala ere, gaur egun egin diren ikerketen arabera, kalkulatu zen da 200 edo 250 pertsona inguru hil zituztela Gernika-Lumon. Dokumentatu gutxienez, 125 pertsonen heriotza dokumentatu da. Ospitaletan zenbait gehiago hiltzea edo sortu zen sute izugarriaren ostean, etxeetan hil zirenen hilotzak desagertzea ere litekeena da, halaber. Hildako kopuru handiena herrian egindako babeslekutan eman zen. Ez zeuden era egokian eraikita, eta, zoritzarrez, zenbait bonba haietan erori ziren, eta, ondorioz, barruan zeudenak hil egin



Bonbardaketa osteko argazkia, herriko suntu siketaren irudia (J.A. Arana Martija bilduma)

ziren. Udaletxean 24 pertsonak galdu zuten bizia, eta Santa María kalean, beste 45ek. Kaltzada zaharretxean ere zenbait bonba jauzi ziren. Hildakoak 33 izan ziren.

Tropa frankistak 1937ko apirilaren 29an sartu ziren Gernika-Lumon, eguerdiko ordu bata inguruan. IV. Brigada Navarra, euskal karlista asko, bereziki nafarrek osatutako gudarostea, eta «Flechas Negras» tropa italiarrak izan ziren lehenak sartzen. Hauekin batera Marokoko soldaduak ere sartu ziren. Demokraziaren bidean herrian emaniko pausuak zapuztuak geratu ziren modu horretan eta, bere ordez, diktadura gogorra eta luzea ezarri zuten.

5. Zenbait ideia amaitzeko



Lan honekin bukatu zeko, bere atal desberdinetan aztertutako gaiak laburbiltzen saiatuko gara orain. Azken Gerra Karlistaren amaieratik eta 1937ko bonbardaketa bitartean, alor desberdinetan bizi izandako bilakaera eta berrikuntza esanguratsuenak aipatuko ditugu orain, oso laburki.

Sarri askotan, Bilbotik kanpoko herrietako ekonomia deskribatu zeko, “nekazal” hitza erabili zen zen, askoren ustetan baserriarren mundua zelako hiri handiko bizitza kanpo zegoena. Baina hitza hori erabili zeak bestelako konnotazioak zituen: ekonomia tradizionala, berriro gabea eta mundu berriari egokitu gabekoa. Baina Gernika-Lumori buruz egin dugun ikerketan argi geratu zen da iritzi hori ez zela guztiz egokia. Egia da nekazariek herriko bizitza garrantzitsu handia zutela eta, halaber, ez zutela izan aukera gehiegi esplotazioak hobetu zeko. Baserrietako jabeek eta tamainak ez zuten laguntzen inbertsioak egiten eta produktzioa handitu zen edo espezializatu zen. Herrian zenbait saiakera egin ziren hori aldatu zeko, bereziki, Los Pirineos enpresarekin, baina ez zuten lortu inbertitzaileek nahi zuten besteko arrakasta.

Hala ere, nekazaritzarekin ez zen amaitzen Gernika-Lumoko ekonomia. Hasieran artisautza, baina gero, herriko beste ezaugarrietako bat merkataritza modernoa zen. Baserriarrek bereziki ekoiztu ezin zutena erosi behar zuten eta, horretarako, herrietako artisauak eta merkataria beharrezkoak ziren. Nekazal munduaren osagarri garrantzitsua zen. Sektore hau, gainera, XX. mendean zehar aldaketa prozesuan murgildu zen. Artisauen garrantzia gutxitu egin zen eta, bere ordez, gaur eguneko merkatal sektorearen oinarrian legokeen merkataritza bilakatu ziren. Dendari berri horiek industrietan ekoiztutako produktuak zaldutuz, -produktu berriak, prezio onekoak eta “modan” egon zitezkeenak- salmentarako ondo egokitutako dendetan, erakusleku eta produktuen aurkezpen egokiarekin. Beraz, gaur egun Gernika-Lumoko ezaugarria den merkatal sektore modernoaren oinarriak, aztertutako garaian jarri ziren.

Baina XX. mendeko Gernika-Lumoko ekonomiaren ezaugarri nagusia industria izan zen. Gaur egun, ezaugarri hori desagertu zen joan arren, 1913tik aurrera herrian sortu ziren lantegiak izan ziren berrikuntza nagusia. Apurka-apurka, baina etenaldirik gabe, sektore desberdineko lantegiek ateak zabaldu zituzten Gernika-Lumon, denak tamaina ertaineko eta txikiak. Dendarik gabe, metalurgiara dedikatutakoak ziren garrantzitsuenak, eta talde zabal horren barnean, armen ekoizpenarena. Izan ere, Gernika-Lumo pistola eta arma laburren alorrean, Estatuko herririk ezagunena izan baitzen urte askotan. Gaur egun desagertuak daude orduko arrastoa herrian.

Normalean, industrializazioari buruz hitz egiten denean, aldaketa sakonak zekarren prozesua dela suposatzen da beti. Bizkaian, Bilbo eta ingurua dira horren adibide argia. XIX. mendearen azken herenean, meatzeak ustiatzen hasi zirenean, eta gero, industria siderurgiko handia sortuz, zonalde horretako gizartearen ezaugarri tradizionalak bat-batean desagertu ziren. Oso denbora laburrean, gizarte modernoaren ezaugarriak zabaltzen ginen. Baina ez zen horrela gertatzen beti. Bilbo inguruan gertatutako modukoak askotan erduzkatzen artu arren, industrializazioak beste bide batzuk ere jarraitu zituen. Horren adierazle, Gernika-Lumo bezalako nekazaritza inguruko herrietan gertatutako prozesua da. Industria zabaltzeak gizarte sektore berria herrian sustraitzea ekarri zuen: langileria. Baina horrek ez zuen suposatu beste sektoreen desagertzea eta, nekazaritzan bezala, ezaugarri tradizional nagusiak galtzea. Industrializazioa geldoagoa izan zen eta ondorioak oso ondo uztartu ziren gizartearen bestelako ezaugarriekin. Ez zen bat-bateko iraultzarik eman, trantsizioa eta eraldatze geldia eta geldoa baizik.

Industriak ezaugarri tradizional guztiekin bukatu ez izateak ez gaitu eraman behar Gernika-Lumo bezalako herrietan erdizionalak izaten jarraitzen zutelarentzat. XX. mendean murgiltzean, aldaketa geldoa baina geratu ezinean sartu ziren. Horren adibide biztanleen eguneroko bizitzan emandako aldaketak dira. Bidaiatzea errazago eta merkeago izateak, kultura maila igotzeak edota aisialdian eman ziren berrikuntzek, biztanleriaren ikuspegiak eta "beharrizanak" asko aldatu zituzten. Ikerketa askotan gai horiei ez zaie jaramon handiegirik ematen, baina pertsonen oinarriko bizitzari buruz informazio ugari ematen digute. Lanetik kanpo zegoenean zer egiten zuten, zer gustatzen zitzaizkien, informazio gehiago izateko aukera, etab, ez dira garrantzirik gabeko galderak. Beraz, ezaugarri horiek aldatzean, gizartearen ere aldatzen zegoela adierazten digu.

Egoera bera ematen da politikaren alorrean. Hiri handiak, industria, gizarte sektore berriak, langile mugimendua eta alderdi politiko berriak elkarrekin joaten diren ezaugarriak izaten dira. Baten bat faltatzean, politika modernorako ibilbidea apurtzen dela eta bilakaera hori ematen ez dela pentsatzen da askotan. Gernika-Lumon, adibidez, ekonomian eta gizartearen emandako aldaketak ez ziren azkarrak izan. Langile mugimenduak ere ez zuten izan beste leku batzuetan bezalako indarra. Beraz, askok uste izango zuten politika ere ezaugarri tradizionaletan mantenduko zela, baina eginiko ikerketak argi adierazten du hori ez zela izan horrela. Alderdi politiko modernoak, egoitzak, mitinak, propaganda aktoak, plan teamendu id eologikoak, etabarrak herrian presente egon ziren XIX. mendearen azkenalditik, baina askoz indar handiagorekin hurrengo mendean zehar. Aldaketa horiek ezaugarri bi izan zuten. Alde batetik, apurka-apurka eman ziren urteetan zehar. Berrezaruntza-garaian hasi arren, Bigarren Errepublikan ezarri ziren bere osotasunean. Bestetik, politikaren bilakaerak ez zuten bukatu esparru horrek zituen ezaugarri tradizionalekin. Urte askotan politika egiteko modu biak elkarrekin izan ziren herrian. Horren adibide, kazikismoak izan zuten garrantzia da. Baina urteak joan urteak etorri, kazike horien boterea eta indarra gutxitzen joan zen, politika modernoaren ezaugarriak zabaltuz.

Azken finean, Gernika-Lumoko historia aztertzean ikusten dena da bazeldela modernizatze bide batzuk. Erabateko aldaketa "iraultzailea" edo inolako eraldakuntzarik gabe iraganean geratzea ez ziren aukera bakarrik. Horiez aparte, bazegoen bestelako erdibidea: bilakaera urteetan zehar ematea eta ez sortzea bat-bateko ezaugarri aldaketa, epe luzera begiratu, soilik suma daitezkeenak emanez.

6. Bibliografia komentatua



Gernika-Lumoko historiari buruz argibide eta datu gehiago lort zeko Ander DELGADO CENDAGORTAGALARZA: ***Gernika-Lumo entre dos guerras civiles. De la Capital Foral al Bombardeo (1876-1937)***. Donostia: Txertoa, 2005 liburuan aurki daitezke. Bertan, art xibo desberdineko dokumentuak eta erreferent zi bibliografiko luzea a ipatzen dira. Beraz, berta ra jot zea da aukera egokiena hemen esandakoak sakondu nahi badu norbaitek. Atal honetan gaiari buruzko funtsezko lanak baino ez dira aipatuko, norbaitek bere kabuz aztertutako garaiari buruz argitasun gehiago bilatu nahi badu.

GIZARTEA ETA EKONOMIA

Gernika-Lumoko gizarte eta ekonomia eraketari buruz segidan aipat zen diren liburuak eta artikulua oso lagungarriak dira. Nekazal sektoreari dagokionez, XX. mendearen hasieran zenbait lan deskriptibo eta sintetiko idat zi ziren baserri munduari buruz. Besteak beste, hauek aipa daitezke: Vicente LAFFITE, "Agricultura y ganadería vascongadas", In: Francisco CARRERAS Y CANDI (zuzen.), *Geografía general del País Vasco-Navarro. País Vasco-Navarro*. Bart zelona, 1911-1925, 569-649 orr.; Idem., "Explotación del suelo. El caserío", In: *I Congreso de Estudios Vascos*. Bilbo: Eusko Ikaskunt za, 1919, 219-236 orr.; eta Idem., "El problema de la ganadería en el País Vasco", In: *II Congreso de Estudios Vascos*. Donostia: Eusko Ikaskunt za, 1920, 320-341 orr.; Theodore LEFEBVRE, *Les modes de vie dans les Pyrénées Atlantiques Orientales*. Paris: Armand Colin, 1933; edo D. Zarate, *La Casería Vizcaína. Lo que es = lo que debería ser*. Bilbao: Imp. y Encuadernación de la Casa de Misericordia, 1925. *Los Pirineos* esne-fabrikari buruz José A. ET XANIZ, "Sociedad Anónima LOS PIRINEOS. «Fábrica de leche condensada y leche seca»", In: *Aldaba*, 102. zbk., 1992, 37-49 orr.

Gernika-Lumoko artisaut za eta merkatarit zari buruz oso lagungarria da GERNIKAZARRA HISTORIA TALDEA, *Gernika Zaharra. Callejero, apuntes y anécdotas del Gernika anterior al 26-IV-1937*. Gernika-Lumo: Gernikazarra, 1987. Industria-sektoreari buruz José Angel ET XANIZ-en lanak kont sultatu behar dira, bereziki "Gernika-Lumo, 1913 Industrialización, movimiento obrero y conflicto social: la huelga de «Esperanza y Unceta»", In: *Vasconia*, 30. zk., 2000, 141-162 orr. Gandarias-i buruz idat zi duen biografia ere aipagarria da Gernika-Lumoko industrializazioaren bult zatzailea ezagut zeko, "Juan Tomás Gandarias y Durañona (1870-1940)", In: E. TORRES (zuzen.), *Los 100 empresarios españoles del siglo XX*. Madril: LID, 2000, 186-191 orr. Azkenik, C. BACIGALUPE eta José Angel ETXANIZ, *JYPSA, 75 años de historia de Guernica*. Bilbao: Lead ers, 1992 ere erabilgarria da herriko industriari buruz zenbait argibide lort zeko. Gernika-Lumoko industrializazioa Gipuzkoako herri askotan eman zenarekin alderatuta, komuneko ezaugarri asko ditu. Probint zia horretako nondik norakoak aztert zeko lan hauek kontsulta daitezke: Luis CASTELLS, *Modernización y dinámica política en la sociedad guipuzcoana de la Restauración, 1876-1915*. Madril: Siglo XXI, 1987 eta Félix LUENGO, *Crecimiento económico y cambio social. Guipúzcoa 1917-1923*. Bilbo: UPV/EHU, 1990.

LANGILE MUGIMENDUA

Bizkaiko langile mugimenduari buruz beharrezkoa da oraindik lan klasiko hauek kontsultatzea: Juan Pablo FUSI, *Política obrera en el País Vasco (1880-1923)*. Madrid: Turner, 1975; Policarpo LARRAÑAGA, *Contribución a la historia obrera de Euskalerra*. 2 ale, Donostia: Auñamendi, 1977; eta Ignacio OLABARRI, *Relaciones laborales en Vizcaya (1890-1936)*. Durango: Zugaza, 1978. Baita ere berriagoa den Luis CASTELLS, *Los trabajadores en el País Vasco (1876-1923)*. Madrid: Siglo XXI, 1993. Gernika-Lumok izan zuen bilakaerari buruz, lan hauek daude: José Angel ET XANIZ, "La lucha de los trabajadores de Gernika-Lumo por la jornada de 8 horas", In: *Aldaba*, 98-99 zbk., 1999, orr. 27-28 eta autore berdinaren aipaturako "Gernika-Lumo, 1913. Industrialización, movimiento obrero y conflicto social: la huelga de «Esperanza y Unceta»", In: *Vasconia*, 30 zbk., 2000, orr. 141-162.

EGUNEROKO BIZITZA

Ez dira ugariak eguneroko bizitza aztertzen duten lanak, modu integratu batean, behintzat. Euskal Herrian esparru honetako lehengo lanen artean segidan aipatzen direnak daude: Luis CASTELLS eta Antonio RIVERA, "Vida cotidiana y nuevos comportamientos sociales (El País Vasco, 1876-1923)", In: *Ayer*, 19. zbk., 1995, orr. 135-163; Antonio RIVERA, "Del pasado al presente. Las transformaciones de la vida cotidiana en Vitoria desde el siglo XIX a nuestros días", In: J.M. IMIZCOZ (zuzen.), *La vida cotidiana de Vitoria en la Edad Moderna y Contemporánea*. Donostia: Txertoa, 1995, orr. 407-431; eta Félix LUENGO, *San Sebastián. La vida cotidiana de una ciudad. De su destrucción a la ciudad contemporánea*. Donostia: Txertoa, 2003.

Hala ere, badaude beste lan asko ikerketa esparru zabal horretako zenbait gai aztertzen dituztenak. Gernika-Lumoko kasurako oso lagungarriak dira *Aldaba* aldizkarian publikatu diren artikuluko ugari, besteak beste, Vicente del PALACIO-renak: ("La enseñanza primaria en Gernika-Lumo: escuelas públicas y privadas (1890-1935)", In: *Aldaba*, 82. zbk., 1996; "Crónica del Colegio de los Agustinos de Guernica y Luno (1896-1963)", In: *Aldaba*, 88. zbk., 1997; "Crónica del Colegio de los Agustinos de Guernica y Luno (1896-1963)", In: *Aldaba*, 97. zbk., 1999. Hezkuntza zari buruz, Carmelo ECHEGARAY-ren ekarpena F. CARRERAS Y CANDI-ren *Geografía general del País Vasco-Navarro. Provincia de Vizcaya*, (1911-1925); GERNIKAZARRA HISTORIA TALDEAREN *Karitatezko Karmeldar Ahizten San Fidel ikastetxearen historia / Historia del Colegio San Fidel de las HH. Carmelitas de la Caridad. Gernika-Lumo (1901-2001)*. Gernika-Lumo: Carmelitas Gernika, 2001; G. ARRIEN, *Educación y escuelas de barriada de Bizkaia (Escuela y autonomía, 1898-1936)*. Bilbao: Bizkaiko Foru Aldundia, 1987; eta Maitane Ostolaza-ren *Entre religión y modernidad. Los colegios de la Congregación Religiosa en la construcción de la sociedad guipuzcoana contemporánea, 1876-1931*. Bilbao: UPV/EHU, 2000, aipatu daitezke ere.

Trenbideen garrantziari buruz Olga MACÍAS, *Ferrocarriles y desarrollo económico en el País Vasco (1914-1936)*. Bilbo: UPV/EHU, 1994 edo A.M. ORMAECHEA, *Ferrocarriles en Euskadi, 1855-1936*. Bilbo: Euskotren, 1989 kontsulta daitezke. Hala ere, Pablo ALZOLAren *Proyecto de ferrocarril de Amorebieta a Guernica-Luno*. Bilbo: 1884 eta *Monografía de los caminos y ferrocarriles de Vizcaya*. Bilbo: 1898, foiletoak oso interesgarriak dira Gernika-Lumora trenbidea heltzearen arazoak ulertzeko.

Azkenik, aisialdiari buruz ez daude lan gehiegirik, baina futbolari buruz S. OAR-ARTEETA eta C. ARTOLA-ren *Historia del Gernika Club, 1922-1977*. Gernika-Lumo: Gernika Club, 1997 aipa daiteke, eta zinemari buruz, lan orokor bi hauek: T. ANSOLA, *Del taller a la fábrica de sueños. El cine en una ciudad industrial: Baracaldo (1904-1937)*. Bilbo: UPV/EHU, 2002 eta Santiago de PABLO, *Cien años de cine en el País Vasco (1896-1995)*. Vitoria-Gasteiz: Arabako Aldundia, 1996.

POLITIKA MUNDUA

Euskal Herriko gizarte garaikidean gehien aztertu den esparrua politikarena izan da. Horren ondorioz, liburu eta artikulugari aurki daitezke gai horri buruz. Hemen, Bizkaiko kasuarekin lotura duten zenbait lan aipagarri aipatuko dira soilik, bestelako lanak ere badaudela argi utziz.

Abertzaletasuna izan da Euskal Herrian ikerkuntza gehien izan duen joera politikoa. Oso lagungarriak dira segidan aipatzen diren lanak: Javier CORCUERA, *Orígenes, ideología y organización del nacionalismo vasco (1876-1904)*. Madril: Siglo XXI, 1979, eta Santiago de PABLO, Ludger MEES eta José A. RODRÍGUEZ RANZ, *El Péndulo Patriótico. Historia del Partido Nacionalista Vasco, I: 1895-1936*.artzelona: Crítica, 1999. Beste lan interesgarri ematen dituzten datuengatik eta aztertutako gaiengatik: Ludger MEES, *Nacionalismo vasco, movimiento obrero y cuestión social (1903-1923)*. Bilbao: Sabino Arana Fundazioa, 1992; Iñigo CAMINO y Luis GUEZALA, *Juventud y nacionalismo vasco. Bilbao (1901-1937)*. Bilbao: Sabino Arana Fundazioa, 1991; eta Mercedes UGALDE, *Mujeres y nacionalismo vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza (1906-1936)*. Bilbao: UPV/EHU, 1993. Bigarren Errepublikan EAJK izan zuen bilakaera ezagutzeko eta EAren sorreraz gehiago jakiteko liburu hauek irakur daitezke: José Luis de la GRANJA, *Nacionalismo y II República en el País Vasco. Estatutos de autonomía, partidos y elecciones. Historia de Acción Nacionalista Vasca: 1930-1936*. Madril: Siglo XXI, 1986 eta José María TAPIZ, *El PNV durante la II República (organización interna, implantación territorial y bases sociales)*. Bilbao: Sabino Arana Fundazioa, 2001.

Sozialismoaren esparrukoak, hauek dira irakur beharrekoak: Juan Pablo FUSI, *Política obrera en el País Vasco (1880-1923)*. Madril: Turner, 1975 eta Ricardo MIRALLES, *El socialismo vasco durante la II República. Organización, ideología, política y elecciones, 1931-1936*. Bilbao: UPV/EHU, 1988. Monarkikoei buruz Ignacio ARANA PÉREZ, *El monarquismo en Vizcaya durante la crisis del reinado de Alfonso XIII (1917-1931)*. Iruña: Eunsa, 1982. Karlisteri buruz: Javier REAL CUESTA, *El carlismo vasco 1876-1900*. Madril: Siglo XXI, 1985 eta Martin BLINKHORN, *Carlismo y contrarrevolución en España 1931-1939*,artzelona: Crítica, 1979.

Primo de Riveraren diktadurari buruz azkeneko liburua Eduardo GONZALEZ CALLEJA, *La España de Primo de Rivera*. Madril: Alianza, 2005. Bigarren Errepublikako politikari buruz liburu hauek aipatu daitezke: J.P. FUSI, *El País Vasco 1931-1937. Autonomía. Revolución. Guerra Civil*. Madril: Biblioteca Nueva, 2002; Javier DÍAZ FREIRE, *Expectativas y frustraciones en la Segunda República (Vizcaya 1931-1933)*. Bilbao: UPV/EHU, 1990 eta *Ibid.*, *La República y el porvenir. Culturas políticas en Vizcaya durante la Segunda República*. Donostia: Kriselu, 1993. Gernika-Lumori buruz José Ángel ETXANIZ, "Gernika-Lumo 1934. De un verano caliente a un octubre revolucionario", In: *Aldaba*, 71. zbk., 1994, 31-41 orr., 72 zbk., 1994, 31-41 orr., eta 73. zbk., 1995, 31-40 orr. Herriko Gerra Zibilari buruz José Ángel ETXANIZ, "Gernika-Lumo en guerra. Del 18 de julio al 1

Delgado Cendagortagarza, Ander: Gernika-Lumo (1876-1937). Sarriena historikoa

de octubre de 1936", In: *Aldaba*, 81. zbk., 1996, 33-45 orr. eta 83. zbk., 1996, 37-48 orr. Azkenik, Gernikako Bonbardaketari buruz: Maria Jesús CAVA (M. Silvestre y J. Arranz laguntzarekin), *Memoria colectiva del bombardeo de Gernika*. Bilbao: Bakeaz/Gernika Gogoratuz, 1996; José Luis de la GRANJA eta José Ángel ETXANIZ (zuzen.), *Gernika y la Guerra Civil. Symposium: 60 aniversario del bombardeo de Gernika (1937)*. Gernika-Lumo: Gernikazarra, 1998. George L. STEER, *El Arbol de Gernika. Un ensayo sobre la guerra moderna*. Tafalla: Txalaparta, 2002.